

Goienkaria

2007ko maiatzaren 25a > Egubakoitza > VII. urtea > 289. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Lurretik kanpoko bizitzarik egon daiteke? Bai, gu hemen gaudelako"

Bittor Rodriguez
Ilatargi Astronomia
Taldeko kidea > 09



G2a

Elgetan, 'Mathilde maitatzeko moduak' > 43-44

ARAMAIO

AHTren gaineko galdeketa bertan behera uztea erabaki du Udalak > 07

ARRASATE

Polmetasa lantegiak herrian jarraituko duela bermatu du > 19

ESKORIATZA

Ekainaren 20an zozkatuko dituzte Santa Marinako etxebizitzak > 34

HAUTESKUNDEAK 07 > UDALAK ETA BATZAR NAGUSIAK OSATZEKO HAUTESKUNDEAK, DOMEKAN

Bailaran 52.232 herritarrek dugu botoa emateko eskubidea

ZERRENDAK Udaletarako 60 zerrenda aurkeztu dituzte alderdi eta hautesle taldeek, baina hamar atzera bota dituzte

MAHAIK Guztira 22 hautesleku egongo dira Debagoienean, eta mahaiak, berriz, 85

ZINEGOTZIAK Udaletarako 115 zinegotzi aukeratu beharko ditugu, eta udalbatza berriak ekainaren 16an eratuko dira > 05

GOIENA > HAUTESKUNDEAK

Jarraipen zabala Goienan

Emitzak ezagutzera emateko saio eta zenbaki bereziak egingo ditugu gure komunikabideetan > 51

Gaur, barikua, hasiko dira Pazkoak Bergaran

Bitorianatxoren jaitsierarekin abiatuko dira jaiak Bergaran, 20:00etan, eta martitzenera arte askotariko ekitaldiak eta hainbat berrikuntza izango dira; berrikuntzen artean Seminarioko patioan jarri duten zezen-plaza dago. Koka-penean datza berrikuntza, eta horrek ezinegonia piztu du Aranzadi Ikastolako hainbat gurasorengan; izan ere, eskola orduetan ikasleek jolasleku gisa erabiltzen dute gunehori. Horrekin batera, higiene eta osasun gaiek ere kezka eragin diete: plaza kendu ostean gunea "erabat garbi" ez gertatzeak kezkatzen ditu. > 07



ZEZEN-PLAZA Seminarioko patioan jarri dute, eta horrek haserrea piztu du Aranzadi Ikastolako hainbat gurasorengan.

MONIKA BELASTEGI

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55



SUPER AMARA

*Super Amaren partetik
Ondo Ibili
Mendekosteetan!*

San Lorenzo Poligonoa.
Amillaga kalea, 18 - BERGARA.
P Bezeroentzako Aparkalekua



Ezker Batua/Aralar
herria ezkerrera ekarri

bozkatu

aralar

Ezker Batua
Berdeak

www.ezkerbatua-aralar.com

HAUTESKUNDEAK 07 > LEHENENGOZ BOZKATUKO DUTEN IBARREKO GAZTEEN IRITZIA JASO DUGU

Aintzat hartzea eskatu diete gazteek etorriko diren alkateei

BEDERATZI Ibarreko herri guztietako gazteekin izan gara, eta udal hauteskundeei begira zein asmo daukaten galdetu diegu

ILUSIOAREKIN Denei ez, baina gehienei ilusioa egiten die oraingo domekan botoa eman ahal izateak, nobedadeagatik bada ere

BADUTE ZER ESKATU Arazo orokorre gain, herri bakoitzaren gainean eskaera konkretuak dituzte gazteek; politikariak aintzat hartzen ez dituztela uste dute

XABIER URTZELAI > BERGARA

Domekako hauteskundeei begira, GOIENKARIAk ibarreko gazteen iritzia jaso gura izan du. 18 edo 19 urterekin lehenengoz emango dute botoa, eta alderdi politikoei ondo dakite haiek direla etorkizunean alderdien ereduak ezarriko dituztenak, haien botoak balio handia duelako.

Gazte izanda ere, gehienek hauteskunde kanpaina gertutik jarraitu dutela aitortu digute, eta politikak aparteko zirrararik sorrarazten ez badie ere, domekan hauteslekuetara gerturatuko dira gehienak botoa ematera. Gazteen ikuspuntutik, ezkerreko alderdiak erakargarriagoak izaten dira, hori ez da berria, eta ibarreko elkarrizketatuen artean baieztatu dugu hori. Hori bai, guztiek eskatu dute gauza bera: gazteak aintzakotzat hartzea.

ALDERDIEN ERRONKA

Izan ere, hortxe dago alderdi guztien benetako erronka: 18-19 urte dituztenengana gerturatu eta haiei bideratutako politika egitea, horrek dituen zailtasunekin. Boterera iristen diren politikari askok arazo moduan ikusten dituzte adin horretako gazteak, buruhaustea sortzen dituen jende multzoa. Eta hori da herritar talde horretatik urruntzeko lehenengo pausoa.

Horrenbestez, herrietako hautagaiok jakin dezatela orain arte gaztetxo izan direnek dagoeneko erabakitze eskubidea daukatela, eta badagoela haiei bideratutako politika egitea. Izatez errebelde, Debagoieneko gazteek ondo dakite zer gura duten, eta dagoeneko hasi dira eskatzen. Domekako emaitzak jakin baino lehen, hasi apunteak hartzen.

"Panfletoetan gastatzen dutena beste zerbaitetan gastatuz gero..."

Paulok ikusminarekin jarraitu du hauteskunde kanpaina: "Udal hauteskundeak direnez, alderdi bakoitzeko zerrendetan zeintzuk aurkeztzen ziren ikusten ibili naiz, ezagunik ba ote zegoen ikusteko. Dena dela, ikustekoa da zenbat panfleto jaso ditugun etxean, denak zakarrontzian amaitzeko. Diru hori beste zerbaitetarako erabiliko balute..."

Domeka gain-gainean badago ere, Casalek oraindik ez du erabaki botoa nori eman. "Gutxi gorabehera, bada- kit nire botoa nondik nora ibiliko den, baina azken erabakia hartzea falta zait. Beste aukera bat da boto zuria ematea; esango nuke gazte askok egiten dutela hori". Kontuak kontu, Casalek badu zer kritikatu: "Azken urteotan herrian ez da gauza handirik egin, eta hauteskundeak gertu zeudenean hasi dituzte herriko obra guztiak".

"Eskoriatzan gaztetxea behar dugu, lehengoa itxi egin zuten"

Liberi ilusioa ematen dio botoa emateak: "Baina seguru lehenengo aldia delako daukadala ilusio hori, nobedadeagatik; seguru nago hurrengo hauteskundeetan ez dudala ilusio bera izango". Nobedadeagatik bada ere, koadrilakoei sarritan egiten du berba politikaz: "Azken baten, udal hauteskundeak dira, eta guztiok gura dugu gure herriarendako onena. Horrela, botoa ematen diogun alderdiaren esku uzten dugu herriaren etorkizuna, eta horrek garrantzi handia dauka".

Hauteskunde kanpaina gertutik jarraitu du Aranburuzabalak: "Egon diren gertaerekin, derrigor". Herriari dagokionez, Eskoriatzak gaztetxea behar duela esan digu: "Lehenago bazegoen bat, baina kondizio txarrean zegoelako itxi egin zuten. Bestela, ludoteka eta gaztelekua badaude, baina nagusiagoendako ez dago leku aproposik.

"Domekan botorik ez emanda ez dugu ezer ere konponduko"

"Nik ez du politika askorik jarraitzen, baina euskaldun moduan kontziente naiz gure herriko egoera ez dela onena, eta botorik ez emanda ez dugula ezer konponduko. Gazte euskaldunek paso egiten badugu, egoerak txarre- ra egingo du". Esaldi borobil horrekin erantzun digu Josu Agirrek lehenengo galderari. Dena dela, botoa ematera joango dela jakinda ere, Oñatikoak oraindik ez dauka argi zeinen alde egingo duen: "Etxean ez dugu politikaz berba egiten. Baina oraingoan etxean galdetuko dut ingurukoek ze asmo duten jakiteko, arrebak batez ere".

Agirreren koadrilan badaude politikaz berba egiteko ohitura daukatenak: "Baina kontu garrantzitsuak ez badira, orokorrean lagunok ez dugu politikaz berba egiten". Oñatiri dagokionez, gazteengandik gertu dagoen Udala gura du Agirrek.



Paulo Casal
Aretxabaleta



Libe Aranburuzabala
Eskoriatza



Josu Agirre
Oñati

Arizmendi Ikastolako LANBIDE HEZIKETA
gure profesionalak

aurrematrikula epea zabalik ekainak 1etik 7ra

>> erdi mailako zikloak <<
ERIZAINZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK

>> goi mailako zikloak <<
ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
ANALISIA ETA KONTROLA
INGURUMEN KIMIKA

902 11 20 25
informa zaitetz!

Arizmendi
ikastola
www.arizmendi.ikastola.net/lanbide



Mikel Igartua
Bergara

"Herriko gazteengandik gertuago egoteko eskatuko nioke alkateari"

Aparteko ilusiorik egiten ez badio ere, domekan botoa ematera joango dela esan digu Mikelek: "Politikako gorabehera guztiak ondo jakiteko oraindik gaztea naizela esango nuke. Alde horretatik, koadrilan ez dugu politikaz berba egiten, politikariaren batek esan duen astakeriaren bat komentatzeko ez bada".

Alkate berriari zer eskatuko liokeen ere galdetu diogu Bergarakoari: "Gazteengandik gertuago egoteko eskatuko nioke, ikus dezala herriko gazteek aisialdirako edo bestelako kontuetarako ditugun beharrak. Hori horrela, botoa nori emango dion erabaki ote duen galdetu diogu: "Uste dut baietz", esan digu. "Alde horretatik, beste alderdi batzuk ere Udalean egoteko aukera izatea ona dela uste dut, zer egiteko gauza diren erakusteko".



Itziar Perez
Antzuola

"Urte batzuk barru arazoak izango ditut etxea erosteko"

Itziarrek ilusioz emango du botoa domekan: "Bai, niretako horrek badu garrantzia, behingoz herriko gorabeheren gainean erabakitzeke eskubidea izango dugulako". Antzuolak aldaketa behar duela azaldu digu Itziarrek: "Nik ANVri emango diot botoa, ez daukat inongo arazorik hori esateko. Antzuolan urteak eman ditugu agintari berdinekin, eta aldaketa baterako garaia dela uste dut. Hori horrela, botoa emango diodan hautagaia gustuko dut, gaztea delako-edo".

Antzuolak zer behar duen galdetu diogu Perezi, zeren alde egin behar duen: "Autobus zerbitzu hobea behar dugu derrigor, eta, orain momentuan nire lehentasuna ez bada ere, argi daukat urte batzuk barru arazoak izango ditudala etxebizitza bat erosteko".



Mikel Arriolabengoa
Aramaio

"Paso egiten dut; gezur gehien esaten duenak irabazten du"

Aramaion, Mikelen koadrilan sei lagun dira, baina bakar-rak eman ahal izango du domekan botoa, gainontzekoek abuztuan egiten dituzte-eta urteak: "Ez pentsa horretatik askorik larritzen naizenik, politikaz paso egiten dut-eta". Ikasturtea ondo amaitu, selektibitatea egin eta azken hilabeteen alde batera utzita izan duen bizikleta berriro ere hartzea du Aramaiokoak buruan: "Politikari guztiek gauza bera gura dute: boterea. Alde horretatik, ez dut uste bata bestea baino hobea denik; gezur gehien esaten duenak irabazten du".

Hala, lagunekin politikaren gainean batere barbarik egiten ez duela aitortu digu Arriolabengoak: "Zertarako? Hori da politikariak gura dutena, egun dena euren gainean berba egiten ibiltzea. Nik paso egiten dut".



Jone Usobiaga
Arrasate

"Argi daukat hauteskunde hauek ez direla oso demokratikoak"

Jone Usobiaga botoa ematera joango da domekan: "Nahiz eta argi daukadan hauteskunde hauek ez direla oso demokratikoak izango, alderdi bat legez kanpo utzi dutelako, eta beste alderdi bati mugak jarri dizkiotelako herri guztietan aurkezteko".

Hala, Usobiagaren iritziz, ondorengo kontuetan egin beharko luke Arrasateko alkate berriak esfortzua: "Nire ustez herriko kultur taldeek Udalaren partetik bultzada behar dute, orain arte izan dutena baino laguntza handiagoa. Horrekin batera, herriko jai herrikoiagoen alde egin beharko luke, herritarren parte-hartzea sustatzeko". Beste alor batzuen gainean ere egin digu berba Arrasatekoak: "AHTren kontrako kanpainarekin bat egiteko eskatuko nioke alkateari, eta herrian dagoen etxebizitzaren arazolari konponbidea jartzeko".



Ane Elortza
Elgeta

"Euskararen alde egingo duen udal ordenantza behar dugu"

Euskal Herrian Euskaraz taldeko aldarrikapen batekin etorri da hitzordura Ane Elortza, ibarreko udaletan euskaraz berba egiteko eskubidearen alde egin dutena: "Udalak euskalduntzearen aldeko kanpaina da. Elgetan, adibidez, gauza asko euskaraz egiten diren arren, Udaleko langile guztiak ez dira euskaldunak. Hori oztopo bat da herritar moduan norberaren udaletxean euskaraz egiteko. Hori guztia arautzeko, beharrezko ikusten dugu Euskal Herri mailako udal ordenantza izatea".

Lagunartean politikaz sarritan berba egiten dutela esan digu Elortzak, eta hauteskundeetako kanpaina interes handirekin jarraitu duela: "Azken asteotan hauteskunde demokratikoak izateko egon diren oztopoen gainean egin dugu berba lagunok". Amaitzeko, Elortzak onartu digu botoa argi duen horietakoa dela.



Ane Zubillaga
Leintz Gatzaga

"Leintz Gatzagan bizitzeko, derrigor behar da automobila"

Ane Zubillaga ondoko lagunak baino urtebete nagusia goa da, eta botoa nori eman erabakitzeke gainontzekoek baino denbora luzeagoa izan badu ere, Gatzagan ez du aukera handirik, bi alderdi baino ez dira-eta aurkeztu: Independentenak eta Alderdi Popularra: "Egia esateko, ez diot garrantzi handiegirik ematen. Azken egunean, aitari galdetuko diot ea botoa emateko asmorik badaukan, eta nik ere gauza bera botatuko dut".

Zubillagak esan digu hamar laguneko koadrila daukala, eta horietako zazpi direla gatzagarrrak: "Lagunekin, baina, ez dut politikaz berba egiten". Hala ere, alkate berriari badago zer eskatu: "Lagunen artean, ni naiz automobila gidatzeko baimenik ez daukan bakarra. Herri honetan ez dago besterik, derrigor behar da autoa. Ez dakit ze aukera dagoen autobus zerbitzu ona jartzeko".

Gipuzkoa bizia

langilea

zintzoa

leiala

jatorra

euskalduna

berritzailea


BOZKATU EA!!



**eusko
alkartasuna**

Iñaki Galdos

Diputatu Nagusirako hautagaia



HAUTESKUNDEAK 07 > UDALAK ETA BATZAR NAGUSIAK OSATZEKO HAUTESKUNDEAK

Debagoienean 52.232 herritarrek dugu botoa emateko eskubidea

Ekainaren 16an, zapatua, udalbatzarrak osatzeko bilkurak egingo dituzte

Hauteskundeei jarraipen zehatza egingo zaie Goienako komunikabideetan

AINTZANE IRIZAR > BERGARA
Guztia prest dago domekako hauteskundeetarako. Udal hauteskundeak eta Batzar Nagusietakoak egingo dira. Hortaz, mahai bakoitzean bi hautestontzi topatuko ditugu. Boto-txartelak eta gutun-azalak ezberdinak dira: udal hauteskundeetarakoak dira zuriak eta Batzar Nagusietarakoak sepia kolorekoak.

HAUTESKUNDEAK ZENBAKITAN
Debagoienean, 52.232 herritarrek dugu domekan botoa emateko eskubidea. Udaletarako 60 zerrenda aurkeztu dituzte alderdi politiko eta hautesle taldeek. Zerrenda horietatik, baina, hamar atzera bota dituzte, legez

kanpo laga dituzte. Debagoienean, guztira, 115 zinegotzi aukeratu beharko ditugu, eta udalbatzak ekainaren 16an eratuko dituzte.

Batzar Nagusien kasuan, Debagoieneko Gipuzkoako herriak Deba-Urola barrutian sartzen dira; barruti horri egokitzen zaio 14 batzarkide aukeratzea. Aramaio *Zuia eta besteak* izeneko barrutian sartzen da, eta barruti horri egokitzen zaio zazpi batzarkide aukeratzea.

EHNA ERABILTZEKO DEIALDIA
Bai Euskal Herriari herri ekimenak prentsaurrekoa egin du asteon, hauteskundeen gainean. Herritarrei dei egin diete dome-

kan, botoa ematerakoan, EHNA erabiltzeko. Era berean, adierazi zuten alderdi politiko gehienekin harremanetan jarri direla honakoa eskatzeko: EHNA erabiltzeko edo erabili nahi dutenei babesa emateko.

POSTA BULEGOAN LAN ETA LAN
Halaxe ibili dira egunotan Bergarako posta bulegoan. Hauteskunde egunak bat egiten du Bergarako Pazkoekin, eta, Pazkoetan hainbat herritarrek kanpora joateko ohitura dutenez, bada, hauteskundeotan besteetan baino jende gehiagok emango du botoa postaz: milatik gora ber-

gararrek, hain zuzen ere. Normalean, 300-400 batek bozkatzten dute postaz.

HAUTESKUNDEAK GOIENAN
Goienako komunikabideetan hauteskundeetako emaitzak eza-gutarazteko saio eta ale bereziak egingo ditugu. GOITBn, domekan, 19:45ean hasiko dute saio berezia eta Arrasate Irratian jarraitzeko aukera ere izango da. Emaitzak jakin ahala, *Goiena.net* webgunean ere jasoko ditugu. *Asteleheneko Goienkaria* ere berezia izango da. Han jasoko ditugu hemengo emaitza guztiak eta hauteskunde egunak ekarritakoak.

Hauteskundeetako datuak herriz herri

HERRIA	ERROLDA	HAUTESLEKUAK	MAHAIAK
ARRASATE	18.640	6	33
BERGARA	12.071	5	19
OÑATI	8.800	5	16
ARETXABALETA	5.366	1	7
ESKORIATZA	3.2660	1	4
ANTZUOLA	1.727	1	2
ARAMAIO	1.287	1	2
ELGETA	870	1	1
LEINTZ GATZAGA	205	1	1
DEBAGOIENA	52.232	22	85

ITURRIA: DEBAGOIENEN UDALAK

EAJk ekitaldia egin zuen Biteri plazan, Arrasaten

Martitzenean hauteskunde-ekitaldia egin zuen EAJk Arrasateko Biteri plazan. Hantxe izan ziren Markel Olano ahaldun nagusitarako hautagaia, EAJk Debagoienean dituen alkate, zinegotzi eta alkategai ugari, Jaurilaritzako bozeramaile Miren Azkarate eta Joseba Egibar, Gipuzko Buru Batzarreko presidentea, besteak beste. Olanok adierazi zuen Gipuzkoak abertzaletasun sendoa behar duela.

Ekitaldia egiten ari zirela, herritar talde batek legez kanporatzeen kontrako protesta ekitaldia egin zuen.



Egibar eta Debagoieneko EAJko hainbat agintari.

UBANE MADERA

Debagoienerako estrategia aurkeztu du EAK

Debagoienerako bultzatuko duen estrategia politikoa aurkezteko agerraldia egin dute oraingo astean ibarreko EAKo alkategaiek. Eusko Alkartasuneko kideek uste dute herriz herriko politikez gain, guztiz beharrezkoa dela Debagoieneko interesen alde egiteko indarrak batzea.

Horretarako, plan estrategikoa egin dute; plan horretan landu dituzten gaietako batzuk dira garraioa, ingurumena, turismoa eta kirola. "*Makropolitikatik* irten eta proposamen zehatzak egiten ditugu", azpimarratu zuten.




Debagoieneko ordezkariak, aurkezpenean.

ARRITXU BARRUSO

Hezurren kalitatea zain ezazu.

Hezur-dentsitometria orain Arrasaten.

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO



ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88

SARIKETA > PROIEKTU BERRITZAILEAK

Landa eremua garatzeko ideia bila dabilta

Deba Garaia eta Debemen landa garapenerako elkarteek proiektu berritzaileen sariketa egin dute

Proiektuak aurkezteko epea irailaren 28an amaitzen da, eta zenbait baldintza bete behar dira

MIRIAN BITERI > ANTZUOLA

Deba Garaia eta Debemen landa garapenerako elkarteek nekazaritza arloari eta landa garapenari buruzko ideia eta proiektu berritzaileen sariketa antolatu dute. Eta, sariketaren oinarriak azaltzeko asmoz, agerraldia egin zuten esandako bi elkarteetako ordezkariak eta Debagoieneko eta Debarreneneko zenbait alkate eta zinegotzik joan zen martitzenean.

Egitasmora aurkezteko epea irailaren 28an amaitzen da. Gaia aukeratzeko orduan, ohiko produkzio joeratan oinarrituta, aldaketa eredugarriak edo produktuari balio erantsi handiago ematea lortuko luketen ekimenak kontuan hartuko dituztela jakinarazi zuen Deba Garaia elkarteak teknikari Agurtzane Diazek.

Horrez gain, Debarroan ohi-koak diren produkzioetatik kanpo nekazaritza arloan egin daitezkeen ekimenak ere aintzat hartuko dituztela esan zuen, baita nekazaritza jardueratik kanpoko-

ak ere –baldin eta nekazaritzaren osagarri badira–, hala nola, ingurumen, ohitura edo kultura arloarekin lotutakoak.

HIRU BETEBEHAR

Proiektuek hiru betebekar izan beharko dituzte: Debarroan garatzeko modukoa izatea, bi ibarretan gauzatu gabeko proiektua aurkezte; eta txosten bat egitea, non helburua eta proiektuaren garapen memoria eta aurrekontua zehazten diren.

Azken hori Deba Garaia edo Debemen elkarteetara bidaliko da, parte-hartzaileen izen abizenekin, helbidearekin eta telefonoarekin.

Sariketa irabazten duenak 1.000 euro poltsikoratuko ditu eta bigarrenak, 500 euro. Era berean, proiektua lantzeko 3.000 euroko beka eta jarraipen laguntza izango ditu lehenengoak.

Argibide gehiago gura duenak Deba Garaia edo Debemen elkartera jo dezake.



ANTOLATZAILEAK Elkarteak kideek Debarroko hainbat alkate eta zinegotzirekin. M.B.

IAZKO LEHIAKETAREN IRABAZLEAK

Barraskiloei buruzko ideia nagusitu zen

2006. urteko sariketarako sei ideia jaso zituen. Lehen saria barraskiloen hazkuntzari buruzko proiektu batek eraman zuen, Beñat eta Axel Lezeta anaien aurkeztutakoa. Barraskiloak ekoizten hasi dira jada anaiak, Eskoriatzako Apotzaga auzoan. Badakite 3.000 euroko beka zertan erabiliko duten: Debagoieneko eta Debarreneneko produktu horren kontsumoa bideratzeko eta komertzializatzeko azterketa egingo dute datozen hilabeteetan Lezeta anaiak.

Bigarren saria *Baserría eta Eskola* izeneko egitasmoak jaso zuen. Azkenik, jendea animatu gura izan zuen Deba Garaia elkarteak teknikari Agurtzane Diazek: "Aurrekoetan erantzun polita jaso dugu", esan zuen.

GARRAIOA

Urritik aurrera, txartel bakarra

Bidaiekin kopurua handituz doan heinean, deskontuek ere gora egingo dute

M.B. > BERGARA

Gipuzkoako hiriarteko autobus zerbitzu guztiek txartel bakarraren sistema erabiliko dute urritik aurrera. Deskontuen bitartez ohiko erabiltzaileen artean garraio publiko bultzatu gura dute hala.

Ezarpena zatika egingo da. Gehien erabiltzen diren autobus-lineak ekainaren 4an ekingo diote txartela erabiltzeari. Gurera, hala ere, ez da urriaren 1a arte iritsiko.

DESKONTUAK

Lehen hamar bidaiek ez dute deskonturik izango. Hortik aurrerakoek, berriz, %15ekoa izango dute. Bidaiekin kopurua handituz doan heinean, deskontuek ere gora egingo dute, %90era iritsi arte.

PERTSONALA

Txartel bakoitzak lau euro balio du

Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri duen txartel bakarrak erabiltzaileen datu pertsonalak eta haren argazkia eraongo ditu. Gipuzkoako 500 bat kioskotan eros daiteke, lau euroren truke.

Kargaketa 5 eta 300 euro artekoa izan daiteke. Txartela eskuratu gura duenak eskaera orria bete eta ondoren kiosko batera eraman behar du, argazkiarekin batera. Hiru egunean jaso dezake.

> HEZKUNTZA

Ikastetxe publiko gehienek egin dute greba gurean

Debagoieneko ikastetxe publiko gehienekin harremanetan jarri gara eta eman dizkiguten datuen arabera, gehienek greba egin zuten atzo, eguna. Salbuespenak honakoak izan dira: Arrasateko institutuak ez du grebarik egin; Bergarako Miguel Altuna institutuan 53 irakasletik zortzik greba egin dute eta Elgetako eskolan, hamar irakasletik bik.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eman digun datuaren arabera, bestalde, Gipuzkoa mailan, irakasleen %58,8k egin du greba.

S-MAX your life.



Ford S-MAX berria. Urteko Autoa 2007an Europan
24.000 € -tik aurrera

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE



Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com



ENPRESA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD DE
CIENCIAS
EMPRESARIALES



Jarraitzeko prest?

07-08 GRADUONDOKO IKASKETAK

- **EZM / MBA – ENPRESA ZUZENDARITZA EZM / MBA MASTER OFIZIALA**
 - Zuzendaritza Orokorra Aipamena
 - Finantza Zuzendaritza Aipamena
 - Marketing Zuzendaritza Aipamena
 - Logistika eta Garraioa Aipamena (Bidasoa Campusa)
 - Kirol Entitateen Kudeaketa eta Zuzendaritza Aipamena
- **ENPRESA KOOPERATIBOEN KUDEAKETA MASTER OFIZIALA**
- **BANKA ETA BURTSA MASTERRA-ONLINE**
- **ENPRESEN INFORMAZIO SISTEMAK MASTERRA**
- **ENPRESA PROIEKTUEN ZUZENDARITZA MASTERRA**

INFORMAZIO HITZALDIA: **2007ko maiatzaren 30, 18:30**
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Larraña, 16 · 20560 OÑATI

Informazio gehiago:



www.eteo.mondragon.edu
Tfnoa.: 943-718009 • e-maila: postgrado@eteo.mondragon.edu

BERGARAKO MENDEKOSTE JAIK > GUSTU ETA ADIN GUZTIETARAKO EKITALDIAK

Gaur, barikua, hasiko dira jaiak Bitorianatxoren jaitsierarekin

Skate festa, mahai futbol eta dardo txapelketa eta errektadoreen eskola dira berrikuntzak

Zezen-plaza Seminarioko patioan jarri dutela salatu du Aranzadiko guraso talde batek

MIRIAN BITERI > BERGARA

Etxafuego jaurtitzearen eta Bitorianatxoren jaitsieraren bidez, Mendekoste jaiei ongietorria egingo diete gaur Bergarako plazan, 20:00etan. Parrandak martitzenera arte iraungo du.

Prestatutako egitarau zabalean nobedadeak aurki daitezke. Domekan, skate festa egingo dute lehenengoz, Labegaraian eta, egun berean, mahai futbol eta dardo txapelketa izango da. 17:00etan emango diote hasiera, Munibe plazan. Bi ekitaldiok parte hartu gura duten guztiendako dau de zabalik. Horrez gain, astelehenean eta martitzenean, gazteendako errektadore eskola izango da Seminarioan egokitu duten zezen-plazan.

Jai giroa nagusituko da, hortaz, datozen egunetan Bergaran.

Zapaturako antolatutako ekimenen artean, moto-kros txapelketa aipa daiteke. Domeka arratsaldean, dantza solte txapelketa izango da. Egun berean egiten den txirrindulari lasterketa, bestalde, astebate atzeratu dute.

Txosna batzordeak ere egitarau herrikoi zabala prestatu du. Gaur, egubakoitza. presoen aldeko afaria eta zapatuan kontzertuak nagusituko dira. Domekan bizikleta eta skate poteoa izango da. Jardunek, bestalde, Usoa Mendikutek egindako zapiak ditu salgai herriko tabernentan eta plazan.

GURASOEN HASERREA

Zezen-plaza Seminarioko patioan jartzearen harira, haserre agertu da Aranzadi ikastolako guraso talde bat. Erredakziora bidalitako oharrean, zezen-plaza jartze-



HASIERA Bitorianatxoren jaitsierarekin hasiko dira jaiak.

ARTXIBOA

ko toki hoberik ez ote dagoen galdetzen dute, ume eta gurasoen eguneroko espazioa da-eta hori. Bestalde, plaza martitzenean jarri izana ere salatu dute; goiz deritzote horri. Horrekin batera,

zezen-plaza kentzerakoan patioa erabat garbi geratuko den zalan-tzan jartzen dute, batik bat, umeen osasuna kontuan hartuta, eta hori norbaitek baloratu duen jakin nahi dute.

AHT

Aramaioko galdeketak airean segitzen du

M.B. > ARAMAIO

Abiadura Handiko Trenaren gainean Aramaion egitekoak ziren herri galdeketa airean dago. Espainiako Gobernuko ordezkari Paulismo Luesma galdeketa gelditzearen alde azaldu zen joan zen astean, kontsulta antolatzeko jarraitu beharreko pausoak ez direla bete argudiatuta. Galdeketa udal eta foru hauteskunderen egun berean egiteak arazoak sor ditzakeela ere aipatu zuen Luesmak.

Horrekin guztiarekin, Aramaioko Udalak osoko bilkura egin zuen atzo, eguna, eta herri galdeketa bertan behera uztea onartu zuen.

Hori horrela izanik ere, Aramaioko AHT Gelditu! Elkarlanekoak galdeketa-ekin aurrera jarraituko duten edo ez aztertzen zebiltzan erredakzioa ixteko orduan. Luesmaren erabakia "lotsagarria" dela eta herritarrek AHTren inguruan uste dutena esateko "eskubide osoa" dutela gogora ekarri zuten AHT Gelditu! Elkarlanekoek.

OÑATIN IKASTETXETIK LAN MUNDURA

MEKANIZAZIOA

TALDE GIDARITZA
NATUR INGURUNEANMANTENTZE-LAN
ELEKTROMEKANIKOA

➤ Maiatzak 30 arratsaldeko 18:00etan **ATE IREKIAK**

Aurrematrikula ekainaren 1etik 7ra

Larraña egoitza

.: San Lorenzo, z/g

.: 20560 OÑATI (Gipuzkoa)

.: Tel.: (943) 78 21 50

.: onatikobhi@goieskola.net .: www.onati.net

zuazola-larraña
b.h. institutua

gure artekoak

VOLKSWAGEN PASSAT > Urte mordoa da Volkswagen etxeak Passat automobila merkaturatu zuenetik; orain, modelo guztiz eraberritua dakarkigu, eta Udalaitez kontzesionarioan erakutsi digute.

Felix Elortza > Udalaitez kontzesionarioko Volkswageneko arduraduna

"Lau gurpiletako trakzioak segurtasuna ematen dio"

AINZANE IRIZAR > ARRASATE

Ibilbide luzea egin du dagoeneko Volkswagen etxearen Passat automobilak. Oraingo modelo guztiz eraberrituta datorkigu. Dotorea, segurua, eroso eta gidatzeko erraztasun handia ematen digun automobila da.

"Aipatzekoa da lau gurpiletako trakzioa duela; horrek segurtasun handia ematen du, bereziki euriarekin, haizearekin edo elurrarekin gidatu behar dugunean", diosku Elortzak.

DSG sistema ere aipatu beharrekoa da; merkaturako martxa aldaketa azkarrena da Passatek eskaintzen diguna. Enbragearen pedalik ez dauka automobilak. Martxak aldatzeko bi aukera dauzka gidariak: era automatikoa edo eskuzkoa. Automatikoan jarritz gero, gidariak ez du ezer egin beharrik. Eskuzkoaren kasuan, bolantean dagoen sistema baten bitartez edo betiko era-ralda alda daitezke martxak.

AUKERA ZABALA

Karrozeriari dagokionez, berlina edo familiar erako modeloak dauzkagu aukeran. Motorrari dagokionez, bestalde, aukera oso zabala dago: dieseletan, hiru modelo eta gasolinazkoetan, bost. Ekipamenduari dagokionez, azkenik, "aukeren zerrenda luzea



Felix Elortza, Volkswagen Passat berriarekin.

A.I.

Passat 2.0 Tdi 140 ZP Advance

Prezioa	28.730 eurotik hasita
Luzera	4,76 metro
Zabalera	1,82 metro
Maletategia	485 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	5,8 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	209 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	9,8 seg.
CO2 isurketak	157 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

da benetan", azaldu digu Elortzak. Segurtasun sistema guztiak serie-tik dauzkate modelo guztiek.

TEKNOLOGIA BERRIENAK

Batetik, esku-balaztaren palanka-rik ez dauka; horren orde, nahi-ko da botoi bat sakatzea automobila gelditu lagatzeko.

Bestetik, aipatzekoa da laser bitartez josten dela txapa, eta txapa hori galbanizatua dela. 12 urteko bermea du.

Azkenik, automobila martxan jartzeko giltza beharrezkoa den arren, giltza sartu eta botoia sakatuta jartzen da martxan.

etxeko leihotik



Iban Arantzabal > Goienako ikus-entzunezkoen zuzendaria

Hauteskundiak gustoko dittut; zergaittik ez, ba?

Jendiari ez ei jakoz gustatzen hauteskundiak. Neri ostera bai: batek zer esaten daben, bestiak zer ez daben esaten... Batzutan gustora eta bestetan amorratzeraino be-entzuten dittut berbalapiko pillo bat. Eta intereseak diran? Ba sobran dago esatia baietz: bai herriko eta gertueneko hauteskundiak diralako, batetik; bestetik, baita Batzar Nagusietarako politika ereduak erabaki geinkelako.

Karamelo-larrosa-boligrafo... eta antzerako panplina-dez gain aukeria euki dogu kandidato guzti-guztiak entzuteko eta esandakua irakurtzeko: Aralar, EA, EAE, EAJ, EBBerdeak, PP, PSOE, Zutik... Danei, dan-danei zabaldu dotsegu mikrofonua pareko kondizi-ziñotan: GOIENKARIAn 56 orri zerrendaburuen iritzixe-kin; *goiena.net*-en bideuak dare, zerrendaburuen argaz-kixak, aurreko hauteskundie-tako datuak; 45 hautagairi elka-rrizketak GOITBn, Batzar Nagusietako eztabaida saio bi; irratititik Arrasateko alkategai guztiak pasau dira...

Hau holan, hobeto aukeratu geinke oin, ze nik dakida-la botua ez da sigla batena edo bestiana. Geure-geuria da botua eta gure eginbiharretako bat da onena aukeratzia.

"Dan-danei zabaldu dotsegu mikrofonua, kondiziño bardiñetan zabaldu be"

> PPko Lamaraiñekin harrituta: solte ikusi dot euskeraz, zintzo. Irratixan kandidato bakarra itzuli bihar izan dogu: PSOE. Euskariari kaso gutxi egitten dotsen kandidatuak be askotxo dare ondio...

> EAE alderdixa legala da Oñatin Correosenda-ko. Korreoz botauta, EAE alderdiko papele-tak be badare aukeran. Bergaran 1.000 lagune-tik gora korreoz bozkatu dau. Jaixetan ez hautes-kunde ez jai: oporrak!

begi-bistan



Posta bulegoa beteta (Bergara) 2007/05/23

Argazkia: Monika Belastegi.
Testua: Aintzane Irizar.

Bergarako posta bulegoan lanez lepo ibili dira egunotan. Mende-koste jaiak direnez, jende asko kanpora joaten da, eta botoa posta bidez emango dute milatik gora herritarrek.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Josua Letona

KEMPO JOKALARIA



Manex Agirre

BERTSOLARIA



Beatriz Zabalondo

IRAKASLEA

Estatuko unibertsitateen arteko kempo txapelketa irabazi zuen aurreko asteburuan, Madril-en, Josu Letona arrasatearrak, gerriko zuritik laranjarako mailan. Moretik beltzerako mailan, Gaizka Murua bigarren sailkatu zen; Iker Letona eta Alberto Narro, hirugarren.

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle talde batek aldizkari berria argitaratu eman du, *Harabots* izenarekin. Aldizkari horrekin, sustatzaileen helburua da euskal kultura zabaltzea ikasleen artean. Hain zuzen ere, Manex Agirre aramaioarra da aldizkariaren sustatzaileetako bat.

Ibon Sarasolak *Euskal Hiztegia* berria argitaratu du. Hiztegi horretan, Jose Luis Aranguren *Txiliku*-ren eta Beatriz Zabalondo elgetarraren laguntasuna izan du. Zuzentze eta berridazte lane-tan jardun dute. 1996an argitaratu zuten lehenengoz hiztegia.

Ilatargi Astronomia Taldeak antolatuta, Bittor Rodriguezek Lurraz kanpoko bizitzaren gai-
neko hitzaldia egin zuen egue-
nean, Bergarako UNED areto-
an. Gasteizko EHuko Farmazia
Fakultatean irakasle dabil Bittor Rodriguez 33 urteko bergara-
rra; aldi berean, Ilatargi talde-
ko presidenteordea da. Berga-
ran egindako hitzaldia San Jua-
netan ere egingo du, Arrasaten.

Bittor Rodriguez > Ilatargi Astronomia Taldeko kidea

"Bizitza topatzea zaila da, baina Lurraren gaineko erantzun asko daude espazioan"


EDU MENDIBIL > BERGARA
Ilatargi Astronomia Taldeak beha-
ketak, irteerak eta hitzaldiak anto-
latzen ditu, besteak beste. Eguene-
an, ikusmin handia piztu zuen Bittor Rodriguezen hitzaldiak. *Unibertso osoa... guretzat?* izenburupean, Lurretik kanpo bizitza aurkitzeko aukeraz jardun zuen. Astronomia da haren zaletasun handienetako bat; lehen soldatarekin teleskopio bat erosi zuela dio.

Gizakiari unibertsoa handi geratzen zaiola aipatu duzu, baina Lurretik kanpo bizitza topatzea ez da erraza.

Gaur egungo bilaketa, nola-bait esatearren, zibilizazioen bila-
ketan oinarritzen da. Hala ere, bizitza estralurtarra, lurretik kanpo egon daitekeena, zera izan daiteke: forma sinpleak, bakterioak, birusak edo forma garatuak, Lurrean gertatzen den antzera. Esan bezala, ahalegin gehienak seinale adimendunak bilatzera bideratzen ari dira, garatutako zibilizazio batek bidalitako sei-
naleak aurkitzera, eta bakterioak garatzea ezinbestekoa da hori gertatzeko. Komunitate zientifi-
koa osoa ados dago bakterioak edo antzeko bizitza era sinpleak aurkitzeko zailtasunarekin. Esa-
te baterako, nahiz eta baliabide tekniko garatuak izan, ez daki-
gu ziur oraindik Marte gure pla-
neta auzokidean bakterioak egon diren edo ez. Muga teknologiko horiek gaindituta, informazio hobe-
a izango dugu etorkizunean.

Hala ere, bizitza egoteko bal-
dintza mordoa izatea beha-
rrezkoa da.

Lurrean bizitza sortzeko bal-
dintza asko eta oso kasualitatez-
koak gertatu ziren, bizitzaren sorrera baino suntsipena ekar-
zezaketanak, gainera. Ilargiaren sorrera dela eta, zientifikoek teo-
ria hau da: asteroide bat erori zen Lurrera, hura eratzen zegoene-
an, orain dela 500 milioi urte ingu-
ru, eta asteroide horren talkaga-
tik askatutako zatia dela ilargia. Lurraren adin berekoa da eta ezau-
garri antzekoak ditu... Eta ilargia ezinbesteko bilakatu da Lurrean bizitza agertzeko; horren adibide da itsasoaren duen eragina. Horixe adierazi nahi nuen, feno-
meno askok eta askok onuraga-
rriak baino gehiago kaltegarriak ematen zutela eta ustekabeen bizi-
tza sortu zela. Hau guztia ondo kon-
prenitu behar dugu lehenbizi, bizi-
tza beste toki baten nola agertu den ulertu ahal izateko.



Bittor Rodriguez Ilatargi Astronomia Taldeko presidenteordea da. Bergaran hitzaldia egin zuen aurreko egunean.

GOIENKARIA

Lurretik kanpoko bizitzak betidanik sortu izan duen zirrara ezin da ukatu...

Betidanik egon gara izarrei begira, ikertzeko grina hori gauza genetikoa balitz bezala. Amaren sabelean gaudenetik dauka-
gu esploratzeko nahi hori: uteroan dagoen umeak entzumena dauka eta ahots ezagunak bila-
tzen ditu jaiotakoan. Behin hazi-
takoan, beste gizakien babesa bilatzen dugu eta Lurretik kanpo dagoena ikertzea da betidanik gizakiaren nahia. Bi galdera plan-
teatzen ditut hitzaldian: Lurre-
tik kanpo bizitzarik egon daite-
ke? Bai, gu hemen gaudelako. Eta badago? Horri erantzutea ez da hain erraza. Espazioan bakte-
rioak bezalako bizitza era sinple-
ak aurkitu ahal izateko mugatu-
ta gaude oraindik. Ez gara gau-
za izan eguzki sisteman, Marten,
bakterioak egon ote diren baieztatzeko, nahiz eta ura dagoela jakin... Eguzki sistematik kanpo,
Saturnoko Titan satelitean, badi-
rudi konposatu organikoak dau-

BIZITZA ESTRALURTARRA
"Ahalegin gehienak seinale adimendunak bilatzera bideratzen ari dira"

ESPAZIOAN ZER
"Lurretik kanpoko bizitzarik egon daiteke? Bai, gu hemen gaudelako. Eta badago? Horri erantzutea ez da hain erraza"

ERRONKAK
"Bizi ahal izateko eta ikerketa zientifikoak egiteko beste toki bat bilatzea da erronka"

dela atmosferan; bizitza izateko lehen baldintza dirudi, baina... Apirilean beste planeta bat aurkitu zuten, 20 argi urtera dagoena, eta ur likidoa izateko tenpe-
ratura egokia duena, baina bizi-
tza agertzeko milioika faktore behar dira. Ikuspegi hipotetiko batetik begiratuta, bizigarriak izan daitezkeen planeta asko dau-
de, baina bizitza sortzea ez da horren erraza.

Ikerkuntzan nahikoa inberti-
tzen da gaur?
Amerikako Estatu Batuek jarraitzen dute lider izaten. European inbertsio zientifikoa txikia da. Espainian badago astrobiologia zentro bat Madri-
len, NASArekin elkarlanean ari dena. Ehunka langile ari da ber-
tan, Lurretik kanpoko bizitza bilatzeko helburuarekin. Hubble teleskopio espaziala maneiatu izan du Agustin Sanchez Lave-
ga bilbotarrak, eta hark esaten zuen moduan, zoritxarrez, ez da nahi beste ikerketa egiten.

Edozeinek parte hartzeko moduko proiektu bat aipatu duzu.
SETI proiektua guztiz interes-
garria da. Edonork har dezake parte. Erradio teleskopio bat espaziotik datozen seinaleak jasotzen ari da etengabe; tratamen-
du matematiko baten bitartez deszifratzen dira gero, zibilizazio baten mezuekin zerikusirik izan dezaketen ikusteko. Informazioa izugarri handia denez, ez dago hori prozesatzeko ahalmena duen ordenagailurik; programa bat deskargatu ahal da eta milioika ordenagailu daude konektatuta (www.setiathome.berkeley.edu), baina nahiko motel doa guztia...
Eta etorkizunean, zer?
Bizi ahal izateko eta ikerke-
ta zientifikoak egiteko beste toki bat bilatzea da erronka. Azken baten, berotegi efektuaren gaine-
an dakiguna, neurri handi batean Marteko esperientziari esker izan da.. Lurraren gaineko eran-
tzun asko dago espazioan.



zabalik

Txipi Ormaetxea

Hemen zoriontsu?

Zoriontsu naizela esateari larregi deritzot, baina une gozoan bizi naizela esango nuke. Pasatu ditut, bai, garai eta bolada txarrak (eta nork ez?), baina oraingoarekin konformatuko nintzateke geratzen zaidan bizitza-tarterako. Horrela zaudela, gauzak beste modu batean ikusten dira, lana ere eramangarriago egiten da, eta jendearekin errazago izaten dira hartu-emanak.

Baina ez gara burbuila batean bizi, inguruak eragina du gugan. Eta horrek zoriontasunean eragin dezake, onerako edo txarrerako.

Euskaldunok Herri batean bizi gara, baina gure Herria ez da normala, ez dago normalizatua. Esaterako, igandean hauteskundeak ditugu (ia-ia ‘ospatuko ditugu’ atera zait; zertan pentsatzen egongo ote nintzen?), hauteskunde erabat ustelak, demokraziatik ezertxo ere ez dutenak. Baina izen horrekin salduko dizkigute, halaxe ari zaizkigu saltzen.

Ni Gasteizen nago erroldatua, eta ez dut izango askatasunez botoa emateko aukerarik. Eta hautesmahaira hurbiltzen baldin banaiz, eta euskal agiria erakustea bururatzen baldin bazait, ez duela balio esango didate, orain lau urte legez. Gidatzeko karnetak bai, horrek balio du. Nola ez!

Munduko kontuek ukitzen (eta hunkitzen) bazaituzte, gizartea inporta bazaizu, zure Herriak axola badizu... beharbada horiek guztiek zure zoriontasunean eragingo dute, mugatuko dute, aldatuko dute. Eta beldur naiz okerreko eragina egingo ez ote dizuten! Ni behintzat gauza batzuek neure onetik ateratzen naute, eta konturatuta edo konturatu barik, neure zoriotxarrerako, nire zoriontasuna kolpatzen dute, bestelakotzen dute, murrizten dute.

"Gure Herria ez da normala. Igandean hauteskunde erabat ustelak ditugu"

"Gasteizen nago erroldatuta, eta ez dut izango askatasunez botoa emateko aukerarik"

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria



LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurilaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaleto
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarrak galdezka

BALMASEDAKO IKASTOLARI LAGUNTZA EMATEKO DEI EGIN DUTE

Irakurle batek deitu du Balmasedako ikastolaren gainean galdezko, Balmasedako ikastolak aurreko domekan antolatutako Ibilaldian izan zen eta. Eguraldia kaskarra izan zenez jakin nahi izan du ea jaiaren helburuak bete diren eta hori horrela ez bada kontu korronterik ireki duten diru-laguntzak jasotzeko.

Bada, egun euritsua izan zen aurreko domekakoa eta horrek ilundu egin zuen Balmasedako ikastolaren eguna. Hala, ikastolako arduradunek azaldu dute festaren helburuak ez dituztela lortu, eta gastuei aurre egin ahal izateko laguntza eskatu diete herritarrei.

Jaiaren helburua zen Bigarren Hezkuntzarako egindako eraikin berrirako dirua lortzea, eta ez dute lortu. Baina ez hori bakarrik: Ibilaldia antolatzen gastatutako dirua berreskuratzeke lain ere ez du eman domekako jaiak.

Horren guztiaren aurrean, laguntzarako deialdia egin dute

eta bi kontu korronte jarri dituzte Ibilaldian egon ez zirenen, goiz alde egin zutenen eta, oro har, lagundu nahi duten guztien eskurara, dirua sar dezaten. Kontu zenbakiak dira: Euskadiko Kutxa, 30350104201040043202 eta BBK, 20950114609107570540.

BERGARAKO PAZKOETAKO LEPOKO ZAPIAK NON EROS DAITEZKE?

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineke informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoikionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

Gaur, egubakoitza, hasi eta datorren martitzenera bitartean jaiak ospatuko dituzte Bergaran, Pazko edo Mendekoste jaiak, hain justu ere. Jardun euskara elkar-teak lepoko zapiak atera ditu jaietarako. Hala, irakurle batek zapi horiek non eskura daitezkeen jakin nahi izan du.

Zapiok eros daitezke herriko hainbat tabernatan: Pol-Pol, Kortazar, Hamaika, Ariznoa eta Avenida tabernetan, hain justu ere. Horrez gain, jaiak iraun bitartean postua ere jarriko dute Jarduneko kideek San Martin plazan eta han ere eskuratu ahalko da jaietako zapia. Prezioari dagokionez, hiru euro balio du.

Azken urteetan egin izan duen bezala, euskara elkarteak lehiaketara atera du aurten ere zapia apainduko duen irudiaren aukeraketa. Hala, Usoa Mendikute bergararraren irudiak irabazi du lehiaketa. Irudi hori egiteko musikan oinarritu da egilea eta irudiari euskararekin lotutako esaldia ere gehitu dio, lehiaketako baldintzek zehazten duten moduan; esaldia da: *Euskara ahoan... festa giroan.*

marraskiz

Unai Busturia



AHT gelditu!

Iban Perez

www.goiena.net/blogak/leihoa

Aintzane Ezenarrori egindako elkarrizketa batean, AHTren gaineke iritzia eskatu zioten. Erantzun zuen tren sozial eta moderno baten alde izan direla beti eta Euskal Y-aren aurka, ez dituelako ezaugarriok betetzen. (...).

Guztion artean uste dut gure herrialde eder hau sunsituko duen proiektua bertan behera bota dezakegula. Italian borroka gogor baten

ostean lortu zuten hango lurretan horrelako antzerako proiektu bat bertan behera botatzea, eta hemen hori ere posible da. Horregatik animatu eta larunbatean ahal izan ezkeru hurbildu herri eta hirietara AHTri ez esateko!

Egin eta egin

Anjel Lertxundi

www.berria.info/blogak/lertxundi

Bilbon, Berbelitzekin paseoan. Hauteskunde hauetan *egin* aditzak hartu duen protagonismoaz

hasi zait. Gestioaren gizartean bizi garela, eta ez dela harrigarri alderdi askok aditz hori hautatu izana, ekintza eta erabakimena markatu nahi dituztela horrela.

Egin aditzaren iradokizun erotikoez galdetu diot nik. Ziplo erori naiz tranpan, horrexen zain baitzegoen Berbelitz. Arrapaladan hasi zait. Galdakaoko alkateak txiste berde lizunak ligatuz eman omen zuen mitina ez zaiola eskandalagarria iruditzen, alkateak EAJren *egin behar dugu* lema izango zuela buruan. Baina EAKoak ere ez omen daude lo, hor ari baitira

plazara

Aurreko astean, maiatzaren 17an, Homofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen. Txerra Bolinaga arrasatearraren esanetan,

homofobiak tradizio luzea du gizartearen historian, eta jatorri bakarra ez duen arren, gizartean sustraitua dago. Azken urteetan,

eskubideei dagokienez, asko aurreratu dela azaldu du, baina oraindik egiteko asko dagoela ere nabarmendu du.

Txerra Bolinaga *

Homofobiaren aurkako eguna

1990eko maiatzaren 17an, Osasunerako Mundu Erakundeko gaixotasunen zerrendetatik kendu zuten homosexualitatea, eta, horren ondorioz, egun hartan bertan Homofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatu zen.

Eta, hain zuzen ere, egun horren helburua da homofobiaren, lesbofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatzeko sentsibilizazio jarduerak bultzatzea.

Zoritxarrez, homofobiak tradizio luzea du gizateriaren historian, eta jatorri bakarra ez duen arren, hainbat kulturatan, garaitan, klase soziale-tan eta instituziotan sustraituta dago; alegia, homofobiak, era pasibo edo aktiboan, gayen, lesbianen eta transexualen aurkako erreferentzia marko basatia sortzen du, eta, gainera, pertsona arriskutsutzat, biziosotzat edo gaixotzat identifikatzen gaitu marko horrek. Horretaz gainera, biolentzia politikoko (desberdintasun legala), sozialeko (bazterketa eta iseka publikoak) edo fisikoko (erasoak eta hilketak) ekintzen oinarri den estigma zehatz batekin markatzen gaitu.

Bada, aipatutako horregatik guztiagatik, aurreko asteko ostegunean, hilaren 17an, oraindik ere homosexualitatea kriminalizatzen duten 91 estatutan homosexualak eta transexualek pairatzen duten egoera latzaren gainean berba egin zen, beste behin –kontuan izan estatu horietako batzuetan heriotza zigorra aplikatzen dutela–.



MIKEL ARROIABE

Edozelan ere, lesbianek, gayek eta transexualek estatu horietan bizi duten egoera dramatikoak ez gaitu konpromisora eta elkertasunera soilik bideratu behar; izan ere, balio behar digu, baita ere, beste errealitate batzuetara gerturatzeko; kasu batzuk hurbilekoak izanagatik ere, krudelak izan daitezke-eta.

Argi dagoenez, hurbileko errealitate homofoboan zerrenda amaiezina izan daiteke; izan ere, gertatzen da unibertsite-etan eta eskoletan, bulegoak eta fabrikak zeharkatzen ditu, egunkarietan eta aldizkarietan barneratzen da, epaitegiak eta kartzelak igarotzen ditu, irra-

"Homofobia borrokatzeko eta gelditzeko asko egin dezakegu, bai maila pertsonalean, baita taldean ere"

"Batez ere instituzio publikoei dagokie desberdintasunarekiko errespetua sustatzea"

tiak eta telebista kateak zeharkatzen ditu, eta elizetan eroso sentitzen da.

Homofobia borrokatzeko eta gelditzeko asko egin dezakegu, bai maila pertsonalean, aipamen eta jarrera homofobak ez onartuz, eta baita taldean edo kolektiboetan ere, homofobia salatuz eta agerian utziz. Baina, batez ere, instituzio publikoei dagokie desberdintasunarekiko errespetua sustatzea. Eta azken urteetan, eskubideei dagokienez asko aurreratu baldin bada ere, egia da, baita ere, oraindik asko falta dela egiteko.

Besteak beste, sexu askatasunaren alorrean normalizazioa eta onarpenera bideratutako kanpainak egitea; pertsona bakoitzaren orientazio sexualarekin ez diskriminatzaileria eta adeitsua den balioen kultura bultzatzea; desberdintasunarekiko errespetuan eta aniztasunean hezte; eskoletan aukera sexual desberdinekin tolerantetia eta homofobiarekin kritikoak diren hezkuntza-programak ezartzea eta abar, eta abar.

Goian aipatutako bezalako neurriek lortuko dute maiatzaren 17ak –Homofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna– eta mota horretako bestelako egun guztiek inolako zentzurik ez izatea.

Bien bitartean, egunez egun, bidea erraztu dezagun guztion artean.

*Txerra Bolinaga, Gay mugimenduko kidea

zer deritzozu?

www.goiena.net

Reala mailaz jaitsiko dela uste duzu?

BAI	%0
EZ	%100

> EZ

Reala ez, Athletic jaitsiko da. Reala hobeto dabil, partidu gehiago irabazten ari da azken boladan. Horrek eragin du Realeko jokalariek Athleticekoek baino gorago izatea morala. Dena den, pena bat litzateke bata zein bestea jaistea. Aitor

> FEDE KONTUA DA

Honezkero fede kontua da, baina uste dut ez dela jaitsiko. Realak baino nahiago nuke Athletic edo Levante jaitsiko balira. Bueno, Levante jaitsiko balitz. Eneko

> EZ

Ez da jaitsiko. Jokalariak gogotsu dabil tza azken partiduak irabazten ari direlako. Bestalde, eta arrazoi beragatik, makalago dago Athletic eta baita Levante ere. Ikusiko dugu zer gertatzen den, baina nik Realaren aldeko apustua egiten dut, inongo zalantzarik barik. Mikel

DATORREN ASTEKOA: Elikadura nahiko zaintzen dugu?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

esaten *egin behar dugu* agintzea baino inportanteagoa dela *egitEA*.

—Baina lo ez daudenak, sozialistak!, eta Bilboko alkategai sozialistaren iragarkia seinalatu dit horma batean.

Txema Oleaga hautagaia ageri da paskinean. Irribarretsu dago. Bilbotarrak ohera bitez lasai, *gehiago egingo dugu* baita sozialistaren promesa.

Oharrak (Post scriptum): - Erraza zen zutabea, orain egun batzuk Zakilixutek ere bide beretik jorratu zuen berea. Baina aipa dezadan txistetik batere ez duen puntu bat: pentsatze hutsa ere halako

kanpainak eskaintzen dizkigutene-kudeatzen dituztela gero kultura eta artea eta sorkuntza...

Kamerafonoak 10 urte bete ditu

Joxe Aranzabal

www.goiena.net/blogak/faroa

Laster hamar urte beteko dira Philippe Kahn gazteak sortu zuela sakelako telefono kameraduna, kamerafonoa. Atzo Associated

Press agentzian Kahn-ek berak zioenenez, “tramankulu hark sekulako eragina izan zuen, oso eroso delako. Jatetxe batera baldin bazoaz, eta urtebetetze bat ospatzen ari badira, konturatuko zara bat baino gehiago kamerafonoa atera eta argazkiak egiten hasiko direla. Itzela da”.

AEBetako etxeen %41ek badaukate kamerafono bat gutxienez, eta nekez aurkituko duzu kamerarik bako sakelako-rik, diote adituek. Gartner etxeak, bestalde, aurreikusten du 2007an 589 milioi kamerafono salduko direla eta 2010era-ko, 1.000 milioi.

koplak

Eñaut Arriaran

Jaixak gozatu baina ez pasatu

Aste Santutik berrogei egun izaten da Pentekoste. Horretxegatik ostiral honetan herriko jaixak datozte.

Bergaratar zein debagoiendar orain argi entzuik txo ostiral honetan bilduko gaittук jaistean Bitorianatxo.

Zezenzaleek zebait falta ta igande honetan bozketa Nere ustetan hauxe izango dok jaixetako zezenketa.

Hau izango dok pentsau ezkerogauza bat harrigarrixa. Jai hasieran alkate bat ta jai bukaeran baerrixa

Bazkarixa be herriko plazan eingo dok astelehenian. Ea aurtan be biltzen gaittукen jende asko azkenian.

Kanpora juan ezian eta geratu ezkerog bertan ondo pasau festa hauetan eta gozatu benetan.

Nazio bat gara

Iker Dorronsoro
(Debagoieneko Bai Euskal Herriari)
Debagoiena

Euskal Herrian hauteskunde giroa usaintzen dela kontu ukaezina da. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia, alde batetik, Nafarroa bestetik eta Ipar Euskal Herria azkenik. Euskal herritarrok hauteskunde mahaietara deituak izanen gara, demokratikoki gure bozka eman ahal izateko. Eta demokratikoki diogunean, konbentzimendu osoarekin diogu, gure uste apalean hori baita gure herriak behar duena: errespeta eta demokrazia.

Demokrazia, XXI. mendean bizi garen pertsona guztien bizi bermea delako. Eskubide guztiak pertsona guztientzako eta herri guztientzako, nahiz eta gurea bezalako estaturik gabeko herrientzat erronka zaila izan. Euskal Herria estatu gabeko nazio bat da; hala ere, euskal herritar gisa bizi zea erabaki dugun herritarrak milaka gara.

Igandean, maiatzaren 27an, Hego Euskal Herriko biztanleak gure udal eta foru instituzioetako ordezkariak aukeratzera deituak gaude. Lurralde zatiketa dela-eta, hego Euskal Herria bi eremu administratibo ezberdinetan banatua dagoenez, bi eremuetan hautapen ezberdinak burutuko dira: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, udaletxe eta Batzar Nagusietako hautagaiak eta Nafarroa Garaian, aldiz, udaletxe eta Nafarroako Parlamentuko ordezkariak hautatuko dira.

Lehen esan bezala, milaka gara eskubide osoko euskal herritar moduan bizi zea erabaki dugun herritarrak. Eremu ezberdinetan, gure nazio izatea agerian utzi eta mundu osoaren aurrean euskal herritar gisa gure izena eta izana aldarrikatzeko determinazioa dugu.

Datorren maiatzaren 27an eskubide hori berriro praktikan jarriko dugu. Demokraziaren isla izan nahi duten hauteskundeetan, gure egin nahi dugu erabakitzeke ahalmena; horregatik asko izango gara euskal herritar gisa, EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitormena) eskuan agertu eta gure bozka emango dugunak.

Horregatik deialdia egiten dizuegu, Euskal Herriko eta bereziki Debagoieneko herritarrei, EHNA eskuetan duzuela bozkatzera joateko.

Milaka euskal herritar hauteskunde mahaietako lehendakarien aurrean euskal herritar gisa agertuko gara, EHNA eskuan bozka emateko determinazioarekin.

Arrasate-Oñati: eskerrik asko, guztioi

Amaia Kerexeta (Laixan Euskara Elkartearen izenean) > Oñati

Gutun honen bitartez Laixan Euskara Elkartek 25. Arrasate-Oñati lasterketan parte hartu zenuten guztioi, bai laguntzaile moduan eta baita korrikalari moduan ere, eskerrak eman nahi dizkizue.

Azken urteotan lasterketa hau antolatzeko oso jende gutxiren laguntza izan dugu eta dagoeneko 25 urte dituen lasterketa hau bertan behera geratzeko arriskuan ere egon da behin baino gehiagotan. Aurtun, ordea, tradiziozko lasterketa hau mantendu guran, laguntzaile bila zabalpen berezia egin dugu eta zabalpenak izan duen harrera ona dela-eta, lasterketaren antolakuntzan zuetako asko ibili zineten laguntzaile lanetan. Horrela, Arrasate-Oñati lasterketako edizio honetan aurreko urteetan laguntza faltagatik bete ezin izan ditugun hutsuneak beteta geratu dira eta horregatik zorionak eman gura dizkizuegu.

Besterik gabe, hurrengo urtera arte.

Antzuolako agintaldiaren Memoria, zergatik orain?

Pilar Etxaniz eta Jose Mari Iturbe

(Antzuolako Zutik/EB-Berdeak/Aralar koalizioaren izenean)
Antzuola

Antzuolako Udalak etxeetara bidali digun 2003-07ko agintaldiaren Memoriak zur eta lur utzi gaitu. Izan ere, hauteskunde kanpainaren erdi-erdian ez zaigu bidezkoa iruditu, eta norbere buruari egindako propagandaren kutsua hartu diogu. Zergatik orain? Ezin al zuen agintaldia zeharo bukatu arte itxaron? Gaizki pentsatzen dugula leporatuko al digute esaten badugu oportunismo politiko nabarmena dela Memoria orain kaleratzea?

Guk gure iritzia kaleratu aurretik alkatearengana jo genuen berarekin bileratxo bat egin nahi genuela adieraziz, ondorengo puntuak argitu nahian: 1. Memoriaren erredakzioan Udaleko partaide guztiek hartu duten parte. 2. Partaide guztiak ados dauden bertan esaten denarekin. 3. Non eta nork erabaki duen Memoria hori data hauetan kaleratzea. 4. Zer aurrekontu izan duen. 5. Zergatik kaleratu den hauteskunde kanpainan.

Bilera motz bat –hamar edo hamabost minutukoa– eskatu genion alkateari, baina ez berak eta ez alkateordeak ez zuten ostegun arte (ostira-lean bukatzen da kanpaina) gure zalantzak argitzeko denborarik. Guk eskubide osoa dugu zintzoa iruditzen ez zaigun jokaera honen aurrean

gure iritzia plazaratzeko, eta ezin genuen hainbeste itxoin. Beraz, galdera horiek publikoki egiten dizkiegu idatzi honen bitartez.

Memoriaren edukira jota, aurrekoekin konparatu dugu orain banatu dena:

- 1995-99 legealdiko Memorian, batzordeetako partaide guztien izenak aipatzen dira; 2003-05ean batzorde-buruarena bakarrik; 2003-07koan (oraingoan) batzorde buruaren izenari PNV/EA gehitzen zaio kasu guztietan.

- Memoriaren orri kopuru eta banaketari dagokionez, oraingoa luzeagoa da (50 orrialde) eta %50 hirigintzari dedikatzen zaio (aurrekoan %22,5). Ez dugu uste kasualitatea denik, zeren eta hirigintzan egiten dena *ikus*i egiten da. Are gehiago, bukatu gabeko obrak Memorian bukatuta ikusten direnean argazki birtualei esker. Kulturak aurreko Memorian %40 zuen, oraingoan ia %20, murrizketa nabarmena.

- Antzuola Etxegintzari buruz ez da ezer esaten, Udalaren partaidetza %100 den arren eta diru kopuru nabarmenak mugitzen dituen arren, batez ere hirigintzan.

Ez ditugu esan daitezkeen beste hainbat gauza aipatuko. Hala ere, badago beste zerbait harritu gaituena, ez da aipatzen beste taldeen lana eta ekarpena, nahiz eta batzordeetan lan egin duten lau urte hauetan. Ezta beste hainbat herritarrena ere: batzordeetan aritu direnak, edo Agenda 21 moduko ekintzetan, edo herriko beste kultur talde edo pertsona askorena, urtero-urtero ekintza ezberdinak aurrera ateratzeko lan nabarmena egin dutenak. Memorian bizpahiru aldiz errekonoz

tzen da beste batzuen laguntza: eskolako liburutegirako egokitzapenean; umeen tailerrak eta eskolako zaintza zerbitzua martxan jartzeko eskolako gurasoen laguntza aipatzen baita.

Hain garestia al da beren borondatez lanean jardun duten antzuolarrei lan hori eskertzea? Edo pentsatu behar al dugu PNV/EA direla gure herrian lan egin duten baka

rrak? Memoriaren sarreran esaten da herritarrekiko komunikaziorik eza konpondu nahi dela neurri batean etxez etxe banatu dituzten txosten dotore horiekin. Lau urteetan zehar Udalak aukera asko eduki ditu komunikazioa bermatzeko, kasualitatez orain sortu zaie horretarako premia eta presa.

Herriari informazioa eman behar zaio, noski, ez goaz horren kontra, egin den unea eta egin den modua da ez duguna konpartitzen. Ez dakigu denon diruarekin egindako Memoria hauteskunde kanpainan etxez etxe banatzea zeharo legala izango den. Badaezpada, Hauteskunde Batzordera eraman dugu ale bat, dagokionak erabaki dezan. Guk argi daukagu ez dela zintzoa. Bakoitzak balora dezala.

Etikarik eza

Patxi Olabarria

(Antzuolako EAE-ANV)
Antzuola

Kanpainaren erdi-erdian Antzuolako Udalak etxez etxe banatutako Memoriarekin egin duen erabilera guztiz salagarria iruditzen zaigu. Herritar guztion dirua erabili dute beraien proiektu partidistei babesa emateko. Gainontzeko alderdiok gure diruarekin herri programak ordaindu ditugun bitartean, PNVk herritar guztion dirua erabili du bere herri programa aurkezteko. Etikarik ez dutela erakutsi digute beste behin ere.

Orain da garaia

Premín Sanpedro Larrañaga
(Euskal preso politikoa)
Algecirasko espetxea

Euskal Herrian zein Arrasaten ugariak izan dira ezker abertzaleak askatasunaren bidean ezarri dituen mugarrak, aurrerapausoak sendo eginaz, eta antzeko ataka batean gaude gaurkoan ere. Euskal Herriaren izatea, euskaldunok gure etorkizuna libre erabakitzeke eskubidea,

herriz herri jendarte justuago bat eraikitzea, euskalduna, bizia, parte-hartzailea izango dena, geure eskuetan daude oraingoan ere.

Aurrera begirako ikuspegi zabalak lasaitasuna emanaz, independentzia eta sozialismoa ez baitira bihar edo etzirako izango, momentu bakoitzak duen garrantziaz jabetzea ere derrigorrezko dugu une honetan halako egoera batean gaude.

Hauteskunde hauetan, Euskal Herria garaile atera dadin, prozesu demokratiko baten aldeko ezker abertzalearen indarrak batu behar ditugu. Errepresioari eta sasi-irtenbideei aurre egiteko, benetako konponbideetara iristeko.

Errotik bidegabeak diren baldintzatan bizirautean du geure herriak: ukatua, zatitua, makurtua. Eta horri zelan buelta eman? Eguneroko lana oinarri izanik, lan horren uztak biltzeko momentuak ere badira eta hau horietako bat da. Ezker abertzalea makurtuta ikusi nahi duten horiei ere zer garen eta nor garen ikusarazteko ordua iritsi zaigu. Ez baitago konstituziorik ez alderdien legerik Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan geldituko gaituenik!

Arrasaten zein gainontzeko herrien kasuan lotsatuta dabiltzanak edo, okerrago dena, poltsiko bete diru harro ibilitako jauntxoak, alderdien legean zango trabatutako "demokratak" ditugu.

Duela lau urte ezker abertzalearen zinegotzi aulkiak lapurtu zituzten, soldatak hirukoiztu, herritarrak Udaletik uxatu, dirua lagunen artean banatu kultur taldeak zokoratuz, guztion eskubide diren etxebizitzekin aberastu, euskara Udaleko lehentasunetatik urrundu, Arrasateko inguruneak txikituko dituzten mendi zulaketa eta AHT babestu... Hamaika dira egin dituztenak lau urtetan. Zuek nik baino hobeto dakizue politiko kasta honek egin dezakeena.

Baina horri guztiari buelta emateko ordua iritsi zaigu.

Horregatik guztiagatik, eta aipatu barik utzitakoengatik, Arrasateko ezker abertzaleari doakio neure babes eta bultzada sendoena. Udalera zein Foru Aldundietara indarberrituta bueltatzeko momentua dugu eta maiatzaren 27ko botoan zein eguneroko borrokan bat egingo dugula ziur naiz. Legez kanporaketa zein mehatxuen aurrean etsi gabe, *Aurrera bolie!*

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



**Barrenkalea 33
20570 BERGARA**



**Telefonaoa:
943 25 05 01**



**Faxa:
943 25 05 13**



**Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com**



MIKROENPRESAK
AUTONOMOAK
SALTOKIAK

Kutxan, dendetan, tailerretan, kontsultetan... lan egiten dugu.



Gure ardura baita zure finantza-administrazio eta kudeaketa hobetzea, zure negozioa errentagarriago egitea, finkatzea, hobetze-asmoetan laguntzea...

Horretarakoxe daukagu zuretzat **gure MAC Zerbitzua**, zure negozioa bultzatzeko zerbitzu aparta, behar duzun arreta hurbil eta pertsonalizatua emateko prest beti ere.

■ ■ ■ **Zain gauzkazu** ■ ■ ■

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**



Gipuzkoan, egin behar dugu

Markel Olano Arrese

Gipuzkoako Ahaldun
Nagusirako
hautagaia

German Muruamendiaraz Larrañaga

Bergarako Alkatetzarako
hautagaia



Aitor Urrutia Oyanguren

Eskoriatzako Alkatetzarako
hautagaia



Lourdes Idoiaga Urkia

Oñatiko Alkatetzarako
hautagaia



Basilio Ormazabal Galarza

Antzuolako Alkatetzarako
hautagaia



Luis Mari Apraiz Iturraran

Arrasateko Alkatetzarako
hautagaia



Arritxu Oliden Bergara

Aretxabaletako
Alkatetzarako
hautagaia



egin behar dugu

eman botoa



www.eginbehardugu.com

www.eaj-pnv.com

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Udalbatzarrak azkeneko bilkura egin zuen atzo, eguna > 18



> **BERGARA**
Jardunen olinpiadak ekainaren 16ra arte jokatu dira > 26



> **OÑATI**
1a 300 etxebizitza berri egongo dira 2008 urtean, herrian > 31



> **ANTZUOLA**
Anelkar GKEak Elkartasun Festa egingo du domekan > 36

ARRASATE > ELKARTASUN EGUNA

Behartsuenei elkartasuna erakusteko eguna da bihar, zapatua, Arrasaten

ELKARTASUN EGUNA

10:00etatik 20:00ak arteko jaia egingo dute Seber Altube plazan

GKE-EK ANTOLATUTA

Gobernuz kanpoko zazpi erakundek parte hartuko dute

ANKURRERA

Tonbola ere izango da aurtan; hor batutako dirua Ankurrera (India) bidaliko ute

UBANE MADERA > ARRASATE

Bederatzigarren aldiz, Elkartasun Eguna ospatu behar dute Arrasaten. Biharko, zapatua, egin dute hitzordua, 10:00etan hasi eta 20:00ak arte.

Elkartasun Egunaren oinarri dira gobernuz kanpoko erakundeak, eta haiek behartsuenei laguntzeko egiten duten lana.

Hain zuzen ere, biharko jardunaldian parte hartuko dute honako erakunde hauek: Harreman, Activos Por Un Mundo Solidario, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Serso San Viator eta Nubi. Horiekin batera izango dira Aretxabaletako Mundukide eta Medicus Mundi erakundeak.

Hala, Elkartasun Egunari esker, besteak beste, gure inguruko gobernuz kanpoko erakundeek Saharan, Mozambiken, Indian eta Nikaraguan lantzen dabiltzan proiektuak gertuagotik ezagutu ahal izango dira.

PRODUKTU EXOTIKOAK

Antolatu duten egitarauaren barruan, bidezko merkataritzatik eratorritako produktuen dastaketa egingo dute: txokolatea, marmelada, pralina... Henna eta Saharako tea ere izango dira; eta hainbat produktu salduko dituzte; batez ere, Afrikako eta Latinoamerikako jakiak, artisautza-



TONBOLA laz ere arrakasta handia izan zuen Ibai Artekoen produktuekin osatutako tonbolak.

GOIENKARIA

ko produktuak, jantziak eta zilarrezko bitxiak. Asiako zenbait produktu ipiniko dituztela ere iragarri dute.

'SALAM!' KALE ANTZERKIA

Horrekin batera, antolatzaileek nabarmendu gura duten beste ekimenetako bat da 18:00etan egingo duten kale antzerki saioa. Hain zuzen, TTR taldeak (Teatro Trapero del Rio) *Salam!* antzezlana eramango du Arrasatera: "Ekarriko dugu antzezlana hori gurasoak seme-alabekin etor daitezen", adierazi dute Harreman erakundetik.

Salam! antzezlana Ekialdeko doinuak ekarriko ditu Seber Altubera: "Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko kultur harremanak estutzeko gure karabana zuen herrira etorri da. *Salam!* publikoa plazara eramaten duen kalejira bat da. Bi magrebtarrek eta euren game-luak gozaraziko digute Magrebeko arte eta musika herrikoia- ren erakustaldi batekin, eszena- toki inprobisatu batean".

ELKARTASUN EUROA

Bestalde, gobernuz kanpoko erakundeekin batera, gaztetxoek ere egingo dute ekarpena behartsuenei laguntzeko; izan ere, Arizmendi Ikastolako Ferixalekua guneko hainbat ikaslek Elkartasun Euroa antolatuko dute.

Egiten dutena da dirua batu euroak ilaran ipinita eta herritarrei gauza bera egin dezaten gonbidatuta: "Iaz diru kopuru polita batzea lortu zuten", jakinarazi dute Harreman erakundetik.

LAU IZARREKO HOTELA

Eta Elkartasun Eguneako azkeneko ekitaldia da Eroski Bidaiaek emandako sariaren zozketa, 20:00etan: "Zozkatuko dugu bi lagunendako egonaldia Andorran, lau izarreko hotelean, ekainean".

Egun osoko egitaraua

26, zapatua

11:00 Haurrendako jolasak izango dira, Txatxilipurdi elkartearen eskutik.
17:00 Djamboree taldearekin perkusio emanaldia.
18:00 Umeendako kale antzerkia: *Salam!* antzezlana.
19:00 Djamboree taldearekin perkusio emanaldia.
20:00 Eroski Bidaiaek enpresak emandako sari bereziaren zozketa.
Egunean zehar: bidezko merkataritza; tailerrak; informazio-guneak; produktuen salmenta; tonbola eta Elkartasun Euroa.

IBAI ARTEKO MERKATARIEN PRODUKTUEN TONBOLA

Ankurrerako da tonbolako dirua

Aurtan ere egingo dute tonbola, Ibai Arteko merkatariek oparitutako produktuekin: "80-100 opari sorpresa izango dira", jakinarazi dute Harremanetik. 4.000 txartel ipiniko dituzte salgai, euro baten truke. Eta batutako diru guztia bidaliko dute Bonbayra (India), Ankur proiektura. Haren helburua da familiek kalean utzita eta baztertuta bizi diren neskatilei laguntzea. Iaz, 3.825 euro batu zituzten, eta aurtan kopuru hori gainditzea nahiko lukete. 10:00etatik 20:00etara da tonbola.



GOIENKARIA

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 26	Irizar	Erguin 15	943 79 12 39
Domeka, 27	Irizar	Erguin 15	943 79 12 39
Astelehena, 28	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Martitzena, 29	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Eguaztena, 30	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Eguena, 31	Etxeberria	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Egubakoitza, 1	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15

BERGARA

Zapatua, 26	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Domeka, 27	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Astelehena, 28	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 29	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztena, 30	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Eguena, 31	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Egubakoitza, 1	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05

OÑATI

Zapatua, 26	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 27	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 28	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 29	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztena, 30	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguena, 1	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 2	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

ARETXABALETA

Zapatua, 26	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 27	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 28	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Martitzena, 29	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguaztena, 30	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguena, 31	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Egubakoitza, 1	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udaltzaingoa	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obbero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20.
Geralekua: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.


Labegarieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30.
Geralekua: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
	07:50	08:05
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25
Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23		

eguraldia


DEBAGOIENEAN



Zapatua, 26

Okerrera egingo du eguraldiak; ipar mendebaldeko haizea izango da eta horrek kazkartuko du. Freskatu ere egingo du.

EUSKAL HERRIAN



Domeka, 27

Bi zati izango ditu egunak: lehenengoa nahiko ona, hego haizearekin; baina iluntzerako mendebaldeko fronteak giro txarra ekarriko digu.

oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA
>Mundumirako elastiko solidarioak salgai
Mundumira jaialdiaren antolakuntzak eta Ternuak elastiko solidarioa jarri dute salgai. Dirua eskualdeko GKEendako izango da. 24 euro balio dute eta saldutako bakoitzaren-gatik 3 euro jasoko dira. Salgai daude honako lekuetan: Antzuolako Itziar liburu dendan eta Aretxabaletako Jauregi okindegian, Durana kaleko kioskoan, Artamo tabernan eta Asensio jantzi dendan.

DEBAGOIENA
>Gurean enpresa berriak sortzeko auzolandegia antolatu du Saiolanek
Bergarako Elosu auzoan izango da. Inoiz enpresa propioa sortzeko ametsa izan dutenei dago zuzenduta; parte hartzeko baldintza da ikasketak bukatutako gaztea edo langabea izatea. Uztailaren 16tik 29ra izango da auzolandegi berezi hori. Izena emateko epea zabalik dago, 943 71 20 72 zenbakian edo alarrea@eps.mon-dragon.edu e-posta helbidean.

ARRASATE
> Arrasate Musikalen matrikula egiteko epea zabalik dago
Ekainaren 21era arte egongo da zabalik Arrasate Musikalen matrikula egiteko epea. Astelehenetik eguenera izango da hori, 17:00etatik 20:00etara. Hain

zuzen, 4 urtetik gorako-endako instrumentu eta ballet eskolak daude. Baita helduendako talde bereziak ere.

BERGARA
> 1968 kintoek afaria egingo dute
Ekainaren 9an egingo dute afaria. Izena ematea (10 euro) Zuhaizti tabernan.

BERGARA
>Bazkide berriak Sagarpe elkarterako
Sagarpe elkarteen egoitza berrirako bazkide berriak nahi dituzte. Informazioa: mailto:larregi@euskal-net.net. 300 euro sartu behar dira maiatzaren 31 baino lehen Banco Guipuzcoano-ko kontu korrante honetan: 0042 0046 08 0110085601.

ARETXABALETA
> Kirol elkarteko zuzendaritza batzordea osatzeko dei egin dute
Gaur egungo zuzendaritza batzordeak hiru

DEBAGOIENA

> Euskal Herriko Boulder Txapelketan izena emateko epea zabalik dago

Ekainaren 3an jokatuiko da, Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan. Mundumira jaialdiaren barruko ekitaldia da eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Espezialitate horretako eskalatzailek onenak batuko ditu. Izena emateko edo informazio gehiagorako: www.emf-fvm.com edo 902 18 14 71.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

TENPERATURAK

MINIMOA

Eguaztena, 16

16 °C

MAXIMOA

Egubakoitza, 18

30 °C


ASTEKO EURIA (l/m²)


20 L


	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 16	16 °C	9 °C	0,6 l/m²
Eguena, 17	20 °C	12 °C	- l/m²
Egubakoitza, 18	27 °C	15 °C	0,4 l/m²
Zapatua, 19	17 °C	15 °C	8,1 l/m²
Domeka, 20	17 °C	15 °C	10,5 l/m²
Astelehena, 21	17 °C	13 °C	0,4 l/m²
Martitzena, 22	20 °C	13 °C	- l/m²


Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA MAIATZEAN









Ilbehera

10

Ilberri

16

Ilgora

23

Ilbete

2

Ekainaren 10era arte dago zabalik ibilgailuen zerga ordaintzeko epea. Udalak eman du aditzera helbideratutako ordainagiriak maiatzaren 8an zordunduko direla baimendutako kontuetan. Helbideratuta ez daudenak posta arruntaz bidaliko dira zergadunen helbide fiskalera.

BERGARA
>Gizarte zerbitzuen arloan diharduten taldeen-dako dirulaguntzak
Udalak emango ditu laguntzok; 22.591 euro, hain justu. Baldintzak dira, besteak beste: legez eraturako taldea izatea eta Bergaran egitea jardueren egitaraua. Eskaerak egin behar dira ekainaren 10a baino lehen, udaletxean.

DEBAGOIENA
> Domeketan, meza Urbiako ermitan
Domu Santu Eguenera arte, domekero meza egingo dute Urbiako ermitan. Aita Joseba Etxeberria Arantzazuko frantziskotarrak zuzenduko ditu elizkizunak.

ELGETA
>Bi begirale behar dituzte uztailleko aisialdi zerbitzurako
Uztailaren 2tik 20ra izango da aisialdi zerbitzua, eta bi begirale behar dituzte. Intere-satuek udaletxean eman behar dute izena ekainaren 1a aurretik.

kale inkesta

Gorritz margotu dute oinezkoak dabiltzan bidea; ondo deritzozu?



Lesme Benito
Erretiratua
Aretxabaleta



Esther Barandalla
Langilea
Eskoriatza



Jose Mari Buendia
Erretiratua
Aretxabaleta



Begoña Jauregizar
Langilea
Eskoriatza



Miguel Coronado
Erretiratua
Arrasate

Bai, oso ondo. Bizikletendako jarri dutela esango nuke. Gutxi ibiltzen dira bizikletak inguru honetan, baina datozenak lasai ibili ahal izango dira, inork errepidera joateko esan barik.

Ondo deritzot bizikletendako bidea marrazteari, baina oinezkooi leku gutxi utzi digute. Egia esan, aste-gunetan ez da ibiltzen bizikleta askorik; aste bukaeran, ostera, bai, gurasoak umeeekin batez ere.

Bizikletan dabiltzanendako ondo dago, baina oinezkoondako ez; izan ere, bizikletek aurrean eroan gaitzakete. Horregatik, hobeto alde bat oinezkoendako jartzea eta bestea bizikletendako.

Ondo dago bizikletak ibiltzeko, baina gero errespetat dezatela bidegorria, sarritan alde batetik bestera ibiltzen dira-eta. Egunero etortzen naiz Eskoriatzatik, eta oinezkoondako bide estua utzi dute.

Ez dakit zeinek erabiltzeko margotu duten. Bizikletendako bada, oinezkooi oso leku gutxi utzi digute; bidearen erdiak, behintzat, oinezkoondako izan behar-ko luke. Eta bizikletek errespetat dezatela.

txistuak



XABI URTZELAI

Botatako harriek kalteak eragin dituzte



Arrasateko Santa Barbara parketik harriak botatzen dituztela salatu du irakurle batek. Hilaren 14an, adibidez, Otalora kalean aparkatuta zegoen auto bateko aurreko kristala apurtu zuten. Handik jende asko pasatzen da, eta edonork kolpea har dezakeela ohartarazi du irakurleak.

usteak uste

Larraitz Zeberio

Botoak eta pintxoak

Lehenengo hauteskunde kanpaina dut Debagoienean. Ez dut botoa hemen emango, baina bertako politikoak atzera eta aurrera jarraitzea tokatu zait niri ere. Aramaiora egindako bisitan Xabier Arzalluzek esan zuen kanpaina epela dela honakoa. Epela ez dakit, baina niri aspergarri xamarra egin zait. Aurrekoetan gustura egin dut barre hautagaien burutazioen kontura.

Gogoan dut Irungo hautagai batekin bidegorrian hitzordua egin genueneko. Garraio alternatiboak bultzatu nahi zituen eta horretarako jendeak bizikleta gainean ikustea nahi zuen. Bada, bertaraino joan eta gizonak ezin bi metro bizikleta gainean egin! Bazekiela esaten zuen behin eta berriz, baina kosta zitzaigun telebistarako bi plano lortzea.

Debagoieneko hautagaiak ez dute horrelakorik egiten. Eta gertatu zait egindako deialdi batera joan eta adierazpenak eskatzekoan alkatetzarako hautagai batek "ez dago programan" erantzutea.

Hori bai, Debagoieneko ekitaldi askotan ikusi ditut pintxoak. Agerraldiaren ondotik, luntxa, aizue! Zenbait pertsonaren botoa lortzeko biderik motzena, agian? Agian.

5 galdera...

Dorleta Kortazar

Gazte Bulegoko teknikaria
Eskoriatza

1. Gomendatzen dizut saria antolatu da berriro ere. Zertan datza hori?

Oporretako gomendio xumeak biltzea da sariketa horren helburua. Alegia, leku bat bisitatu eta bueltan lagunari kontatuko zenizkikeen gomendioak jasotzea. Helburu bikoitza du: gazteak informazio prozesuan sartzeta eta beste erabiltzaileentzat erabilgarria izan daitekeen informazioa jasotzea.

2. Ibarreko herri guztietako gazteak aurkez daitezke horretara?

Bai. Gipuzkoarrentzat eta gure herrietan lan edo ikasten duten gazteentzat dago zabalik. Arrasateko eta Bergarako gazte informazio bulegoetako erabiltzaileek bi aukera dituzte: edo gurekin parte hartu edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen sariketa orokorrean izatea.

3. Berrikuntzaren bat sartu al duzue aurtengo edizioan?

Bai. Orain arte gomendioak bulegoetan edo posta elektronikoz baino ez ziren jasotzen. Aurtun, bloga dugu: www.aizue.com. Bertan, jasotako gomendio guztiak biltzen dira. Lehen aldiz blog horretan gomendioak sartzeko aukera izango da. Samurragoa izango da bulegoko erabiltzaileak ez direnentzat edo kanpoan bizi direnentzat.

4. Edozeinek har dezake parte ala mugatuta dago?

Bi kategoriatan dago banatuta esandako sariketa: 12-17 eta 18-34 urte bitartekoak. Gomendioak aurkezteko epea irailaren 30ean bukatzen da.

5. Hiru urte pasa dira sariketa martxan jarri zenetik. Gomendio bitxiren bat jaso al duzue?

Jendeak oso bidaia ezberdinak egiten ditu, eta, beraz, tipologia ezberdinekoak jasotzen ditugu urtero. Orain dela bi urte, adibidez, Santiago bidea alderantziz egiteko proposamena jaso genuen. Iaz, Marokoko desertu erdian dagoen aterpetxe berberearen gomendioa jaso genuen. Hark irabazi zuen saria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

214.000

Kinielak sari potoloa utzi du aurtun bigarren ezarritako. Joan zen domekan, 38. jardunaldian, 214.000 euroko saria banatu zen San Andres auzoan. Araba etorbidean dagoen administrazioan, hain zuzen. 24. jardunaldian, berriz, 224.000 euro utzi zituen kiniek Monterrey tabernan.

PERTSONA NAGUSIAK > ERRETIRATUEN OMENALDIA

Irribarreak eta haserre txikiak azken bilkuran

Ohiko bilkura egin zuten atzo, eguena, ezohiko giro lagunkoian, azkeneko batzarra izan zen-eta

UBANE MADERA > ARRASATE

Ohiko osoko bilkura egin zuten atzo, eguena, baina zinegotzien arteko giroa ezohikoa izan zen erabat. Agintaldi honetako azkeneko osoko bilkura izanda, eta landutako gai askotan alderdien artean desadostasuna izan bazen ere, oro har giroa lagunkoia izan zen zinegotzien artean, nahiz eta haserre txiki bat edo beste ere izan.

Kuriosoa izan zen, adibidez, PPko bozeramaile Itziar Lamarai-nek agurtu zuela Inazio Lakuntza alkatea Silvio Rodriguezen kantu baten esaldiekin: "Ojalá que el deseo de no aportar nada a los mondragoneses se vaya tras de ti"; eta bukaeran "goodbye Lakunza" esan dio; hori bai, guztia irribarrez egin du.

Bestalde, zenbaitzuk agurtu egin ziren, domekako hauteskundeetarako ez dute-euren burua aurkeztu. Hain zuzen, 13 zinegotzi ez dira aurkeztu datozen hau-

teskundeetarako. Osokoa bukatzean, gainera, udalbatza osoaren argazki ofiziala atera zuten eta Udalaren urrezko pina eman zieten oraindik pin hori ez zuten zinegotziei. Dena den, Ezker Batuko ordezkariak ez zituzten onartu.

EKAINAREN 16RA ARTE, JARDUNEAN Kontuak kontu, azken lau urteotako udalbatzak atzoko saioarekin bukatu zuen zeregina.

Gaurtik, egubakoitza, aurrera, politikari horiek jardunekoak izango dira, zinegotzi berriak izendatu arte.

Hain justu ere, ekainaren 16an hartuko dituzte karguak udalbatza-kide berriek, eguerdian. Egun horretan bozketa egingo dute, alkatea izendatzeko. Bozketan gehiengo osoa behar da alkatetza lortzeko (gutxienez, 11 boto). Gehiengo osoa lortu ezean, hauteskundeetan boto gehien eskuratu dituen alderdiaren zerrendaburua izendatuko dute alkate.

ONARTUTAKO GAIAK

Zabaletakoa bertan behera, eta Caixak eraiki behar dituen etxeak, atzerapenarekin

Anekdotak alde batera utzita, zenbait gairen gaineko erabakiak hartu zituzten. Esaterako, Zabaletan merkataritzagunea eraikitzeko plana sei hilabetez mahai gainean uztea. Bestalde, jakinarazi zuten Caixak etxeak eraiki behar dituen Zerrajerako zorua atzera ere aztertzen dabilela IHOBE, kutsatuta dagoen edo ez argitzeko. Kontua da lanok esleitu baino lehen egindako azterketaren arabera lurak garbi zeudela, baina gero legea aldatu eta parametro berriak ezarri zituzten. Orain, ikusi behar da zorua parametro berrietara egokitzen den. Bien bitartean, ezin dira etxeak eraikitzen hasi.



OROITZAPENERAKO Azken lau urteotako udalbatza, udaletxeko eskailera nagusietan, oroitzapenerako argazkia ateratzen.



KALEAN Aralarkideak programa banatzen, Seber Altuben.

T.MADINA

POLITIKA > HAUTESKUNDEAK 07

Hirigintzako kontuak dira Aralarren ildoetako bat

Jendearen parte-hartzea posible egiteko bitartekoen beharra ikusten du Aralarrek

GOIENKARIA > ARRASATE

Aralar alderdiko zerrendakideak programa banatzen ibili dira oraingo astean Arrasateko kaleetan.

Joxe Etxeberrria zerrendaburuaren adierazpenen arabera, maiatzaren 27an ikusi behar da euren proposamenak zela-ko harrera izan duen. Bestalde,

lau urteotan udaletxean egon ostean, ikusitako gabeziei dagokienez, bi puntu azpimarratu zituen hark: jendearen parte-hartzea posible egiteko bitartekoen beharra, eta, hirigintzari dagokionez, plan orokorrean aldaketak egiteko premia, batez ere Garagartza eta Ikutixo guneei dagokienez.

ZERBITZUAK > NORTASUN AGIRIAK EGIN EDO BERRITZEKO

Udaltzaingoa Nafarroa etorbidera joango da

INEM pareko eraikinean egokitu behar dute egoitza berria, CIEn

U.M. > ARRASATE

Oraingo astean onartu dute Udaltzaingoarendako egoitza berria egokitzeko proiektua. Horren arabera, Nafarroa etorbidean, enpresa berriak bul-tzatzeko CIEren eraikinean obra egingo dute, udaltzainek egoitza berria izan dezaten. Hain justu ere, CIEren eraikinarene beheko solairuan egingo dute obra, 410 metro karratu inguruko gunean. Hala, herri-tarrendako sarrera egingo dio-

te Nafarroa etorbidetik bertatik. Handik sartuta, berehala izango da jendeari harrera egiteko gunea. Eta horrez gainera, bi bulego, batzar gela bat, deklarazioak hartzeko aretoa, aldagelak, komunak, sukalde txikitxo bat, artxibo bat eta bil-tegi pare bat sortuko dituzte.

Orain, obrak esleitzeko lehiaketa deitzea falta da. Obrak adjudikatu eta gero, sei hilabete-ko epea izango da lanak bukatzeko. Aurrekontua ere zehaztu dute: 450.200 euro pasatxo.

Udaltzaingoa 30 lagunekoa lantaldea dauka orain: 28 finko eta bi bitarteko funtzionario. Azken zortzi urteotan asko hazi da taldea eta udaletxean duten bulegoa oso txiki geratu zaie.

**Monte
taberna**

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14
ARRASATE

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UDALA > EZOHIKO OSOKO BILKURA

Polmetasa lantegiak Arrasaten jarraituko duela bermatu zuten

Udalbatzak Azerirako (San Andres) plan berezia onartu zuen; ondorioz, aurrera doa Polmetasa Uribarrira eramateko egitasmoa

UBANE MADERA > ARRASATE
Polmetasa lantegia Arrasaten geratuko da. Labur esanda, hauxe da asteleheneko ezohiko osoko bilkuran lortu dena: orain lantegia dagoen lekuan, San Andres auzoan, etxebizitzak eraikitzen hasten direnean,300 langile dituen lantegiak Garagartza auzoan jarraituko du jarduna.

Izan ere, orain arte zalantzan zegoen Polmetasak Arrasaten jarraituko zuen, Udalaren eta San Andres auzoko etxeak eraikiko dituen San Andres Berri promotorearen arteko akordioa apurtuta zegoelako Aste Santu aurretik. 100 aparkaleku izan ziren apurketaren arrazoia. Izan ere, San Andres Berri promotoreak 220 etxebizitza eraikitzearekin batera, lur azpiko aparkalekua ere egin behar du, eta Udalak nahi

zuen promotoreak100 aparkaleku doan ematea Udalari, aprobe-txamendu urbanistiko moduan. Baina promotoreak ez zuen akordioa onartu, 100 aparkalekuen kontuarengatik.

Horri irtenbidea eman nahian, eta etorkizunarengatik oso kezkatuta, Polmetasako enpresa batzordeak Udaleko alderdi guztiekin negoziatu, eta, azkenean, lortu egin zuten Udalak beste akordio bat planteatzea: 100 aparkalekuren ordeaz, San Andres Berrik 50 ematea Udalari.

Eta justu, hori planteatu zuten osokoan. Aldeko 15 boto lortu zituen: PSE-EEk izan ezik, gainerakoek onartu egin zuten.

PSE-EE abstenitu egin zen. Udalari 50 aparkaleku beharrean 65 ematea eskatzen zuten, eta, hala izan ezean, erabakia bertan behera uztea, datorren korporazioak landu dezan. Dena den, Paco Gartzia bozeramaileak nabarmendu du emendakinak erretiratu egin dituztela, "lortu dugulako, gutxienez, sozialistek hasieratik defendatzen genuena: lau milioi euro netoko plusbalioak daudenean, gutxienez hortik zerbait Arrasaterako izatea. Ezarri genuen exigentzia San Andres auzoari lur azpiko aparkalekuak emateko, auzoan gabezia handia dagoelako. 100 gura genituen, baina hori ezin da izan eta 50 lortu ditugu".

ENPRESA BATZORDEAREN IDATZIA

PMG-Polmetasako langileak, pozik

Pometasako enpresa batzordeak jakinarazi du pozik daudela udalbatzaren erabakiarekin eta eskertu egin gura dutela "Udaleko ia alderdi guztien babesa". Edozelan ere, PSE-EEren abstentzioa ikusita hauxe gaineratu dute: "Haren jarrera inkoherentea eta elektoralista dela pentsatzen dugu. Lehenengo, hitzarmena babestu zuten, gero esan zuten ez zutela HAPB (hirigintzako plan berezia) babestuko alkatetzak esku beretan segitzen zuen bitartean; gero esan zuten 100 garajeko hirigintza karga gehituz gero, onartuko zutela eta bukatzeko 65 garaje onartzeko gertu agertu ziren. Horren garrantzitsuak dira PSErendako 15 garaje, 300 lanpostu arriskuan ipintzeko?".



ERRAZTI EAko presidentea Arrasaten izan da asteon. TXOMIN MADINA

POLITIKA > HAUTESKUNDEAK 07

Earen ustez etorkizuneko erronketako bat hirigintza da

GOIENKARIA > ARRASATE
Eusko Alkartasunak Arrasate-rako programa aurkeztu zuen. Pello Urizar Arrasaterako alkategaia, Iñaki Galdos ahaldun nagusirako hautagaia eta Begoña Errazti EAko presidentea izan ziren, besteak beste. Urizarrek hainbat alor jorratu zituen. Mugikortasuna, iraunkortasuna

eta hirigintza etorkizunean erronka garrantzitsuak izango direla esan zuen, baita Arrasate biziberritzea ere. Bestelakoen artean, eskusio arriskuan dauden sektoreen eskubideak defendatzeko konpromisoa hartu zuen, eta gaineratu kudeaketargia, gardena eta zabala egiteko asmoa duela herritarrekin.



U.M.

Ezkerra, eskumaren parean

Ezker Batua-Zutik koalizioari babesa ematen izan ziren EBko diputatu Oscar Matute eta Zutik-eko ordezkari Joxe Iriarte *Bikila*. Biek nabarmendu zuten garrantzitsua dela ezkerreko alderdiak elkartzea, eskumako alderdiek "inposatzen" duten politikiei aurre egiteko. Kultura etxean ekitaldia egin zuten, Joseba Ugalde alkategaia buru zutela.

Mitsubishiak Arrasaten



Ikus itzazu MONTERO eta OUTLANDER 4X4 ibilgailu berriak Arrasateko Chapimen.

Mitsubishi autoentzat konponketa tailerra ere badugu (jatorrizko ordezkariak)

ETOR ZAITEZ:

TALLERES CHAPIME

ARRASATE • San Andres auzoa 5 • Tel.: 943 79 45 22

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

MUSIKA > LOS CORONAS, THE LONGBOARDS, WAXY ETA DEMON CLEANERS

Surf instrumentala eta desertuko rocka aukeran

Gaur, egubakoitza, Los Coronas eta The Longboards eta zapatuan desertuko rocka 3.60 aretoan

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Asteburuan bi kontzertu interesgarri izango dira 3.60 aretoan. Gaur, egubakoitza, Los Coronas surf eta rock-and-roll instrumentaren erregeek kontzertua egingo dute The Longboards bilbotarrekin batera, 23:00etan.

Los Coronas Fernando Pardo, David Krahe, Roberto Lozano, Javier Vacas eta Oscar Ibarrak osatzen dute. Pardo, Vacas eta Ibarrak Sex Museum taldeko kide ere badira. 1995a ezkerro (taldea 1991n sortu zuten) gaur egunera hainbat disko kaleratu dituzte, eta Europako surf instrumental one-na dela diote aditu askok. Hala ere, surf musikaz gain, rocka ere egiten dute, abestu barik.

KALIFORNIAKO DESERTUTIK

Bihar, zapatua, berriz, Waxy talde kaliforniarra (AEB), Jinxremover ingelesa eta Kyuss talde

handiaren kantuak jotzen dituen Demon Cleaners arituko dira, 22:30ean.

Waxy taldeak Kyuss, Queens Of The Stone Age eta Velvet Undergrounden eraginak ditu. Soinu gogorak eta psikodelikoak lantzen dituzte, *desert rock* izenpean. Bateria jotzailea Orquestra del Desierto talde eza-guneko kide izan zen.

SHARON STONER ETA POTEMKIN

Demon Cleaners, berriz, Sharon Stoner eta Potemkineko kideek osatzen dute, eta Kyussen kantuak bakarrik jotzen dituzte.



SURFAREN ERREGEAK Los Coronas da Sex Museumeko Fernando Pardoren surf eta rock-and-roll jostailu kuttuna.

GOIENKARIA



MUSIKAREN JAIA Eskolan ikasitakoarekin Musikaldia jaira.

MUSIKA ESKOLA

MUSIKA > ARRASATEKO MUSIKA ESKOLAKOEN IRTEERA

Erandioko Musikaldira, 130 musika ikasle arrasatear

Musika Eskolako orkestra txikiaren, orkestra gaztearen eta banda txikiaren emanaldiak

I.B. > ARRASATE

Bihar, zapatua, Musika Eskolako 130 ikasle Erandiora joango dira, bi autobusetan, bi urte-tik behin antolatzen den Musikaldira. Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak sortu zuen eguna, eta bi urte-tik behin musika eskola batek du antolatzeko ardura.

10:00etatik iluntzera arte musikaz beteko dute Erandio. Hala, herria zazpi gunen nagusitan banatuko dute, eta bakoitzean musika formatu bateko taldeak arituko dira. Arrasate-tik musikariz betetako bi autobus joango dira. Hain zuzen ere, orkestra txikia, orkestra gaztea, banda txikia eta bi talde misto.

Erandiora joango diren gehienak 8 eta 14 urte bitartekoak dira. Hala ere, talde mistoetan, 16 eta 17 urteko batzuk ere badira.

Behin ikasleen emanaldiak bukatuta, 16:00ak aldera, arrasatearrek bueltarako autobusak hartuko dituzte. Hala ere, Erandion musika emanaldiek jarraitu egingo dute.

BESTE KONTZERTU BATZUK

Bestalde, ekainaren lehen orkestra gazteak eta ikasle batzuek kontzertua egingo dute San Juan Bataiatzailearen parrokian, 20:00etan. Eta ekainaren 6an biolin, klarinete eta beste instrumentu batzuen ikasleak eskolan arituko dira, 19:15ean.



Arrasate gogoan hartu

Paco García




Eman botoa

ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

UGARTE

**Industria
hornidurak**

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebeldun hizkiak



Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Arrasate egit

Beste modu batean

www.euskalherriaegitea.org

Arrasate denon artean eraiki behar dugulako, Hirigintza Planeamendurako Aholkularitza Kontseilua sortuko dugu.
Arrasate biziberritzeko, merkataritza eta aisiguneak sustatuko dituen Udal Kontseilu bat sortuko dugu.
Arrasaten euskaraz normaltasun osoz bizi behar delako, EBPN bultzatuko dugu.
Etorkizuneko Arrasate arrasatearrok erabaki behar dugulako.

emanbotoa
bestemodubatean

Pello Urizar Karetxe
Arrasateko Alkatetzarako Hautagaia
Pertsona fidagarriak.



www.euskalherriaegitea.org

> ATLETISMOA

Hiru domina ekarri dituzte Euskadiko Txapelketatik

Gazte mailako Euskadiko Txapelketa egin dute asteburuan Mendizorrotzan, eta Arrasateko atletek hiru domina ekarri dituzte: Iñaki Etxagibelek brontzezko domina irabazi zuen 100 metroko lasterketan (11,43); emaitza bera egin zuen Jon Ander Amadok 400 metrokoan (53,06); eta zilarrezko domina lepoan zuela itzuli zen Markel Blanco, 800 metroko lasterketan bigarren helmugaratuta.

Asteburuan infantil mailako txapelketa egingo dute Eibarren eta Anoetan.

> ERRUGBIA

Denboraldiko azken partidua jokatu dute, Durangon

Kopako ligaxkak azken jardunaldian Ordizia mendean hartu eta gero (42-6), Arrasatek zapore gozoarekin esan zion agur Garagartzako errugbi zelaia. ARTko mutilek, baina, oraindik ez diote denboraldiari agur esan, kopako sailkapena zehazteko Durangoren kontra lehiatuko dira-eta. Bederatzigarren sailkatzea da helburua.

BESAIDE MENDI ELKARTEA > BETERANOEN 5. MARTXA

Besaideko beteranoen hitzordu nagusia, ekainaren 9an

Aurtengoa beteranoen bosgarren martxa izango da, eta ekainaren 1a da izena emateko azken eguna; oraingoa, Iparraldera egingo dute

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Besaideko beteranoek Pasai Donibane eta Hondarribia arteko mendi zeharkaldia egingo dute ekainaren 9an. Hori da bosgarren beteranoen martxarako aukeratu duten ibilbidea; bazkaltzera, berriz, Oiartzunera joango dira.

Aukeratutako ibilbideak ez du aparteko zailtasunik (16 kilometro). 4-5 orduan lasai egin daitekeen ibilaldia da, Jaizkibel mendiak eskaintzen dituen parajeekin gozatuz. Hala, irteera egunean mendizaleek 07:30ean hartuko dute autobusa, Garibain, eta 09:00etarako Pasai Doniba-



IBILBIDE EDERRA Jaizkibel mendia aproposa da oinez ibiltzeko.

GOIENKARIA

nen izango dira, ibiltzen hastea gertu. Oiartzunen bazkaldu eta gero, poteoa egin eta ilunkean itzuliko dira Arrasatera. Azken urteotan arrakasta handia izan du irteera horrek, eta aurtengo beste horrenbeste espero dute. Izena emateko azken

eguna ekainaren 1a da. Bazkide federatuek 47 euro ordaindu beharko dituzte, federatuta ez daudenek 49 euro, eta bazkide ez direnek 51 euro. Izena emateko gerturatu Besaideko egoitzara astelehenean, martitzen edo eguaztenean (19:30-20:30).

futbito zaldibar**EMAITZAK**

Lasagabaster-Omu Dribling.....	6-7
Cipris Taberna-Betrayer.....	2-5
AT Celaya-Iluntz.....	2-4
Saukelu Abian-Iriztu.....	4-8

PARTIDUAK

Maiatzak 26, zapatua	Epaiak
16:00 Betrayer-Iriztu Taberna	Antolat.
17:00 Omu Dribling-Iluntz Tab.	Antolat.

Zaldibarko finalerdiak jokatu dituzte bihar

Bihar arratsaldean jokatu dituzte Zaldibarko Ligako finalerdiak.

Emozio handiko bi norgehiagoka izango dira, finalera sailkatzeko txartela egongo da-eta jokoan. Gainera, kontuan izan bigarren partiduan Kopako finalera sailkatu diren bi taldeak izango direla aurrez aurre. Alde horretatik, errebantxa hartzeko aukera izango du Iluntzek.

Hala, joan den astean jokatu zituzten final-laurdenetan Lasagabaster, Cipris Taberna, AT Celaya eta Saukelu Abian geratu ziren txapelketatik kanpo. Norghegiagoka parekatuak izan ziren guztiak.



Etxebarri auzoa, z/g
Tel.: 943 79 79 00 / 943 77 09 55
E-mail: ia@iaretxabaleta.com
Web orria: www.iaretxabaleta.com

INSKRIPZIO EPEA
Ekainaren 1etik 7ra



Aretxabaletako Lanbide Heziketa institutua Eskaintza akademikoa A eta D ereduetan


ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzako laguntza osagarriak
- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Ibilgailuen elektromekanika
- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

- Fundizio eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa

- Praktiak atzerrian (Leonardo programa)
- Orientazio zerbitzua (LANBIDE)
- Enplegu zentrua



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE

Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

nire bidaia hura

Oihana Garro

Argentina > 2007ko martxotik maiatzera

"Buenos Airestik irteteak Argentinako beste errealitate bat ezagutzeko aukera ematen du"

MIRIAN BITERI > BERGARA
Arrasatera iritsi berria da Oihana Garro, Argentinan hiru hilabete inguru igaro ostean. Eguaztenean bertan hartu zuen bueltako hegazkina. Gustura ibili dela esan digu.

Buenos Airesen izan da denbora honetan guztian Oihana Garro. Hango unibertsitateko Gino Germani ikerketa talde baten lana ezagutzeko eta elkarrekin lan egiteko aukera sortu zitzaion, eta eutsi egin zion 27 urteko gazte horrek. Bidaia bakarrrik egin zuen, ezagunik gabe. Han izan zen bitartean, hala ere, Hannot mutil-lagunaren bisita izan zuen.

Hiriburuan bertan izan zen arren, herrialdea ezagutzeko aukera izan zuen. Astebeteko bidaia egin zuen tartean. Buenos Airesen egindako lagun batek Parke



Irudian, Oihana Garro.

Nazionalak gisa ezagutzen den inguruan egiten zuen lan, eta hark Ipar Patagonia eta Lanin sumendiaren ingurunera joateko gomendioa egin zion: "Argentinako beste errealitate bat ezagutzeko aukera ematen du, landatarragoa dena", azpimarratu du arrasatea-

rrak. Bisitatu beharreko tokiak aukeratzeko orduan, hango jendearen gomendioa "funtsezkoa" izan zela jakinarazi du.

25 ORDU AUTOBUSEZ

San Martin de los Andesera heltzeko Panpa osoa zeharkatu zuen, autobusez: "25 bat ordu eman genituen mikrobusean, baina distantzia luzeko autobusak oso erosak dira Argentinan, guk ditugunak baino askoz erosoagoak", dio.

Bidaiaz gain, lan egiten eta ikasten eman zuen denbora luzeen. Normalean, "etxean edo liburutegian lan egin" eta ikerketarako baliagarria izan daitekeen bibliografia bilatzen ibili zen. Aste-an behin, gainera, ikerketa taldeko bilera izaten zuen. Horretaz gain, "gauza ezberdinak" egiten ere saiatu zen.

Horren harira, asteburuetan, Gardel tabernan gosaltzen zuen, egunkariak aurrean zituela. Ondoren, hiria ezagutzen ematen zituen egunak, hala nola Boca, Arte Ederretako museoa, San Telmo, antzerkia eta zinema-jaialdia. "Buenos Airesen beti zegoen mila aukera posible", gogoratu du.

Horixe da izan da, hain zuzen, harrituta utzi duena; alegia, "hiriak duen mugimendua, zarama, jende pilaketa", dio Garrok. Gehien gustatu zaiona, berriz, familiarrean egin dituzten bazkariak izan da. Hiruzpalau familia ezagutu ditu.

Orain, betiko bizimodura itzultzen hasi da. Datorren astetarako planik badu: ekainaren 1ean, Audience taldeak Elorrioko Lizeon emango duen kontzertura joango da.

bere ustez



Ander Etcheberria

Bai mundu berria

Aldoux Huxleyren liburu ezagunenaren titulu hartuz, badirudi astelehenean mundu berri bat hasiko dela. Kasu honetan, ordea, Aldouxenean ez bezala, gizarte hobeagoa izango da.

Askotan gure hizkera absolutista da. Ohikoak dira elkarriketa arruntetan horrelakoak esatea: "ez du inoiz hitzik esaten", "beti egiten du euria", "dena geratzen zaio ondo" edo "ezer ere ez du lotu gabe uzten", adibidez. Tankerako esaldiak, zaila da errealak izatea.

"Eta bere baitan ez bada, gaitza da ulertzeko entzuten diren eslogan batzuk"

Politika mailan ukitu absolutista harantzago doa: "guztiz beharrezkoa da", "erabat sinetsita dago" edo "zeharo faltsua da", sarritan erabiltzen dira. Eta behin baino gehiagotan, "hau da munduko lurralde bakarra x gertatzen dena". Gure planetako Estatu, herri edo komunitate guztiak ezagutuko balitu bezala!

Hauteskunde garaian, hitz egiteko modu honen momentu gorena dator. Eta bere baitan ez bada, gaitza da ulertzeko entzuten diren eslogan batzuk: etxebizitza duina eskuragarri izango du edozeinek, gazteen beharrak aseko dira, kaleak seguruak izango dira, langabeziarik ez da izango...

Bihar hausnarketa eguna mundu berriaren, edo ez hain berriaren, atarian.



Buenos Airesen ikasten eta lan egiten egon bada ere, hiriburutik irteten eta herrialdea ezagutzeko aukera izan du Oihana Garrok.

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



**Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.:
943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

AURREKONTUAK > EAJ-EA ETA ARALARREN ALDEKO BOTOEKIN

Udalak 30,5 milioi euroko aurrekontua onartu du

Iazkoa baino %10,2 handiagoa da; diru zatirik handiena urbanizazio lanetara bideratuko da

1,3 milioi erakundeen arteko mugimenduetarako dira; beraz, 28,2 milioi ditu Udalak gastatzeko

JOKIN ETXEBARRIA > BERGARA

28,2 milioi euroko aurrekontu kontsolidatua izango du Bergarako Udalak 2007rako. Hala ere, 30 milioi euro pasako aurrekontua onartu zuten osokoan: 30.486.030 euro, zehazki. Horietatik 1,3 milioi euro erakundeen arteko mugimenduetarako dira. Horixe adostu zuten asteleheneko osoko bilkuran EAJ-EA koalizioak eta Aralarrek. Ezker Batua, PSE-EE eta PPko zinegotziek aurkako botoa eman zuten arren, gehiengoz adostu zen aurrekontua agintaldiko azken ohiko osoko bilkuran.

ARALAR EZ DAGO GUZTIZ ADOS

Aralarrek baiezkotzeko botoa eman dio 2007ko aurrekontuari, baina Iñigo Iñurrategi bozeramaileak adierazi zuen 2. eta 4. kapituluekin, hau da, mantentze gastuekin eta batzordeei emandako dirulaguntzekin, ez daudela guztiz ados: "Neurriak hartu behar dira puntu hauetan eta horretarako lan egiten jarraitu beharra dago".


Beste kexu bat ere izan zuten: aurrekontua aurkezteko data asko atzeratu dela. "Aurrekontua garaiz egiten ahalegindu behar da; abendurako egina egon behar luke", esan zuen Iñurrategik. Horri Victoriano Gallastegi alkateak erantzun zion, arrazoi duela, eta planifikazioa lehenago egiten saiatu behar dutela, baina errealitateak beste erritmo batzuk agintzen dituela: "Gainera, aprobetxamendu urbanistikoa zenbatekoak ziren jakitea komenigarria zen aurrekontuak zehatz-mehatz egin ahal izateko, eta horrek bere denbora darama", gaineratu zuen alkateak.

Alderdi Sozialistak, Ezker Batuak eta Alderdi Popularrak aurrekontuen kontra bozkatu dute, baina alderdiotako zinegotziek ez dute horren zergatiaren arrazoirik eman.

Alderdi Sozialistak, Ezker Batuak eta Alderdi Popularrak aurrekontuen kontra bozkatu dute, baina alderdiotako zinegotziek ez dute horren zergatiaren arrazoirik eman.

GASTU GEHIEN URBANIZAZIOAN

Udalak aurtengo egingo duen inbertsio handiena Irala kaleko urbanizazioarena izango da. Lan horretarako 1,45 milioi euroko partida bideratuta du; baina obra horretan izandako arazoei aurre



ARRIZURIAGA Udalak 115.985 euro bideratu ditu Arrizuriaga jauregiaren liburutegia jartzeko proiektua idazteko.

GOIENKARIA

egiteko, enpresa berria hartu behar izan dute; beraz, enpresa horren gastua ere gehitu behar zaio: beste 620.000 euro.

Hala ere, beste hainbat inbertsio aipagarri daude. Agorrosin Ekintza Gunea da horietako bat: kiroldegiko berrikuntzaren bigarren fasea egiten dabilta

orain: bainuetxea hain zuzen ere. Bergarako Bihargintzara bideratutako dirua erabiliko dute lan horiek ordaintzeko (971.000 euro).

Bestalde, aipatzekoa da, baita ere, Udalak diru irteera bat bideratu duela—115.985 euro, hain zuzen ere—liburutegia tokiz alda-

tzeko eta Arrizuriaga jauregiaren eramateko. Oraingoz, proiektua egitea onartu eta esleipena egin dute. Victoriano Gallastegi alkateak adierazi digunez, orain proiektuaren maketen zain daude, "eta gero proiektu hori noiz hasi eta noiz bukatzen den ikusi egin beharko da".

Udalaren aurrekontua

Ingurumena	%7,4
Admin., Udaltzaingoa eta Gob. organoak	%11,9
Industria	%2,4
Gizarte Ongizatea	%11,9
Kultura zerbitzuak eta jaiak	%10,6
Kirolak	%9,8
Hezkuntza	%4,2
Euskara	%3,2
Finantza gastuak	%7,8
Hirigintza, obra eta zerbitzuak	%28,8
Mendi eta auzoak	%1,9

Inbertsio aipagarriak

Urbanizazioak	423.941 €
San Martzial parkeko ordenazioa	196.400 €
Irala kaleko urbanizazioa	1.450.000 €
Kultur lokalak	302.000 €
Eskoletako erreformak	309.000 €
Mizpirualde egoitza berria	190.000 €
Arrizuriagako liburutegia	115.985 €
Baserri aldeko ura	161.010 €
Mankomunitateko zerbitzu orokorrak	138.000 €
Bihargintza	971.000 €
Tavex S.A enpresarekin hitzarmena	597.470 €

LITXAR
taberna

Fraiskozuri Plaza z/g
BERGARA

Tel.: 943 53 41 29

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

SANTOS
RENOVE PLANA

%10eko DESKONTUA
eta ordain ezazu 10
hilabeteetan interes gabe!

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enjimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



HAUTAGAIK EAJk hautagaiak aurkeztu zituen martitzenean.

J.E.

HAUTESKUNDEAK 07 > HAUTAGAIEN AURKEZPENA

EAJk herrira gehiago hurbiltzea du lehen helburu

Udalean esperientzia duten pertsonak jende berriarekin bateratu dituzte zerrendan

JOKIN ETXEBARRIA > BERGARA

Martitzenean aurkeztu zuen EAJk Bergarako alkatezarako hautagaien zerrenda, kultura etxean. German Muruamendi-
diaraz buru dutela, pozik ager-
tu dira EAJkoak sortutako tal-
dearekin: "Talde sendoa egin
dugu, Udalean esperientzia
dutenak, herriko talde eragile-
etan ezaguna den jendearekin
batuta, eta gure asmoa hurren-
go legegintzaldian agintzen
jarraitzea da", adierazi zuen
Mikel Letek.

INSTITUZIOA HURBILDU

German Muruamendi-
diaraz alka-
tegaiak adierazi zuenez, euren
programan duten lehentasune-

tako bat herrira gehiago hur-
biltzea da: "Instituzioak herri-
tik geroz eta urrunago daude-
la dirudi, eta gure lana haiek
berri hurbiltzea da. Prozesu
luzea da, baina horretarako
giroa sortu beharra daukagu",
adierazi zuen Muruamendi-
razek. Gogorarazi nahi izan
zuen, baita ere, lana ez dela
hutsetik hasten: "Datorren lege-
gintzaldi berrian hasteko onar-
tuta dauden eta erdibidean dau-
den proiektuak ere badaude".

Bestalde, kanpaina zehar
euren propagandaren aurka
egindako erasoak eta batzo-
kiaren kontra botatako pintu-
rak salatu nahi izan zituen
Bergarako EAJk.

HAUTESKUNDEAK 07 > PROGRAMA AURKEZPENA

EAJren udal politika irauli nahi du Bergarako EAEk

Hauteskundeetan
botoa ematera
EHNArekin joateko
eskatu zuen Barrusok

J.E. > BERGARA

Bergarako EAEk kultura etxea
aukeratu du, asteon, herri pro-
grama aurkezteko. Programa
hori lan tresna ireki moduan
aurkeztu nahi izan dute: "Hau
ez da eskaintza elektorala. Sa-
kundu eta osatu beharreko
lan tresna da, eta, horretarako,
herriko talde eragileekin
batzartuko gara hauteskunde-
en ostean", adierazi zuen Agur-
ne Barruso alkategaiak. Herria-
ri eman nahi diotela hitza gai-
neratu zuen, eta herritarren
botoa oso garrantzitsua dela, "
bizi garen egoera ez demokra-
tiko hau demokratizatzeko has-
teko. Baina ez dugu ahaztu
behar herriak maiatzaren 28tik

aurrera hasi behar duela bene-
tan herriko beharretan parte
hartzen".

UDAL POLITIKA IRAULI

Herri eredu berria nahi dutela
jakinarazi zuen EAEko alkate-
gaiak: "EAJren negozio eta
zementuan oinarritutako herri
eredua irauli eta herritarrengan
zentratuko den eredu ezarri nahi
dugu". Horretarako, adibidez,
Udalean gazte batzorde bat eta
politika feministaren garapenaz
arduratu den sail berezitu bat
sortu nahi dute, gazteen beharrei
aurre egiteko asmoarekin eta
emakumeen aukera berdintasu-
na bermatzeko helburuarekin.

Bestalde, bai udal hautes-
kundeetarako eta baita Batzar
Nagusietarako botoa ematera
EHNArekin joatea eskatu zuen
Agurne Barrusok, "euskal nazio-
tasunaren bereizgarri bat dela-
ko eta hori bultzatu beharra dau-
kagulako".



Barrenetxea eta Huertas.

J.E.

HAUTESKUNDEAK 07

Barrenetxea arrosak banatzen ibili da herrian

Astelehen arratsaldean,
sozialistak herriko
hainbat auzo eta
kaletan ibili ziren

J.E.> BERGARA

Gipuzkoa osoan ibili dira azken
egunotan kanpaina egiten sozia-
listak. Eta Bergaran ere egin
dute arrosa banaketa. Hain
zuzen, astelehen arratsaldean,
Bolun hasita, herriko hainbat
kale eta auzotan barrena ibili
ziren arrosak eta haurrentzako
gozokiak banatzen. Bergarako
alkategai Mari Carmen Barrene-
txeari lagun egin zioten Manuel
Huertas eta Elvira Kortajarena
diputatuek eta Donostialdetik
Batzar Nagusietarako zerrenda-
buruak, Rafaela Romerok.



EHNA Botoa EHNArekin emateko eskatu zuen EAEk.

JOKIN ETXEBARRIA


Ion Murgizu Pinturak

Margoketa
orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrialia

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behe • Sorluze

Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin
- Puntuak berreskuratzeko aukera**

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena** **18** urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA

Ondo pasau jaixak!

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

JARDUN > GAZTETXOEN VII. OLINPIADAK

Gaztetxoen arteko olinpiadak

Jarduneko Haur eta Gazte Sailak antolatuta, ekainaren 16ra arte 11 talde izango dira lehian

EDU MENDIBIL > BERGARA

Zazpigarren urtez, gaztetxoei zuzendutako olinpiadak antolatu ditu Jardun elkarteak Haur eta Gazte Sailak. Ekainaren 16ra bitartean 11 taldetan banatutako 80 gaztetxo inguru izango dira lehian. Olinpiadak 8-12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutakoak dira eta dagoeneko bi jardunaldi jokatu dituzte. Hurrengo jardunaldia jaien ostean jokatu da, ekainaren 3an, San Joxepe erretiratuen egoitzan.

Bezperan, ekainaren 2an, Deba-goieneko Trikitixa Eguna Bergaran ospatuko denez, hirugarren jardunaldia domekan izango da: egun horretan, bolotan, token eta igel jokoan lehiatuko dira partaideak.

Olinpiadetako azken bi jardunaldiak ekainaren 9an eta 16an jokatu dira: ekainaren 9ko probak Agorrosingo igerilekuan izango dira eta ekainaren 16rako orientazio proba iragarri dute antolatzaileek.



OLINPIADAK 8-12 urte bitarteko neska-mutikoendako dira olinpiadak.

ARTXIBOA

Esan bezala, VII. ekitaldia da aurrean abian jarritakoa; Jarduneko ordezkarien arabera, gaztetxoen artean euskararen erabilera bultzatzea eta harremanak sendotzea da helburu nagusia.

JOLASPARKEA MARTITZENEAN

Bestalde, Jarduneko kideek gogorarazi dutenez, Pazkoetako martitzenean, maiatzaren 29an, haurrentzako jolasparkea izango da Ipintza II-ko patioan. Puzgarriak

eta bestelako jokoez gain, hainbat ikastaro egiteko aukera izango da bertan; 16:30etik 18:30era bitartean izango da jolas-parkea zabalik, Boni Laskuraineko Ipintza institutuan.



E.M.

Sarasketaren margoak Aroztegin

Aitor Sarasketaren (Eibar, 1962) margo erakusketa ikusteko azken egunak dituzue. Erakusketa maiatzaren 29ra arte izango da zabalik Aroztegi aretoan. *Etxakixnat* izenburupean, Sarasketak hamar bat lan jarri ditu ikusgai Barrenkalea kaleko aretoan. Espresionismo abstraktuaren esparruan kokatzen da Sarasketaren lana. Aroztegiako ordutegia honako hau da: zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta gaur, egubakoitza, eta martitzenean, 18:00etatik 21:00etara.

> ERAKUSKETA

Fernando Azkarate eta Pili Azkarate: aitaren eta alabaren azken lanak Nahikarin ikusgai

Fernando Azkarate eta Pili Azkarateren erakusketa zabalik dago Nahikarin: Fernandok olio koloretsuak jarri ditu ikusgai eta haren alaba Pili azken lanak zintzilikatu ditu. Hain zuzen ere, Rikardo Azkargorta margolariaren ikasleetako bat da Pili Azkarate.

> IKASTAROA

Gaztetxoei zuzendutako margo eta marrazketa ikastaroa uztailan, Beart elkartearen eskutik

Beart elkarteak 5-13 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako margo eta marrazketa ikastaroa iragarri du uztailerako. Eskolak 10:00etatik 12:00etara izango dira, Boluko egoitzan. Argibide gehiago telefono zenbaki hauetan jaso ditzakezue: 635 71 32 69 (Maitte) edo 665 70 31 75 (Oihana).

> GAZTEAK

Euskal Herria Zuzenean jaialdirako laguntzaile bila dabil Jardun euskara elkarteak

Ekainaren 29tik uztailaren 30era bitartean Idauze Mendin (Zuberoa) ospatuko den Euskal Herria Zuzenean jaialdirako laguntzaile bila dabil Jardun. 17 urtetik gorakoak izan behar dute, eta ekainaren 15era arte daukate izena emateko. Argibideak: 943 76 36 61.



Manufacturas LARRAÑAGA

Lan-babeserako artikuluak, lan-prebentzio eta seinalaztapena, lanerako jantzigintza

Leizeaga 1. Tel. eta faxa: 943 76 59 53
Posta kutxa 140. 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Zorionak eta ondo pasau!

Bergara bizi baten alde



BOZKATU



ANDAMIORIK
GABEKO
LANAK

JAI ZORIONTSUAK
GUZTIOI!



680 641 401
676 952 968
www.nanarri.com

Fatxaden eta barruko patioen
berrikuntza eta pintaketak

Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak
Tximiniak • Altuerako kimatzeak

PILOTA > BERGARA HIRIA TXAPELKETA

Larrañagak eta Mendizabalek galdu ostean, bergararrik gabe geratu da aurtengo finala

Nagusietan, Onsalo eta Jauregi Erroizenea eta Bengoetxearen kontra arituko dira eta 22 urte azpikoetan, Idoate eta Etxeberria Gorka eta Beroizen kontra

MIRIAN BITERI > BERGARA

Datorren astelehenean Bergara Hiria txapelketako finala izango da Udal Pilotalekuetan. XII. edizio honetan ez da bergararrik izango kantxan.

Txapelketan jarraitzen zuen pilotari bergarar bakarrak, Jon Larrañagak, Aitor Mendizabal antzuolarra lagun zuela, Gorka eta Beroizen aurka galdu zuen joan zen martitzenean jokatu ziren finalerdietan.

Hasieran ahul samar ibili ziren, eta, denborak aurrera egin ahala jokoa hobetzen joan arren, Larrañagak eta Mendizabalek ezin izan zuten markagailua aldatu. Emaitza 22-16 izan zen. Bergararrik ez zuen asko gozatu partid hartan. 22 urte azpiko finalean, beraz, Idoate-Etxeberria eta Gorka-Beroiz bikoteak arituko dira.

Nagusien partiduan, bestalde, Erroizenea eta Bengoetxea nagusitu ziren, Errea eta Linzoainen



FINALERDIAK Finalerdietatik ez ziren pasa Larrañaga eta Mendizabal.

GOIENKARIA

aurka, eta finalean dira. Bikote irabazleak Igor Gutierrez bergararra eta Renobales kanporatu zituen final-laurdenetan.

Erroizeneak eta Bengoetxeak Onsalo eta Jauregi izango dituzte aurrean finalean. Azken bikote hori Ander Mugurutza bergararren eta Ajuriaren kontra gailendu zen finalerdietan. Fina-

lak datorren astelehenean jokatuko dituzte, Mendekoste jaietako Koadrilen Egunean, 17:30ean, hain justu ere.

ZOKETA

Bestalde, buruz buruko finaleko zozketaren zenbakiak ezagutze-
ra eman dituzte antolatzaileak: lehen 1.555 eta bigarrena 6.976.



M.B.

Mikel Aristi, txapeldun

Infantil mailan Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen Mikel Aristi txirrindulariak joan zen asteburuan. Lokatza taldeko gazte bergararra denboraldi bikaina egiten ari da. Txapelketaz gain, lau lasterketatatan parte hartu du eta hirutan nagusitu da.

TENIS > LABEGARAIETAKO PISTAKO KARPA

Estalkia ken dezala eskatu diote 434 sinatzailek Udalari

Ez daude ados haren altuerarekin ez eta argindarra ia egun osoz erabiltzearekin

Ohar baten bidez azaldu duteenez, estalki horrek tenisean jokatzea "oztopatzen" du. Altuera "txikia" duenez, pilotek haren kontra jotzen dutela eta ia egun osoan argindarra erabili beharra dagoela salatu dute.

M.B. > BERGARA

Labegaraietako kiroldegiko erabiltzaileak tenis pistan jarri den karpa ahalik eta bizkorren kentzeko eskatu dute. Horren harira, 434 bergararren sinadurak aurkeztu zituzten hilaren 18an udaletxean.

"ESKUBIDEA"

Estalkia jarri aurretik kantxa ondo zegoela eta "lehengo bermeekin erabiltzen jarraitzeko eskubidea" dutela azpimarratu dute erabiltzaileek. Horregatik, "errua" zuzen dezala eskatu diote Udalari.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Energia fotovoltaikoa

Energia termikoa

Geotermikoa



Ondo ibili Pazkoetan!

Amillaga 10, 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

620561316 / 669366953 • Faxe: 943762052

e.maila: info@alet-taldea.com • www.alet-taldea.com

Erregistro industrial: 20/28318 • INSTAGIren sozietate elkartua



J.M.IPARRAGIRRE B.H.I
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

OSASUN FAMILIA, A-D EREDUETAN

TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Zaharren egoitzetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

AURREMATRIKULA:

Ekainaren 1etik 7ra (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Ekainaren 29tik uztailaren 6ra (biak barne)



J.M.IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g 20700 Urretxu Tel: 943 72 14 03 • Faxe: 943 72 14 13
Posta elektronikoa: jmiparragirre@edunet.es • www.iparragirre.net

Bergara bizia!



Lauri Askargorta



eusko alkartasuna

Guk elkarlana,
denen parte-hartzea, herrigintza.
... eta zuk?

Bozkatu



INDEPENDENTEA


www.aralar.net


LARUNBATA 26

Bergarako Jaiak

10€ Sarrera 1:30 Gaur

After Party 7:00 Sarrera 12€

dj dani d+ dj pinzo
(Bergara)

dj joseba
(Udaberri-Elgoibar)

dj ion
(Electric Fridays-Arrasate)

azure
(Retrasound System-Portugalete)

zitor rondo
(Upfront Records & Drakos Records - Bcn)

dj trampas
(Revolution - Gernika)

dj imo
(Txil Aut)

dj balzo
(Kogollo Party Krew)

dj gorkojan



BACARDI

HIRIGINTZA > LORATEGIAK TXUKUNTZEN

Loreak iturria zegoen lekuan eta Durana kaleko faroletan

Ilargi plaza parean, iturria egon zen lekuan lorez betetako lorategia egin dute

Durana kaleko hainbat faroletan geraniodun lorontziak zintzilikatu dituzte

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Landare eta zuhaixkak landatu dituzte Ilargi plaza parean zegoen iturrian, eta lorategi dotorea egin dute. Durana kalean, ostera, faroletatik zintzilik jarri dituzte loreak.

ERDIAN SAGARRONDOA

Orain dela hilabete batzuk herriko lorategiak txukuntzeko erabakia hartu zuen Udalak; tartean, Ilargi plaza pareko iturria lorategi bihurtzea. Kontua atzeratu egin da hainbat ezusteko-rengatik, baina azken egunotan gogor egin dute lan Makai lorezaintza enpresako kideek. Landare eta zuhaixkak jarri dituzte ura egon zen tokian, eta kolore askoko lorategia egin dute. Lorontziaren bueltan lore eta zuhaixkak jarri dituzte eta erdian sagarrondoa. Lorontzia-



LORATEGIA Iturria egon zen lekuan lorategi dotorea egin du Makai enpresak, loreak inguruan eta erdian sagarrondoa.

M.A.

ren azpiko aldean, lehen ere berdegunea zegoen lekuan, berriro erein dute belarra, eta herritarrek errespetatuko dutelakoan daude lorezainak.

Lorategia txukun utzi dute, baina lorontzia bera apurtuta dago eta itxura eskasa dauka, urte askoan ura izan duelako. Datozen asteotan konpondu eta beste itxura bat emateko asmoa dauka Udalak.

FAROLETATIK ZINTZILIK

Azken egunotan, beste berrikuntza bat ere izan dugu herrian. Durana kaleko faroletan landareak zintzilikatzen hasi ziren astelehen goizean. Bi faroletik batean zintzilikatu dituzte lorontziok, eta barruan geranio frantsesak jarri dituzte, gorriak. Hainbat herritarrek adierazi dute ez direla ondo ikusten aipa-

tutako loreak, oso goian daudelako, baina apur bat hazten direnean beherantz jausiko dira eta lorontzi osoa estaliko dutela uste dute Makaiko kideek. Hori bai, bi egunean behin ureztatu egin beharko dituzte.

Bestalde, Mitarte plazan dauden jardineria edo lorontziak txukuntzeko asmoa du Udalak hurrengo egunotan.

GAZTEAK

Marrazki lehiaketa bihar ludotekan

3 eta 12 urte arteko edonork parte har dezake, 11:00etatik 13:00etara bitartean

M.A. > ARETXABALETA

Gernika plazan elkartzeko dira ume, gaztetxo eta ludotekako arduradunak bihar goizean, I. marrazki lehiaketa egiteko. 3 eta 12 urte arteko guztiek dute gonbidapena, eta ez dago ludotekako bazkide izan beharrik. Antolatzaileek adinarean arabera banatu dituzte marrazkia egiteko gaiak: 3 eta 5 urte artekoek animaliak marraztuko dituzte; 6 eta 7 urtekoek, kirolak; 8 eta 9koek, uda; eta 10 eta 12 urtekoek, Aretxabaleta. Eta, noski, saria jasoko du onenak.

Gaur arratsaldean, ostera, *Altxorraren bila* egingo dute jolas 7 eta 12 urte artekoek. 18:30ean hasi eta 20:00etara bitartean, pistei jarraitu beharko diete, herrian zehar, altxorraren jabe egiteko.

GAZTELEKUKOAK OTXATERA

Atxagazte gaztelekuko kideak Arabako Otxatera egingo dute irteera bihar, zapatua. 17:30ean atera eta 23:00ak ingururako itzuliko dira etxera. Arratsalde pasa misterio-tsua antolatu dute, ondo baino hobeto pasatzeko.



Proiektu bat dugu Aretxabaletarako

Ainhoa SAGARRIBAI
ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

Eman botoa

PSE-EE PSOE



GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: **943 79 19 79**

HAUTESKUNDEAK > AZKEN ASTEKO EKITALDIAK

Programak aurkeztu eta banatzen ibili dira alderdiak azken astean

EA eta PSE-EE alderdiek asteleheneko azoka aukeratu zuten herritarrei programak banatzeko

Bai Euskal Herriari taldeak EHNArekin bozkatzeko dei egin du, eta alderdiei errespetatzeko eskatu

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Hauteskunde bezperan gaude, eta gaur bukatuko da kanpaina. Lanpetuta ibili dira alderdiak azken astean, herritarrei programak erakutsi eta banatzen.

PROGRAMEN BANAKETA

Eako hainbat kide, tartean Lore Martinez alkategaia, azokan ibili ziren astelehen goizean programak banatzen. Herritarren kexak entzun behar izan zituen Martinezek, azken hilabeteotan herrian egiten dabiltzan lanengatik kexu azaldu ziren-eta hainbat emakume.

PSE-EEko zerrendaburu Ainhoa Sagarribai ere azokan ibili zen astelehenetan taldekideen babesarekin. Ohikoa den moduan, arrosak banatu zituzten sozialistek programarekin batera.

Aralar alderdiak, oster, merienda egitea erabaki zuen prentsaren aurrean programa aurkezteko. Xabier Sarasuak bukatzera doan agintaldiaren balorazioa egin zuen, esanaz, alderdi baten ilegalizazioa eta alkatetza lortu zuen alderdiak bere gain hartutako botere han-

dia izan direla agintaldia markatu dutenak. Horregatik, aldaketa behar-beharrezkoa dela aipatu zuen Inaxio Garro alkategaia: "Herriko ordezkari guztiak izango dira beharrezkoak, eta elkarlanerako zubiak eraiki beharko ditugu herriaren alde lana adostasunean egiteko". Gaineratu zuen garapen sozialaren eta herri dinamikoaren alde egingo dutela lan.

EHNA-REKIN BOZKATU

Aretxabaletako Bai Euskal Herriari taldeak, oster, EHNArekin bozkatzeko dei egin die herritarrei. Eta alderdiei hainbat eskaera egin: EHNA erabiltzeko deialdiarekin bat egitea publikoki; EHNArekin bozkatea erabaki duen herritarra babestea hauteskunde-mahaian egongo den alderdiko ordezkariaren bitartez, EHNA erabiltzearen aurkako jarrera antidemokratikoak agertuz gero; eta gutxieneko errespetua eta begirunea azaltzea EHNArekin bozkatzera doanari.

Ekainaren 2an, gainera, Naziotasun Eguna ospatuko dute Laudion, eta autobusa egongo da Debagoienetik.



EA Lore Martinez hautagaia herriko emakumeen kexak entzuten.

M.A.



PSE-EE Ainhoa Sagarribai arrosak eta programak banatzen herritarrei.

M.A.



ARALAR Merienda eginda aurkeztu zuten programa Aralarko kideek.

M.A.

> BERBALDIA

G-IIra egindako espedizioa berbagai egunean

G-IIra egindako espedizioaren gainera ikus-entzunezkoa eskainiko dute Mikel Sasiain aretxabaletarrak, Andoni Ormazabal zumarragarrik eta gainerako taldekideek. Loramendi EEk gonbidatuta etorriko dira, eta egunean izango da, hilak 31, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

> IKASTAROA

Bizikletan ibiltzen erakutsiko du Maite Ortiz de Zaratek

Ekainaren 4an, 6an, 11n eta 13an erakutsiko du bizikletan zelan ibili eta hobetu Ortiz de Zarate aretxabaletarrak. Urkulun izango dira eskolak, 19:00etatik 21:00etara, eta bizikleta norberak eroan behar du. Loramendi EEn eman behar da izena maiatzaren 28rako. Doan da.

> UDALEKUAK

Eguaztena, hilak 30, udalekuean izena emateko azken eguna

Udaleku irekiak antolatu ditu Udalak Poxpolin Aisialdi Taldearekin uztailaren 2tik 20ra. Izena emateko epea eguaztenean, hilak 30, bukatuko da. Izenemate orria eta Euskadiko Kutxan 40 euro ordaindu direla egiaztatzen duen agiria eroan behar dira kultura etxera, 11:00etatik 13:00etara.

propaganda
kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatorioak
gonbidapenak
errebistak
inprimakiak



EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

1979urtetik
zure zerbitzura



ANDRA MARI

Aholkularitza

Fiskala
Kontablea

Juridiko/laborala

2006ko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari auzunea 3 ARETXABALETA Tel.: 943 79 29 26

HIRIGINTZA > HIRU GUNE EZBERDINETAN EGINGO DITUZTE

Oñatin ia 300 etxebizitza berri egongo dira 2008an

San Martinen egingo diren 306 etxebizitzetatik 196 babes ofizialeko etxebizitzak izango dira

Ugarkalde auzoko etxebizitza babestuen hurrengo zozketa uztailan egitea espero dute

JOKIN ETXEBARRIA > OÑATI

Oñatin etxebizitza ugari egiteko asmoa dago hurrengo urteei begira. Dagoeneko hainbat egiten hasi dira eta beste hainbat egiteko bidean dira. Hiru inguruneetan ari dira etxeak egiten bereziki: Ugarkalde auzoan, Casa-

blancan eta San Martinen. Datoren urterako ia 300 etxebizitza eginda egotea espero dute.

SAN MARTINEKO OBRAK HASITA

San Martinen dagoeneko hasi dira hondeagailuak lurra mugitzen eta lursaila berdintzen. Ber-



HONDEAGAILUAK San Martinen dagoeneko hasi dira hondeagailuak lurra mugitzen.

OIHANA ELORTZA.

tan, guztira 306 etxebizitza egitea espero dute. Horietatik %65 (196 etxebizitza) babes ofizialeko etxeak izango dira eta 95, libreak. Bi etapatan egingo dituzte etxe horiek: lehenengoan, babestutakoak 95 izango dira gutxienez eta bigarrenean 50. Libreak, berriz, eraikitzaileak nahi adina.

CASABLANCAN TASATUAK

Casablangan ere etxeak egiteko asmoa dago. Guztira 120 etxebizitza egingo dituzte, bi areatan banatuta: 90 tasatuak eta 30 babes-tuak. Eraikitzailea dagoeneko badabil proiektuarekin lanean, eta lehen fasea aurrean hasiko dela espero dute Udalean.

Bestalde, Ugarkalde auzoko etxeak ere aurrera doaz, eta urtik abendura bitartean lehen faseko 75 etxeak bukatuta egongo dira. Eta bigarren faseko 40 etxebizitza babestuen zozketa apirilean egitea aurreikusita bazegoen ere, azkenean ere, uztailaren 12an egingo dute.



OIHANA ELORTZA

Zabalik dago kiroldegiko errepidea

Ia bi urte igaro eta gero, kiroldegiko errepidea zabalik dago berriro. Hasiera baten, zortzi hilabetez itxita egongo zela espero zen, baina, segurtasun kontuengatik, denbora luzeagoan eduki behar izan dute itxita errepidea. Oinezkoek hesi batzuekin mugatuta dute espaloia, oraindik ere obrekin jarraitzen dutelako, baina autoek ez dute arazorik.

OBRAK > OLAKUAKO IBAI ERTZEAN

Saneamendu obrak dira Olakua auzoko lanak

Errekan gertatutako lur-jausia aprobetxatu dute obrekin hasteko

JOKIN ETXEBARRIA > OÑATI

Olakua auzotik pasatzen den errekan ur indarrak sortutako lur-jausia konpontzeko lanek uste baino gehiago iraungo dute. Izan ere, urak eramandako pareta berritzeaz gain, San Lorenzo auzoko saneamendu obrak egiten hasi dira bertan.

Hain zuzen, erreka eramandako pareta San Lorenzo auzoko ur fekalen eta ibai-

ko uraren irteera naturala da, eta, pareta hura konpondu beharra zutela ikusita, saneamenduarekin lotutako obrekin hastea erabaki dute.

OBRA HANDIA

Olakuako auzotarrak kexu agertu dira azken asteetan, ingurunea konpontzeko lanean hasteko denbora luzea behar izan dutelako, eta, bitartean, auzoa hesiekin beteta egon delako eta hainbat apartaleku kendu dituztelako. Lanekin joan den astean hasi ziren, eta badirudi luze joko duela, nahiko obra konplexua eta handia delako ibai ertzean egiten dabilzana.

> ZERGA

Ondasun higiezin zergak ordaintzeko epea zabaldu dute

Oñatiko Udaletik jakinarazi dutenez, 2007ko hiri eta landa izaerako ondasun higiezin zergaren ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epea zabaldu dute. Ekainaren 30a bitartean egin ahal izango dira ordainketa horiek.

Helbideratutako ordainagiriak banku edo aurrezki kutxako kontu korrontetik kobratuko dira zuzenean, ekainaren lehen hamabostaldian. Helbideratu gabeak, ordea, zergadunak adierazi duen helbide fiskalera bidaliko zaizkio, Oñatiko Udaleko Zerga Bulegoan ordain ditzan. Ekainaren 10a baino lehen ordainagiria etxean jaso ez duenak Udaleko Zerga Bulegoan eskatu beharko du.



“La obra maestra de la injusticia es parecer justo sin serlo”
PLATON, filosofo ospetsuak duela hainbat mende esandakoa eta egun gure eguneroko bizitzan, zoritxarrez, guztiz txertatua dagoena.

BOZKATU



HIRIGINTZA > SANTA MARINAKO ETXEBIZITZAK

Santa Marinako etxebizitzaren zozketa ekainaren 20an

Erreka azaleratu eta zerbitzuak jarri dituzte; uztaierako, berriz, plaza berria egingo dute

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Juan Carlos Bengoa alkateak jakinarazi digu Santa Marinan egingo dituzten 31 etxebizitza tasatuen zozketa ekainaren 20an izango dela. Ibarraundin egingo dute, 12:00etan, eta Etxebidek hartuko du horren ardura.

Horrekin lotuta, zozketarako onartuen eta ez onartuen zerrendak ikusgai daude udaletxean. Hala, interesatuek ekainaren 4ra arte izango dute zozketaren emaitzari errekurtsioa jartzeko. Errekurtsioa jartzeko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Donostiako Andia kalean duen egoitzara jo behar dute, edo bulego horrekin harremanetan jarri.

Ez onartuak 77 eskoriatzar dira; eta onartuak, berriz, 122. Horien artean, bi elbarriak dira; 95 herritar 35 urtetik beherakoak eta beste 25 eskoriatzar 35 urte baino nagusiagoak. Horietatik, 31 lagunek eskuratuko dituzte etxebizitzak.

URBANIZAZIOA EGITEN

Visesa eta Orubide dabilta Santa Marina inguruko lanak egiten; urbanizazio eta etxebizitzak erai-

kitzeko lanak, hain zuzen ere. Horien artean, urbanizazio lanen zuzendaritza, berriz, LKS Ingeniaritzarena da.

Santa Marina inguruan fabrika, ortu eta txabola ugari zeuden lehen. Horiek guztiak bota egin zituzten etxebizitza tasatuak eta baita askeak egiteko ere. Orain, berriz, fabriken azpian estalita zegoen erreka azaleratzen aritu dira eta erreka berriro bideratu dute. Horrekin batera, lan horiek baliatuko dituzte instalazio eta kanalizazio zerbitzu guztiak berriro jartzeko eta noranzko bakarreko errepidea egiteko.

PLAZA, UZTAILERAKO

Jakin dugu noranzko bakarreko errepidea erreka-errekaren aldean jarriko dutela. Erreka-errekaren eskuinaldean, berriz, plaza bat jartzen dabilta. Hain zuzen ere, plaza horretan zoladura jartzen dabilta, eta lan hori datorren asterako bukatuta izango dutela aurreikusi dute.

KIOSKOA EGITEN DABILTA

Plaza horretan kiosko bat jartzea aurreikusi dute. Dagoeneko hasi dira enkofratua egiten eta laster



PLAZA URBANIZATU Azken asteotan plaza berria urbanizatzen dabilta, eta uztaierako bukatu gura dute.

IKER BARANDIARAN

hormigoia botako dute gainera. Horren ostean, estalki metalikoa jarri beharko diote.

LKS Ingeniaritzako ardura-dunek azaldu digute asmoa dela

plaza eta kioskoa uztaierako bukatuta egotea. Hala, plaza-aren inguruko orube guztia hesiz inguratuko dute, herritarrek plaza erabiltzen duten bitartean

etxebizitza guztiak eraikitze-ko lanek jarrai dezaten.

Plaza berri horretarako sarbidea Arana kaletik baliatuko dutela jakinarazi dute.

EB-Aralar koaliziokoak, 'segway' gainean

Eguazten arratsaldean Ezker-Batua-Aralar taldekoak segway gainean ibili ziren herri osoa zeharkatzen, eta propaganda banatzen.

Besteak beste, Ezker Batuko legebiltzarkide Oskar Matute, Eskoriatzako EB-Berdeak-Aralar taldeko zerrendaburu Juan Luis Merino, Arrasateko EB-Zutik taldeko Ander Rodriguez eta Oñatiko EB-Aralar-Zutik taldeko Karmelo Perez izan ziren. Garraio ekologikoaren alde egiten dute.



ARRITXU BARRUSO



KIOSKO BERRIA Egiten dabilta kioskoren infografia.

LKS INGENIARITZA



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8 **ESKORIATZA**
943 71 40 63

Mikel Alcaide > Xake jokalaria

"Batzuek diote xakea gauza serioa dela, baina dibertigarria eta interesgarria da oso"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Mikel Alcaide eskoriatzarrak xakean dihardu azken bi urteotan. 13 urte ditu, baina gogoz dabil jokoan. Joan den asteburuan Xake Gurutzeta VII. Nazioarteko Openean lehenengo postua lortu zuen infantil mailan, Barakaldon.

Noiz eta non hasi zinen xakean jokatzeko?

Orain dela pare bat urte, osaba Aitorrekin hasi nintzen jokoan. Osabak oso gustuko du xakea, eta neu zaletzen saiatu eta lortu egin zuen. Txikiagotan ere jokatuta neukan, baina orduan ez nekien logika erabiltzea jokatzeko.

Hortaz, dagoeneko osaba pozik izango duzu?

Bai. Hura oso pozik dago, baita ni ere bai. Erabat zaletu naiz, eta egunero hartzen dut tarteren bat jokoan egiteko.

Zerk erakartzen zaitu gehien xaketik?

Jokoak berak. Askok gustatzen zait jokatzeko, logika erabiltzea eta pentsatu behar izatea. Gainera, oso dibertigarria eta interesgarria da. Jendeak uste du joko serioa dela, baina nik oso ondo pasatzen dut.

Noiz eta zelan hasi zinen Arrasateko Xake Taldean?

Iaz, Arrasateko taldearekin txapelketetan esku hartzen hasi nintzen. Aurten, berriz, ligan ere hasi naiz. Bestalde, eguaztenero San Andresen duten egoitzan elkartzen gara, eta han gazte eta nagusien kontra lehiatzen naiz, bi orduz.

Asteazken ez duzu besterik jokatzen?

Bai. Ia egunero etxean jokatzen dut ordenagailuarekin. Programa bat daukat, eta hura baliatuta jokatzen dut. Hala ere, gura dut xake taula erabiltzea beste pertsona baten kontra jokatuta. Baina nire lagunak ez dute xakean jokatzekeko ohiturarik, eta asko-



Argazkian, Mikel Alcaide, Barakaldon irabazitako koparekin.

IKER BARANDIARAN

"Ia egunero etxean jokatzen dut ordenagailuarekin, programa bat baliatuta"

"Askok gustatzen zait jokatzeko, logika erabiltzea eta pentsatu behar izatea"

tan ordenagailua izaten da alternatiba. Bestalde, xakearen gaineko liburuak ere irakurtzen ditut.

Txapelketa askotan esku hartu duzu orain arte?

Batzuetan bai. Oñatin, Donostian, Bilbon, Arrasaten... eta beste leku batzuetan esku hartu dut Arrasateko Xake Taldearekin. Oso ondo pasatzen dut txapelketetan, eta horietako batzuetan emaitza onak lortu ditut. Pozik nago lortutakoarekin.

Bada txapelketetan beste eskoriatzarrik?

Badira batzuk, baina nire adinekorik ez. Xakean jokoan ibiltzen diren eskoriatzar guztiak nagusiagoak dira. Hala ere, nire adineko jende ugari ibiltzen da jokoan, gero eta gehiago.

Aspaldi zabaldu zen eztabaida hau: zure ustetan, xakea kirola da?

Nik kirola dela uste dut. Ez da kirol fisikoa izango, baina buruarekin lan handia egin behar izaten da.

Zer dela-eta zaude Arrasateko taldean?

Eskoriatzan ez dago xake talderik, eta Aretxabaletakoan ez dago ni moduko gazterik. Arrasatekoa da halako aukera eman zidan bakarra.

Zer beste zaletasun daukazu?

Futboleko jokatzeko oso gustuko dut, baita frontonisean ere.



PEDRO LASAGABASTER Lasagabaster da zerrendaburua.

IKER BARANDIARAN

HAUTESKUNDEAK > EAE-ANV TALDEAREN AURKEZPENA

Herritarren esku-hartzea indartu gura du EAE-ANV

'Zure ametsak geuriak dielako' da EAE-ANV taldearen udal hauteskundeetarako leloa

I.B. > ESKORIATZA

Astelehenean Eskoriatzako EAE-ANV k hauteskundeetarako programa aurkeztu zuen. Osoko bilkura aretoan egin zuten ekitaldian, Pedro Lasagabaster zerrendaburuak, Dorleta Lezetak eta Ander Agirianok esku hartu zuten.

Zure ametsak geuriak dielako leloa dauka programak, eta hori erakusteko bi bide aukeratu zituzte: bata, liburuxka eta DVD baten bitartez. Hura etxe guztietara bidali dute; eta bestea, Herriko Plazan eta auzoetan panelak jarrita, programa kalera ateratzeko. Are gehiago, herritarrek euren kezak idazteko aukera izan dute kalean jarritako paneletan.

EAE-ANVren ustetan, Udala txarto kudeatuta dago. Hori dela eta, jakinarazi zuten EAE-ANVko zerrenda gaitasun handiko herritarrek osatzen dutela. Nabarmendu zuten, baita ere, arau subsidiarioak berrikustea ezinbestekoa dela. "Ekologian eta herritarren parte-hartzean oinarritutakoak behar ditugu".

Horrez gain, jakinarazi zuten herritarren ekarpenak kontuan hartzeko herri-kontsulten aldekoak direla.

GAUR, EGUBAKOITZA, PLAZAN Bestalde, jakinarazi zuten gaur, egubakoitza, Herriko Plazan egongo direla, 18:00etan, herritarren zalantzak argitzeko.

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure Zerbitzura

LENIZ
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 31 45

> UDALA

Dirulaguntzak eskatzeko epea maiatzaren 31ra arte

Kultura eta kirol talde eta elkarteek dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dute maiatzaren 31ra arte. Udaletzeko bulegora jo behar da. Laguntza eskaerarekin batera, barne txostena ere aurkeztu behar dute: aurrekontuak, egitasmoak, inbertsioak eta abar.

> TXIRRINDULARITZA

Gurutz Larrea hirugarren sailkatu zen Markinan

Amateur mailako Gurutz Larrea txirrindulariak lan bikaina egin zuen astelehenean, Markinan. Foruria Memorialeko hirugarren postua eskuratu zuen. Xabier Arantzetza eta Aitor Laskurain kadetak, bestalde, 18. eta 21. postuan iritsi ziren helmugara, Elgoibarren.

> PILOTA

Bihar erabakiko da finala zein bikotek jokatu duen

Ekainaren 2an, zapatua, jokatuko dute herriko pilota txapelketako finala. Oraindik erabakitzeke dago zein bikotek jokatu duen, izan ere, partidu bat jokatzeko falta da. Bihar, zapatua, jokatu dute honakoek: Aristi-Aranburu eta Unanue-Bargiela.

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

ELKARTASUNA > ANELKARREN FESTA DOMEKAN

Anelkar Elkartasun Taldeak udaberriko festa egingo du hauteskunde egunean

Bidezko

Merkataritzako produktuak salduko dituzte Zurrategin

Kale antzerki

emanaldia izango dugu, Oihulari Klown taldearen eskutik

AINZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Urtean hiruzpalau Elkartasun Festa antolatzen ditu Anelkar taldeak herrian. Etzi, domeka, egingo dute udaberrikoa. Horrela, hauteskundeetako domekari beste ukitu bat emango diote.

Ekitaldiak 19:00etan hasiko dituzte; ordu horretan jarriko dute Bidezko Merkataritzako produktuak saltzeko postua Zurrategi plazan. Zozketa ere antolatu dute; batetik, Euskadiko Kutzak emandako oparien sorta bat zozkatu dute eta, bestetik, Bidezko Merkataritzako produktuen bes-



OTIACICCOH Oihulari Klown taldeak kale antzerkia eskainiko digu domeka arratsaldean.

OIHULARI KLOWN

te sorta bat. Domeka arratsaldean zehar ibiliko dira zozketarako txartelak saltzen. Brasil, Congo eta Senegalerako izango da batutako dirua. Gainera, herrialde horietan martxan dauzkaten proiektuen berri emango diete domekan herritarrei.

KALE ANTZERKIA

Bestalde, kale antzerki emanaldia antolatu du Anelkarrek, Udaren laguntzarekin. Oihulari Klown antzerki taldeak *Otiacicoch* antzezlan eskainiko du Zurrategin. Antzezlan probokatzailerak da. El Salvadortik eta 1500.

urtetik etorritako indigena talde bat osatzen dute aktoreek. Txundituta geratuko dira publikoan dauden arroparekin, orrazkeekin... Hasieran, beldurtu ere egingo dira, baina, gero, jolasean hasi eta publikoa probokatu ere egingo dute.

UDALA > AGINTALDI BUKAERA

Udalak 2003-2007 memoria banatu du etxez etxe

Lau urteotan Udalak egindakoaren errepaso egiten dute aldizkari horretan

A.I. > ANTZUOLA

Aurreko asteburuan herriko etxe guztietan banatu zuen Udalak *Legegintzaldi honen memoria, 2003-2007* izeneko aldizkaria. Orain dela bi urte, agintaldiaren lehenengo bi urteei egin zieten errepaso. Jose Angel Zabalok memoriaren aurkezpe-

nean dio herritarrekiko komunikazioa bermatzeko bidea dela aldizkari hori. Memorian, batzordez batzorde lau urteotan Udalak egindako lana jasotzen dute.

SALAKETAK

EAE-ANV eta Zutik-Ezker Batua-Aralar koalizioak prentsa ohar bana helarazi digute memoria orain argitaratzeagatik, Udalen jokabidea salatze-ko. Udalak memoria hori hauteskunde kanpainaren erdian banatu izana salatu dute alderdi horiek.

MUNDUMIRA > DIAPOSITIBA EMANALDIA MARTITZENEAN

Indian zehar egindako bizikleta ibilaldia, iruditan

Mundumiraren egitarauaren barruan kokatzen da datorren asteeko emanaldia

A. I. > ANTZUOLA

Ekainaren 1etik 3ra ospatuko da Mundumira jaia Aretxabaletan. Horrekin lotuta, ibarreko gainerako herrietan ere hainbat ekitaldi antolatzen dihardute. Antzuolan, diapositiba emanaldia izango dugu martitzenean, hilak 29, Olaran

etxean, 19:00etan. Atxabaltarrak lagun taldeak Delhitik Kathmandura bizikletaz egindako bidaia kontatuko digute.

Aretxabaletako bost bizikleta zale dira bidaiaaren protagonistak. Argazkien laguntzarekin azalduko dizkigute bidaiaaren nondik norakoak.

KAMISETAK SALGAI

Mundumira jaialdiko antolatuzaileek kamisetak atera dituzte eta Antzuolan ere salgai jarri dituzte, Anelkar Elkartasun Taldearen bitartez. Itzar liburu-dendan daude.

Badator kolorez jantzia Antzuola berria



BOZKATU



bere ustez



Beatriz Zaballondo

Iñaki
Etxabe
lagunari

Jaio orduko abian gara abentura miragarrian, behin betiko bizipen gerezinen joanean. Sentimenduak sortu ahala deskubritzen ditugu, geure barruan lekua hartzen dutenean. Pertsonak ere gure ondotik igarotzean ezagutzen ditugu, eta, halaxe, gauzei neurria geuk ematen diegu bizitzan. Nola bizi behar dugun, zer nahi dugun ikasi, lagun nor nahi dugun: poliki-poliki erantzuten diegu galdera horiei, urteekin.

Eguneroko xextrak sarri

"Lagun eta senideentzat hitz egokienak aukeratuta, agur esan duk"

iluntzen du gure zerua, eta hostotza sarriaren azpian egiten dugu bidaiaaren zati luzeena. Bidaideen artean, batzuk distira berezikoak aurkitzen ditugu, halere.

Hi, Iñaki, ilunaren antipodetan ezagutu haut. Begietan argia, ezpainenetan irria: gogoa erne eta hitzak zuzen. Politik izan ez arren beti. Parrandarako aparta eta etxerako bikaina. Adin guztikoekin, adiskide maitagarria. Lagunen lagun: eskua luzatuta, eskaintzeko zabalik.

Azken bidaia zatitxoan, neurria heuk eman diek ingurukoei, eta goitik beherako gizon portatu haiz: lagun eta senideentzat hitz egokienak aukeratuta, agur esan duk. Orion itsasargiak beste poz bat dik egun.

HAUTESKUNDEAK 07 > ASTEON BI AURKEZPEN EKITALDI EGIN DITUZTE HERRIAN

Egitasmoen berri eman dute Elgetako Abertzaleek eta Aralar-Independenteek

Patxi Basaurik lanean jarraitzeko asmoa agertu du eta Oxel Erostarbek dio Elgetak behar duen alternatiba erreala direla

L.Z./T.M. > ELGETA

Patxi Basauri buru duen Elgetako Abertzaleak hautesle-elkarteak martitzenean egin zuen aurkezpen ekitaldia Bolatokian. Bertan izan zen Garaia Berrikuntza Zentroaren berri emateko Andoni Gartzia kudeatzailea.

Patxi Basauri alkategaiak esan zuen izen berriarekin aurkezten direla hauteskundeotara, baina lantaldea bera dela.

Azken agintaldiko lorpenak azpimarratu zituzten lehenengo, eta jarraian, hurrengo lau urteotarako egitasmoak eman zituzten aditzera. Hirigintzan, Salbador kalea oinezkoendako egiteko asmoa agertu zuten. Saihesbidearen 2. fasea egitea ere helburu dute. Bentafrían, berriz, 100 bat etxebizitza sozial, lur azpiko 150 aparkaleku eta estalitako plaza bat egin gura dituztela agertu zuten.

Kiroletan, estali gabeko instalazio berriak egiteko asmoa dute saihesbideko lanen ondorioz sortuko den 25.000 metro koadroko lursailean. Mendizaletasunaren Interpretazio Zentroa bultzatuko dutela ere esan zuten.

"Gauza asko egin dira agintaldi honetan Elgetan", esan zuen Basauri alkategaiak. "Baina bada-go oraindik zer egin, eta lanean jarraitzeko asmoa dugu".

ARALAR-INDEPENDENTEAK

Oxel Erostarbe buru duen zerrendak ere martitzenean egin zuen aurkezpen ekitaldia. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Elgetak aldaketa behar duela azpimarratu zuten: "Udal kudeaketa ezin da pertsona bakar baten eskuetan egon, eta guk elkarlana proposatzen diogu herriari", esan zuen Erostarbek. Iritzi askotariko jendea batzen duen zerrenda osatu



ELGETAKO ABERTZALEAK Elgeta hobetzen jarraitzeko asmoa agertu zuten. L.Z.



ARALAR-INDEPENDENTEAK Elgetarendako alternatiba direla esan zuten. T.M.

dutela esan zuten. Adierazi zuten proiektu asko dituztela, baina kezkatuta agertu ziren Udalaren egungo egoera ekonomikoarekin: "Egoera ekonomi-

koaren azterketa egitea ezinbestekoa da", azaldu zuen Erostarbek. "Agintaldi honetan gauza handiak egin dira eta espero ziren sarrerak ez dira etorri".

AURREKONTUAK 07

Ia hiru milioi euro onartu ditu EAJ-EAk 2007rako

Aralarrek kontrako botoa eman zuen, gabezia handiak ikusten dituelako

L.Z. > ELGETA

2007. urterako udal aurrekontu zehatza 2.911.755,51 euro da. EAJ-EAren botoekin atera zen aurrea, Aralarrek kontra bozkatu baitzuen. Aurrekontuotan, 43.000 euroko kreditua eskatzea proposatu du EAJ-EAk, eta Aralarko Oxel Erostarbe kexu agertu da: "Udalak 700.000 eurotik gorako zorra du kreditutan eta beste bat eskatzea harrigarria iruditzen zai-gu". Aurrekontua maiatzean aurkeztea ere lotsagarria dela esan du. "Honek ez du Udalaren gestioan batere laguntzen eta bertan jasotzen diren diru partida asko egin da edo hitzartuta daude", azaldu du Erostarbek.

Patxi Basauri alkateak, berriz, bestelako iritzia du: "Aurreko urteetan gauza asko eta oso garrantzitsuak egin dira Elgetan. Aurrekontuok bestelakoak dira. Ez dute aparteko inbertsiorik aurreikusten".

Ekitaldi honetako egitasmoen artean daude Uruburuko urbanizazio lanak, zerbitzu sozialak hobetzea helburu duen Bideberri egitasmoa, irisgarritasun lanak eta erretiratu elkartearen lokalaren alokairu berria ordaintzea.

Aperribay, s.l.

*Marmoldegi
eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa
Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Bozkatu **aralar** INDEPENDENTEAK

Herrittik,
herriarekin, herriarendako

www.aralar.net

euskara



JOKOAN Tomas Galartzak oso gustuko du jokoan egitea; argazkian hala ageri da (txandala jantzita), Oletan. GALARTZA FAMILIA

OMENALDIA > BIHAR, ZAPATUA, OLETAN EGINGO DIOTE

Biharko omenaldirako gertu da Tomas Galartza

Goikola baserrian jaio zen, 1907ko maiatzaren 23an; 100 urte bete behar dituelako egin behar diote omenaldia Tomas Galartzari

UBANE MADERA > ARAMAIO

Tomas Galartza Arana Bilbon bizi da mutikotatik, lan kon-tuengatik Oletako Goikola base-rria utzi eta Bizkaira lanera joan zenetik. Eta urte asko dira, mai-atzaren 23an 100 urte bete behar ditu-eta gizonak.

Urtebetetze berezi hori dela-eta, bihar, zapatua, omenaldia egin behar diote herrikideek, bere jaiolekuan, Oletan: 13:00etan meza esango dute, Aurrekua dantzatuko diote eta horren oste-an luntxa izango dute. Gainera, Aramaio Udalak eta Oletako batzar administratiboak oparia emango diote Tomas Galartzari.

Aramaion halako ekitaldi bat antolatzen duten lehen aldia da. Izan ere, azken urte luzeotan ez da egon udalerrian 100 urte bete dituen beste aramaioarrik.

OPORRETAN, ETXERA

Tomas Galartzari dagokionez, Oletatik urte asko dela joan arren, ez du jaioterria ahaztu, ezta gutxia- ere. Are gehiago, Gabonetan, Aste Santuan eta udako oporre- tan urtero dator gaur egun berea den baserrira, Errota-Zarrera.

Gainera, ez da ez baserrira joa- ten geldi egotera. Hala kontatu digu Bilbon harekin bizi den Maria Jesus Galartza alabak:

"Mezetara joaten da, kartetan jokutzen du... Pentsa, horren ondo dago aita, neu astebururo joaten naiz Oletara eta hura bakar-baka- rrik geratzen da Bilbon. Bazka- riak-eta gertu uzten dizkiogu eta gainerako guztiarekin bakar- bakarrik moldatzen da".

TXUKUNA IZATEA

Galartzaren sekretuaren gainean galdetuta, berriz, sekretua ez da medikuarengana joatea, alaba- ren esanetan ia ez da joaten-eta: "Oso txukuna da ordutegi oroko- rrekin eta bereziki jateko ordue- kin, ez du-eta orduen artean ezer ere jaten. Horrez gainera, karte- tan jokutzen du asko, bakarrik dagoenean ere ibiltzen da *solita- rioak* egin eta egin. Bestalde, harrapatzen dituen egunkari guz- tiak irakurtzen ditu eta gaurkoa biharko uzten du, errepasatzeko".

POLITIKA > HAUTESKUNDEAK 07

Aramaio "herri bizia" izateko lan egingo du EAJ alderdiak

U.M. > ARAMAIO

Astelehenean egin zuen ekital- dia EAJk, gonbidatu bereziekin: Araba Buru Batzarreko presi- dente Iñaki Gerenabarrena eta EBBko presidente ohi Xabier Arzalluz izan ziren kultura etxe- an. Azken horrek, besteak bes- te, adierazi zuen kanpaina "epel" samarra izaten ari dela eta uste duela abstentzioak gora egingo duela. Aramaioren gainean, berriz, adierazi zuen EAJ indar-

tsu dabilela. EAK gobernatzen zuen tokian EAJ aurretik ipin- tzea indar horren adierazle zela adierazi zuen Arzalluzek.

Ekitaldian, Iñaki Nafarra- te alkategaiak EAJren pro- grama banatu zuen entzuleen artean. "Aramaio herri bizia izatea nahi dugu", dio progra- mak, eta EAJren zerrendan "Aramaioren alde lan egiteko gogoia duen jendea" dagoela, Iñaki Nafarrate buru dutela.



HIRUKOA Mondragon, Arzalluz eta Nafarrate, kultura etxe kanpoan. U.M.



ALEX MENDIKUTE

Aramaio argazkitan, Sastiña ermitan

Aramaio natura, lekuak eta bestelako elementu txikiak argazkitan batu eta erakusketa egin du Alex Mendikutek Sastiñan. Ipini ditu 20 argazki, koloreta- koak, DIN-A3 formatuan, kamera digitalarekin egindakoak 2006an. Egongo da zabalik domekara arte; bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00ak arte eta 18:00etatik 19:30ak arte eta domekan, 12:00etatik 14:00ak arte.

UDALBERRIA
HERRIKOLORBAK

BOZKATU

Elgetako

EAE  ANV

UDALA > AGINTALDI BUKAERA

Udalbatzako kideek agur esango diote agintaldiari

Datorren agintaldian zazpi zinegotzi izango ditu Gatzagako Udalak, eta azken lau urteotan lanean jardun duten bost zinegotziek ez dute jarraituko



UDALBATZA laz egindako osoko bilkuran, alkatea, zinegotziak eta idazkaria. M.A.

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Hauteskunde-kanpainaren azken eguna da gaur, eta domekan zazpi zinegotzi hautatuko dituzte gatzagarrek.

AGUR AGINTALDIARI

Azken lau urteotan lanean jardun duen taldeak agur esango dio Udalari. Joxerra Perez alkatea eta lau zinegotzi egon dira, eta ez du inork jarraituko. Hainbat proiektu utzi-ko dituzte abian; arau subsidiario-en aldaketa, esaterako: "Beti egin daiteke gehiago", adierazi du Perezek, "baina denbora behar da". Herrian oraindik gasik ez dutelako, penarekin doa: "Izan ere, negu-

rako agindu ziguten eta uda hel-du behar zaigu gas barik".

ALDERDI BI HAUTAGAI

Gatzagak 250 biztanle ditu, eta horietatik 205ek daukate eskubidea bozkatzeko. Eskolan jarriko dute bozkatzeko mahaia domekan, eta alderdi bi izango dituz-

te hautatzeko Udalerako: Leintz Gatzagako Hautes-elkartea eta PP. Eusebio Villar da gatzagarrek osatu duten taldeko zerrendaburua, eta kide gazteek egingo diote lagun. Batzuek ezagutzen dute udal jarduna -Villarrek berak-, eta beste batzuk politika-gintzan sekula ibili bakoak dira.

> AISIALDIA

Bihar, zapatua, landatuko dituzte zuhaitz eta landareak udaletxeko parkean eta lorategietan

Herriko lorategiak txukundu eta loreak landatzeko deialdia joan zen zapatarako egin zuen Gurel guraso elkarteak Udalarekin batera, baina eguraldi txarraren erruz atzeratzea erabaki zuten. Hala, bihar izango da ekitaldia, 10:30ean hasita.

Udaletxe alboko parkea da txukunduko dute lehenengoa. Belarra dagoeneko ereinda daukate, eta orain, landareak eta zuhaixkak landatuko dituzte, baita zuhaitz bat ere. San Migel eta goiko plazako lorontzietan ere jarriko dituzte loreak.

> ERRETIRATUAK

Bihar, zapatua, bukatuko da Hondarribiara egingo duten bidaiarako izena emateko epea

Herriko erretiratuek bidaia egingo dute datorren egubakoitzean, ekainak 1. Hondarribia aldera joango dira egun-pasa: 09:00etan atera herritik autobusean eta 21:00ak inguruan itzuli. Erretiratuen taldeko zuzendaritza batzordeak ez du eman gura bidaiaren gaineko xehetasunik: "Hainbat ezusteko gertatu ditugu, eta ez dugu gura aurrez jakin ditzaten", adierazi digu Juan Mari Makazagak.

Dagoeneko 30en bat erretiratuk eman dute izena, baina, beste norbait animatuko balitz, oraindik garaiz dago.

> KZGUNEA

Ikastaro bi egingo dituzte ekainean KZgunean, kanala sintonizatzen ikasteko eta lana lortzeko

Zure kanala sintonizatu izeneko ikastaroa egingo dute ekainaren 4an, astelehena, 18:00etatik 19:00etara. Interneten irratia zelan sintonizatu eta telebista zelan ikusi erakutsiko dute.

Bigarren ikastaroa ekainaren 18an izango da, astelehena, 18:00etatik 20:00etara. Lanpostua aurkitzeko Internetek eskaintzen dituen aukera guztiak ezagutuko dituzte KZgunera etorritakoek. Ikastaro biak euskaraz izango dira.

Euskal herria
www.euskalherria-aldizkaria.com
mendia, kultura, natura, bidala aldizkariak
aurkezten du

Mundumira
munduko kulturen festa

ekainak 1/2/3
Aretxabaleta-Debagoiena

KIKO VENENO
catalunya

GECKO TURNER
extremadura

TOMAS SAN MIGUEL
euskal herria

MARIANA RAMOS
cabo verde

DAM
palestina

Euskadiko **BOULDER** txapelketa

Artisautza Azoka, Munduko Zaporeak, Bidezko Merkataritza, Mendiko Azoka, Erakusketak, Diaporamak, Mendi Igoerak, Graffitiak, Haurrentzako Antzerkia, Dantzak, Kale Antzerkia...

JAIPUR KAWA BRASS BAND india
ORQUESTA ÁRABE de BARCELONA
ROMANÍ CHAVÉ bulgaria
LES BESTIOLES DE LA GARRIGA occitania
TRÍO FORRÓBÓDÓ brasil
ECHA PAKÁ cuba
MAMADU ginea bissau
ALBALA arabiako dantzak
FESTICULTORES TROUPE galicia
ARTEA TEATRO aragón

i 902 181 471

www.mundumirafesta.com

Antolatzaileak:



Babesleak:



Kolaboratzaileak:



MENDIA > AIBA! MENDI MARTXA, EKAINAREN 3AN

Iazko arrakastak fruituak eman ditu

Iazko mendi martxak izandako arrakastak lagunduta, aurten berehala animatu dira 300 lagun ekainaren 3an egingo duten bigarren edizioan parte hartzeko

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Dagoeneko ez dago lekurik ekainaren 3an egingo duten Aiba! mendi zeharkaldian parte hartzeko –Aramaio ibarrari bira Arrasatetik–. Dagoeneko 300 lagunek eman dute izena, eta antolatzaileendako hor dago gehieneko muga, jende kopuru horrendako prestatu dute-eta proba. Jasotako datuen arabera, izena eman duten mendizaleak jatorri askotarikoak dira. Hain zuzen ere, parte-hartzaileen %60 baino ez dira debagoiendarrak, eta gehienek mendi taldeen bitartez eman dute izena.

Iaz moduan, aurtengo proba ere ez da lasterketa izango; hau da, nor bere martxan, ibilbide eder horrek eskaintzen duenaz gozatzea da helburu nagusia. Eta, jendea korrika eta presaka ibil dadin eragozteko hainbat kontrolgune jarriko dituzte: horrela, korrika dabilenak itxaron egin beharko du. Hori bai, antolatzaileei begira, gehieneko denborak ere jarriko dituzte.

IBILBIDE BERA

Ondo dagoena ez dago zertan aldatu. Hala, antolatzaileek ibilbide bera jarri dute aurten ere:



UNTZILLAN Iazko proban, Untzillan egindako erretratua.

AIBA!

Arrasate, Udala, Besaide, Tellamendi, Lezia, Sankristobal, Untzilla eta Arrasatera buelta. Ibilbide hori motza izango da (32,3 kilometro), eta luzea egin gura dutenek Udaltx eta Anbotoko tontorrak izango dituzte

zain (40,5 kilometro eta 5.800 metroko desnibel metatua).

Jakin ezazue antolatzaileek ibilbidean jatekoak eta edatekoak emango dituztela. Informazio zabalagoa dago www.aiba.besaide.org webgunean.

> FUTBOLA

Debagoieneko zein talde geldituko den lehen erabakiko da preferenteko azken jardunaldian

Oraingo asteburuan jokatuko dituzte preferente mailako denboraldiko azken partiduak, eta gure taldeen artean lehena nor geldituko den oraindik erabakitzeke dago. Mondrak eta Aretxabaletak puntu kopuru bera dute, eta nahiz eta Gordobilen mutilak aurretik dauden sailkapenean, azken partidua Zarautzen jokatu beharko dute, liderraren kontra. UDAk, berriz, etxean jokatu du domekan(16:30), Trintxerperen kontra. Aloña Mendik Azkoagainen amaituko du denboraldia, Idiazabalen bisitarekin(17:30).

> PILOTA

Herri Arteko Txapelketako final-laurdenetan dira Arrasateko eta Bergarako pilotariak

Astigarraga eta Zarautz atzean utzi eta gero, Bergarako eta Arrasateko pilotariak dagoeneko txapelketako final-laurdenetan daude. Oraingo asteburuan bi taldeetako ordezkariak jokatu dute etxetik kanpo, eta datorren asteburuan jokatuko dituzte itzulerako norgehiagokak.

Hori horrela, Arrasateko Azkoitiko pilotalekuan jokatu du gaur gauean (22:00). Bergarak, berriz, bihar izango du hitzordua, Ataunen, 18:00etan.

> ESKALADA

Zabalik dago Mundumiran egingo duten boulder txapelketarako izenemate epea

Aurten Aretxabaletan egin behar dute Mundumira jaia, eta ekitaldi horren barruan, ekainaren 3an, domeka, boulder txapelketa egingo dute, Iturigorri pilotalekuan.

Hala, eskaladako modalitate horren barruan Euskadiko lehia-kide onenak izango dira aurrez aurre. Lehia ikusgarria izango da, besteak beste Euskadiko Federazioak dituen egitura berezietan eskalatuko dutelako. Informazio gehiago gura duenak www.emf-fvm.com webgunera jo dezala.

> LEINTZ ESKOLA KIROLA

Ikasturteko azken jaia antolatu du Leintz Eskola Kirolak oraingo zapaturako

Urtero moduan, ikasturteari agur esateko azken jaia antolatu du Leintz Eskola Kirolak. Bihar egingo dute jai hori, eta antolatzaileek ehunka neska-mutiko batzea espero dute. Goizean, bizikleta martxarekin hasiko dute jaia. 09:30ean autobusean etorriko dira Aramaioko gazteak. Hala, 10:00etan Arrasatetik Eskoriatzarako bidea hartuko dute, eta 10:20 inguruan batuko dituzte Aretxabaletako gazteak, handik Eskoriatzara egiteko (10:30).

Bestalde, LH-1 eta LH-2 mailetakoko ikasleek *Altxorren bila* jolasa egingo dute 10:00etan hasita. Ekitaldi nagusia, berriz, 12:00etan egingo dute Arrasateko Herriko Plazan. Garaikurren, dominen eta bestelako sarien banaketa egingo dute orduan.



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
project,s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia
Labegarieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com



CAVERN TABERNA

Irala 10ean • Bergara

Pazkoetan zatoz gurera!

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA	fasea	Zapatua. 17:00. Zarautz.
Lehenengo maila Osasuna-Reala Domeka. 17:00. Iruñea.	Arrasate-Real Union Zapatua. 11:00. Atxabalpe. Hernani-Aloña Mendi Domeka. 11:30. Zubipe.	Gipuzkoako gazte maila. Emakumezkoak Verkol Aloña-Cocina Aiala Gaur. 20:00. Zubikoa.
Preferente maila Aretxabaleta-Trintxerpe Domeka. 16:30. Ibarra. Aloña Mendi-Idiazabal Domeka. 17:30. Azkoagain. Zarautz-Mondra Zapatua. 16:30. Asti.	Emakumezkoen igoera fasea Mondra-Luberri Zapatua. 16:00. Atxabalpe. BTLS-Hernani Egubakoitza. 19:30. Ipintza.	ERRUGBIA
Bigarren erregionala. Igoera fasea Intxurre-Elgeta Zapatua. 15:30. Alegia. Mariño-Antzuola Zapatua. 15:30. Irun.	Emakumezkoen Kopa Aloña Mendi-Agurain Zapatua. 16:30. Ibarra. Elgoibar-Arizmendi Aretx. Zapatua. 12:00. Mintxeta.	Euskadiko Kopa Durango-Arrasate Zapatua. 16:00. Durango.
Bigarren erregionala. Kopa Mondra-Aretxabaleta Domeka. 12:00. Atxabalpe. Vasconia-Aloña Mendi Zapatua. 17:30. Martutene.	Alebinak. Txapeldunen fasea Bergara-Arrasate Domeka. 12:00. Ipintza. Aloña Mendi-Beasain Domeka. 10:30. Ibarra.	MOTOKROSA
Ohorezko mailako gazteak. Kopa eta jaitsiera Bergara-Euskalduna Zapatua. 17:30. Ipintza.	Alebinak. Kopa Elgoibar-Aretxabaleta Domeka. 10:00. Mintxeta.	Euskadiko Txapelketa Zapatua. Bergarako Candy enpresaren ondoan. 11:45 entrenamendu saioak. 13:30 MX1 eta MX2 kategorietako lehenengo ekitaldiak. 16:00 Bigarren ekitaldiak, eta ondoren finalak.
Kadeteen ohorezko maila. Igoera fasea Reala-Bergara Egubakoitza. 19:00. Zubietta. Arizmendi Aretx.-Ordizia Zapatua. 12:00. Ibarra.	SASKIBALOIA	PILOTA
Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsiera Aloña Mendi-Hernani Zapatua. 10:00.Ibarra. Antiguoko-Arrasate Zapatua. 16:00. Berio.	Kadete maila. Gizonezkoak Bergara-Easo Basoa Zapatua. 16:00. Bergara. Krafft Atco-Aloña Mendi Zapatua. 10:00. Donostia.	Herri Arteko Txapelketa Azkoiti-Arrasate Gaur. 22:00. Azkoiti. Ataun-Bergara Zapatua. 18:00. Ataun.
Ohorezko mailako infantilak. Txapeldunen	ESKUBALOIA	Bergara Hiria Txapelketako finala Erroizenea-Bengoetxea Onsalo-Jauregi Astelehena. 15:30. Bergara.
	Lehenengo eta Bigarren mailako finalak Egia Servi-Ford Mugarri Domeka. 11:00. Tolosa.	IGERIKETA
	Gipuzkoako senior maila. Emakumezkoak Aiala Zarautz-Verkol Aloña	Arizmendik antolatutako txapelketa Zapatua. 14:00. Musakola.

MOTOKROSA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Bihar, ehun lasterkarik hartuko dute esku Bergara Hiria moto-kros txapelketan

laz bezala, aurten ere zirkuitua Candy enpresaren ondoan egongo da, baina hainbat aldaketa egin dituzte, proba ikusgarriago egiteko

XABIER URTZELAI > BERGARA
Beti da errazagoa ondo egiten dena errepikatzea, eta, joan den urteko txapelketa ikusita, aurtengo jaietarako ere Bergarako motorzale koadrilak bigarren ez antolatu du Bergara Hiria txapelketa. Arrasateko Motorzale Taldekoen laguntza izan dute, eta, egindako esfortzuaren ondorioz, bihar 100 pilotu izango dira Candy enpresaren ondoko zelaian, motorrekin lehiatzeko gertu.

Goiz eta arratsalde egingo duten txapelketa puntuagarria izango da Euskadiko Txapelketarako. Goizean, 11:45ean hasiko dituzte entrenamendu saioak, MX-1 eta MX-2 kategorietan. Eta 13:30ean egingo dituzte kategoria horietako lehenengo ekitaldiak. 16:00etan, berriz, bigarren ekital-



ZIRKUITUAN ALDAKETAK Aurtengo txapelketa ikusgarriagoa izango da. J.A.

diko lasterketak egingo dituzte. Hala, ekitaldi bakoitzeko onenak finalerako sailkatuko dira.

ZIRKUITU ERAKARGARRIA
Joan den urtekoarekin alderatuta, aurten hainbat aldaketa egin dituzte zirkuituan, proba ikusga-

rriago egiteko. Hain zuzen ere, 20 eta 30 metroko bi arrapala berri jarri dituzte, eta, horrekin batera, aste barruan lanean ibili dira zirkuituan, biharko hitzordurako dena gertu egoteko. Ikusleek 6 euro ordaindu beharko dituzte eta gazteek, 3 euro.

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE:
Udala Plaza z/g
943 79 00 43
OÑATI:
San Lorentzo 1
943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE:
Zarugalde 52
943 79 99 42



%25eko DESKONTUA sukalde altzarietan apirilaren 15etik ekainaren 15era



“VelaSmooth: estetikan azken iraultza Lirainen bakarrik aurkituko duzu”

Urtero-urtero berrikuntzaren bat aurkezten du Lirain Estetika Zentroak. Orain dela urte batzuk, LPG teknika izan zen. Gero, lehenengo laser plataforma ekarri zuten bailarara eta aurreko urtean, berriz, Frantziatik

Gernetic teknika ekarri ziguten. Oraingoan, estetika munduko azken iraultza aurkezten digute: VELASMOOTH. Horretaz hitz egiteko, Liraineko arduradun Mari Carmen Pardorekin egon gara.



M. Carmen Pardo Abad
Lirain Zentroko arduraduna

Esan, Mari Carmen, zer da VELASMOOTH?

VelaSmooth da ELOS teknologia erabiltzen duen azken iraultza. ELOS teknologia argiaren energia eta tratamendu mediku-estetikoe-tan erabiltzen den irrati-frekuentzia konbinatzen ditu, eta orain arte eza-gutu ez diren emaitzak lortzen ditu. Gainera, VelaSmooth teknikak ELOS

teknologiarekin batera bakunaterapia eta masajea konbinatzen ditu. .

Eta horrekin guztiarekin zer lortzen du?

Lau teknologia horien konbinazioa da berezitasuna, zelulitisaren aurkako beste edozein tratamendutatik bereizten duena, eta kirurgiarik gabeko zelulitisaren aurkako eta gorputza modelatzeko tratamendu onena bihurtzen da. Orain arte LPGrekin lortzen ez genituen emaitzak VelaSmoothekin lortzen ditugu. Esaterako, azala sendotzen du.



“VelaSmooth zelulitisaren aurkako eta gorputza modelatzeko tratamendu onena da, eta LPGrekin lortzen ez genituen emaitzak lortzen dira”

Segurua da?

VelaSmooth teknologiarekin egin diren froga guztiek teknika hori segurua dela baieztatzen dute. Eta horrela ziurtatzen du FDAk, guztiz seguruak diren ekipoak egiaztatzen dituen erakunde amerikarrak.

Ze tratamendu egin daitezke?

Aurpegi eta gorputz tratamenduak, baina zelulitisaren eta laranja azalaren aurkako eta gorputza modelatzeko tratamenduak dira nagusi.



“Lehenengo saiotik hasten dira sumatzen emaitzak; saio gutxirekin neurri jaitsiera igartzen da eta laranja azala desagertzen da”

Noiz hasten dira ikusten emaitzak?

Lehenengo saiotik ikusten dira emaitzak; saio batzuekin neurri jaitsiera igartzen da eta laranja azala desagertu egiten da. Bost astean, orain arte lortu ez diren emaitzak lortzen dira.

Zenbat saio behar dira?

Gutxienez hamar saio gomendatzen dira, astean bi saio. Tratamendua amaitu ondoren, hurrengo hilabeteetan emaitzak hobetuz doaz, irrati-frekuentziaren ondorioz sortutako kolagena dela-eta. Gero, hilean behin mantentze saio bat egitea gomendatzen da.

Zenbat irauten dute emaitzek?

ELOS teknologia dakarren irrati-frekuentziarekin, azal azpian kolagena sorterra suspertzen du. Horrela, emaitzen iraupena norberaren zahartze prozesu naturalaren eta mantentze saioen arababerakoa izango da.

Mingarria da?

Ez, tratamendu atsegingarria eta eraginkorra da.

Estetikan azken iraultza
VelaSmooth
irrati-frekuentzia + argia

Estetikan azken iraultza aurkezten dizu **Lirainek**

VelaSmooth

Modelatu zure gorputza teknologia berrienarekin

Pisua kentzeko, gorputza modelatzeko eta sendotzeko
tratamendua bilatzen ari bazara, **zatoz Lirainera.**

Debagoienean, **Lirainen bakarrik** aurkituko duzu **VelaSmooth**
teknologia berria.

Teknologia, edertasunaren menpe

LASER promozioa!

Besapeak + izterrendoak = 99 €

VELASMOOTH promozioa!

10 saioko txartela = 2 doan + mantentze krema

Eskaintza baliogarria maiatzaren 31 arte.

LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA
Bixente ferrer, 1 ARRASATE

Informa zaitez:

943 79 52 17

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> MUSIKA

Jonathan Richman, punkaren aita, zapatuan Arrasaten > 45



> KOMUNIKAZIOA

Internet: hauteskundeetan ezinbesteko erreminta > 51

> SAIOA

TEJEIRO

Bartzelonara joan zen Moda Diseinua ikastera. Orain, lagun baten enpresan ari da. BECen egin berri duten lehiaketa baten finalista geratu da, 'Angustia' sortarekin > 50



'Mathilde maitatzeko moduak' ikuskizuna bihar Elgetan, 22:30ean

Julen Gabiria idazlea eta Txuma Murugarren musikaria elkarlanean

Murugarrenen hamar kantu harilkatuta Gabiriak istorio bat kontatuko du, eta elkar osatzera etorriko dira musika eta hitzak

EDU MENDIBIL > ELGETA


Mathilde maitatzeko moduak Julen Gabiria idazleak eta Txuma Murugarren musikariak elkarrekin egindako ikuskizuna izango da bihar, zapatua, Elgetako Espaloia antzokian, 22:30ean.

Musika eta literatura uztartzen ditu ikuskizunak. Murugarrenen hamar kantu harilkatuta Gabiriak istorio bat kontatuko du, eta elkar osatzera etorriko dira musika eta hitzak. Mikel Iturria Donostiako Ernest Lluch kultur etxeko zuzendariak egindako enkargu batetik sortutako ikuskizuna da. Gabiriaren hitzetan, "musikari batekin zerbait egitera ea animatuko nintzatekeen galdetu zidan. Libre nuen musikaria aukeratzea eta *zerbait* hori edukiz betetzea. Txumak baiezkoa eman zuenean, prozesu luzea hasi genuen: haren abesti guztiak entzun, iradokitzen zutena interpretatu, giro bat imajinatu, hari narratiboa sortu eta, azkenik, abesti guztiak lotzea hari horren bitartez".

Mathilde maitatzeko moduak otsailaren 15ean estreinatu zuten Donostian eta Bartzelonan aurkeztu ondoren, Elgetako emanaldia hirugarrena da. Murugarrenen abesti ezagunak entzungo dituzte haren jarraitzaileak eta abestietako hitzak dira istorioaren zutabe nagusiak. "Nire kantuen irakurketa berria egin du Julenek. Kantuak berregin egingen dira besteen ikuspuntutik", dio Murugarrenek.

JOLASEAN

Gabiriaren arabera, kantuek giro berezia, gauekoa, apur bat enigmatikoa eskatzen zuten. Bulegoan lanean ari dela, gaztetako jolas batekin gogoratuko da narratzaileak (44. orrialdean jarraitzen du)



'Mathilde maitatzeko moduak' Elgetan

(43. orrialdetik dator)

batekin gogoratuko da narratzailea: kalean ikusitako neska bati jarraituko dio. Itxura batean, bere bizitzak ez du horrelako emozioen beharrik, baina kalean aurkitutako lehenengo neska-
ren atzetik hasten da. Horrelako batean, neskari agenda jausiko zaio lurrera. Narratzaileak jaso eta bertan azaltzen diren telefono batzuetara deituko du, neska-
ri buruz gehiago jakiteko asmoz. Neska horren eta narratzailearen ikuspegi erreala emango diguten deklarazioak entzungo ditugu. Murugarrenekin eta Gabiriarekin batera, bi musikari arituko dira zapatuan Elgetan: Rafa Aceves pianista eta Natxo Beltran bateria.

MATHILDEREN MISTERIOA

Eta nor da Mathilde? Zein da atzerantz begira dabilen neska hori? Gabiriak hauke dio: "Inork izatekotan, neskak du misteriorik gehiena istorio honetan. Baina horren azalpena oso simplea da: norbaiten atzetik joatea erabakitzen baduzu, eta kaleko edozein aukeratzen baduzu, ematen duzun pauso bakoitzeko gehiago jakin nahi izango duzu pertsona horri buruz, zergatik sartu den denda horretara, zergatik duen hainbesteko presa, zergatik doan hain lasai... Eta narratzaileak



'MATHILDE MAITATZEKO MODUAK' Ikuskizuna Donostian estreinatu zuten, otsailean. Hirugarren emanaldia da biharkoa. Irudian, Txuma Murugarren.

misterio horri eutsi nahi dio, baina, era berean, jakin nahiko du nor den neska hori. Amaieran istorioa biribildu egiten da nolabait esateko: hasierako eta amaierako muturrak elkartu egiten dira eta sorpresa egongo da".

Tartean zenbait pertsona ibiliko dira narrazioan sartu-irtenean: "Beharbada orain nire testuan agertuko dira eta 20 minutu geroago Txumaren abesti batean agertuko dira pertsonaia horiek edo beste elementuren bat. Eta osatu

egingo dira azkenean Txumaren kantuak eta nire kontuak. Baina nire parte ez da Txumaren partearen laburpena edo alderantziz. Are gehiago: Txumaren musika ez da, beste ikuskizun batzuetan gertatzen den bezala,

testuaren atsedeneleku edo maku-lu. Txumaren musika nire testua bezain inportantea da, eta entzuleak adi egon beharko du, informazioa edonoiz etor daiteke eta". Adi, beraz, Elgetan Mathilderen pista jarraitzean...

EGURREZKO ETXEAK

50 etxe mota baino gehiago 24.500 €-tik aurrera.
Hotelak neurrira ere egiten ditugu.



175 m²



150 m²



51,71 m²



Serge Pletinckx
IGELTSEITZA

Tel.: 607 957 911
610 735 223

www.polandcasa.com



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Jonathan Richmanek, punkaren aitak, doinu lasaiak eskainiko ditu Amaian

A black and white portrait of a man with dark, curly hair and a light beard. He is wearing a dark t-shirt and a guitar strap is visible over his right shoulder. He is looking directly at the camera with a serious expression. The background is a bright, cloudy sky.

KANTU LASAIK Doinu rockeroagoetatik musika lasaiagoa egitera pasa zen aspaldi Modern Loversko sortzailea. **BIZZ EKOIZPENAK**

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

IMMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
 Tel. / Faxa: 943 76 97 97
 www.inmkorosti.com
ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Ibargarai 74 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzea.
- San Pedro 110 m². Estreinatzeko.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Aranerreka 87 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Ondo.
- Zubietia 60 m². Prezio ona.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 60 m². Berritua.

Elgeta:

- Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza, Bista politak.
- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA
GARAIA
IMMOBILIARIA
Teleforo Aranzadi 2
 T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Bidekurutzeta, 82 m², ia berria
- Arizuri, 97 m², oso ondo
- Juan XXIII, 80 m², berritua
- Masterreka, 87 m², oso ondo
- Aranerreka, 88 m², aukera ona
- Bidekurutzeta, 60 m², oso ondo
- Zubiaurre, 60 m², aukera ona
- Burdinate, 60 m², garajearekin
- Erdialdean, 200 m², aukera ona
- Ibargarai, 80 m², ondo
- Artekale, 62 m², oso ondo
- Barrenkale, 40 m², berritua
- Artekale, 158 m², duplexa
- Mugertza, 60 m², berria
- San Lorenzo, 18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.

SORALUZE

- Gabolatx, 65 m², oso ondo
- Atxuri, 93 m², oso ondo.
- Baltegieta, 87 m², ia berria.

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.
 PREZIO BEREZIA: EGBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).
 GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeko. 607 79 00 37.

Arrasate. Apartamentua salgai. Arimazubin. Prezio onean eta guztiz berrituta. Telefonoa: 687 83 97 37.

Bergara. Baserria salgai. Berrituta. 350.000 euro. Telefonoa: 660 04 58 60.

Bergara. Boni Laskurainen 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Erdia moldatua. Bizitzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

Bergara. Etxea salgai Simon Arrietan. 57 m², bi logela. Trastelekuarekin eta igogailuarekin. Deitu telefonoa honetara: 649 63 11 74.

Bergara. Etxea salgai Zubiaurren. Berogailu eta ganbarekin. Deitu telefonoa honetara: 619 41 39 72.

Bergara. Etxea salgai. 40 m², igogailuarekin. Garajea aukeran. Deitu telefonoa honetara: 687 97 64 55.

Bergara. Etxebizitza salgai San Josepe auzoan. 58 metro koadro. 2 logela, bainugela, egongela, sukaldea eta trastelekua. Igogailu eta berogailuarekin. Guztia berriztatua. Telefonoa: 667 53 70 00.

Bergara. Koldo Eleizalde kalean. 97 metro koadro. Hiru logela, eguzkitsua eta bista ederrak

ditu. Garajea du. Deitu telefonoa honetara: 655 71 03 23.

Bergara. Zabalotegin etxebizitza salgai. Berritua eta jantzitza. 615 79 41 02.

Bergara. Zubiaurren etxebizitza salgai. Berritua. Berogailua eta ganbara ditu. 619 41 39 72.

Bergara. Zubietan etxea salgai. Eguzkitsua, prezio interesgarria. 679 45 57 62.

Elgoibarren etxebizitza salgai, jantzitza, 70 m², 2 komun eta 2 gela. Solariuma. 36.000.000 pta. 662 42 27 01.

Mijas Costa. Luxuzko urbanizazioan etxea salgai edo errentan. 73 m², terraza handia, igerileku eta garajearekin. Aukera paregabea. 617 41 49 14.

Oñati. Apartamentua salgai San Lorenzo auzoan. Saloi-sukaldea eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Oñati. Aurretik eraikiko den etxe berri baten duplexa salgai. 110 m². Lau logela, sukaldea, egongela, bi komun eta garajea. 670 85 85 41.

Oñati. Etxea salgai San Lorentzon. 656 74 80 47.

Oñati. Etxea salgai Ugarkalde auzoan. Berria, 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta terraza. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. Lehen bait lehen saltzeko premia. 670 27 45 82.

Oñati. Ugarkalden 1. eskuko etxebizitza salgai: 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta

terrazza handiak. Oso eguzkitsuak. 649 44 60 92 edo 645 71 98 84.

Soraluze. Bi logela, sukaldea eta komun. 80.000 euro. Telefonoa: 943 77 21 18.

103. ERRENTAN EMAN

Aguilas (Murcia). Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainua. Hondartza 300 metrora. Prezio onean. 656 25 86 44 edo 656 25 86 44.

Alcoceber. Estudioa alokagai daukat Alcoceberren. Telefonoa: 646 31 36 27.

Aretxabaleta. Etxebizitza errentan ematen da. 651 70 79 96.

Arrasate. Logela bat errentan ematen da unibertsitatei gertu. Zintzotasuna eskatzen da. 665 13 31 10.

Benidorm. Apartamentua ematen dut errentan. Hondartzatik gertu, lehen lerroan. Marisa. 685 72 39 55.

Cauterets. Apartamentua ematen dut errentan. Frantziako Pirinioetan. Goi mailako trekkinga; txirindularitza; Vignemale; Gabarnie; Tourmalet, Luz, Hautacam. 625 70 61 91.

Conil. Etxebizitza ematen dut errentan Conilen, Palmarren. Hondartzatik 30 metrora eta merke. 661 90 27 11.

Donostia. Irailetik ekainera. Berritua. Hiru logela. Telefonoa: 669 26 02 03.

Ezcaray. Urbanizazio batean

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.
 PREZIO BEREZIA: EGBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).
 GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

BERGARA

Biltegi baten lan egiteko gaztea behar da. fenwicha erabiltzea eta euskaraz jakitea ezinbestekoa.
656 72 04 31

DEBAGOIENA

ORANGEK komertziala behar du. Interesatuok bidali CV eibar@onjoy.es

kairuan hartuko litzateke irailetik urtarilaren bukaera arte. 943 71 31 37.

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Ekainetik aurrera. 653 70 50 68 edo 650 93 96 93.

Debagoiena. Neska gaztea etxebizitza osatzeko gertu. 678 28 63 07.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai San Lorentzon. 943 76 40 05.

Bergara. Garaje itxia salgai Zubiaurren. 37 metro koadro. Deitu telefonoa honetara: 606 65 97 82.

Bergara. Garajea errentan ematen da Ibargarai kalean. Telefonoa: 943 76 23 53.

Bergara. Garajea salgai San Antonion. 21 m², bi altuera. 21.000 euro. Deitu telefonoa honetara: 619 65 10 87.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. 108 m²-ko garaje itxia alokatzen da. Trastelekua, garajea... Zubiaurren. Deitu telefonoa honetara: 943 76 23 53.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Oñati. Lokala salgai San Lorentzo auzoan. 605 77 15 13 edo 605 71 84 94.

304. ERRENTAN HARTU

Oñati. Lokal bat hartuko nuke errentan. 688 61 89 98.

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

KAZETARIA

kontratatu nahi du bertako hedabideetan aritzeko

Eskatzen da:

- Euskaraz idazten maila ona izatea.
- Ordenagailuak erabiltzen jakitea.
- Gidatzeko baimena eta autoa edukitzea.

Eskaintzen da:

- Lan kontratua.
- Etorbizun handiko proiektuetan parte hartzea.
- Lanpostua lortzen ez duenak Goiena multimedia enpresaren (prentsa idatzia, irratia, telebista eta telematika) lan-poltsa osatuko du.

Interesatuok bidali curriculum, 2007ko ekainaren 6a baino lehen, ondoko helbidera:
 Goiena Komunikazio Zerbitzuak
 Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
 edo adm1@goiena.com

Goiena
 Komunikazio Zerbitzuak

EMUN
 LAN EUSKALDUNEN KOOPTATIA

Aurretik 10.urteurrena beteko duen EMUN KOOP. E.k, lan munduan euskararen normalizazioan diharduen enpresak, pertsonal premiak asetzeko eta lan poltsa osatzeko honako hau behar du:

EUSKARA PLANAK GARATZEKO HIZKUNTZA TEKNIKARIKAK

- Euskararen normalizazioan esperientzia edota euskalgintzan esperientzia izatea nahitaezkoa da.
- Honez gain, komunikatzeko gaitasunak eta taldeak dinamizatze gaitasunak bezalako konpetentziak kontuan hartuko dira.

Curriculum eta argazkia ekainaren 12a baino lehen bidali honako helbide honetara. Probak uztailaren 9an egingo dira eta hautatutakoek bakarrik deituko zaie.

EMUN KOOP. E.
Gaia: Lan poltsarako curriculum
227 POSTA KUTXA
URIBURU 9, BEHEA
20500 ARRASATE (GIPUZKOA)

E-POSTA: emun@emun.com
TEL.: 943 711847

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo sukaldari laguntzaile egingo nuke lan. 656 66 49 75 edo 659 71 68 93.

Debagoiena. Neska gaztea lan bila dabil, orduka lan egiteko. 666 67 84 21.

Debagoiena. Ostalaritzan edo pertsona nagusiak zaintzen egingo nuke lan. 666 08 58 49.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Aste bukaerak barne. 610 36 99 06.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. DBH2ko ikasle batek eskola partikularrak jasoko litzuke, ahal bezain laster. Telefonoa: 943 79 89 96.

502. EMAN

Bergara. Emakume euskalduna Uztailaren eskola partikularrak emateko prest (DBH 4.maila arte). 635 75 39 51.

Bergara Uztailaren eskola partikularrak emango ditut. Batxilergo mailako 2. mailara arte; eta ingelesezko eskolak ere emango ditut. 652 73 12 56.

Oñati. Magisteritzan diplomatu batek eskola partikularrak emango litzuke uztailaren. 666 21 73 48.

6/ MOTORRA

601. SALDU

KTM EXE 200 motorra salgai. 2005ekoa. Matrikulatua. Oso egoera onean. Plastikoki bategin. Aire filtro bat. 3.800 euro. 635 74 09 70.

Kia Carnival CRDI IX 2.9 salgai. 144 ZP. 2004koa. 3 urte. 89.000 km. Prezioa: 17.000 euro. Oihana. 653 01 41 68.

Mobilette GAC 49 cc salgai. Matrikulatuta dago. Oso egoera onean dago, erabiltzen ez baitugu. 659 18 20 45.

Opel Astra salgai. 1.200 euro. 1991koa. 180.000 km ditu. 620 53 83 27.

Peugeot 206 XT salgai. 1.9. 70 ZP. 2001ekoa. Urdin argia. Egoera onean. 636 04 07 54.

Trialerako motorra salgai. 1.600. 690 81 64 39.

VW California. 1996. urtekoa. 636 28 00 07.

602. EROSI

Golf IV edo A3 TDI autoa erosi nuke. 3 atekoa. Beltza edo gris iluna. Gehienez 140.000 km. 646 80 21 96.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Abantzea. 4,10 metroko karabana batentzako abantzea salgai. Negu eta udarako. Oso egoera onean. 250 euro. Telefonoa: 696 54 57 28.

Altzariak saltzen ditut, bigarren eskukoak. Armairuak, alfonbrak, lanparak... Egoera onean. 689 21 72 08.

Autokarabana autokarabana salgai. 2006ko otsailekoa. TDI 130 zp. 23.000 km. Telefonoa: 667 41 20 33.

Automobileko kutxa salgai. Prezioa: 50 euro. 695 70 58 33.

Bergara. Lur-saila salgai. Oso egokia bordaxo bat egiteko. 18.000koa da. 678 72 75 72.

Bizikleta salgai. Euskaltel-Euskaditaldearen erreplika. Orbea Arin. Neurria: 54. Dura-Ace osagaiak, Ksyrium SL gurpilak. 1.700 euro. 656 76 89 44.

Kanpin denda salgai. Boomerang markakoa. 2.gela eta halla. 2006koa da. oso ondo zaindua. 699 86 29 93.

Kanpin denda salgai. Hiru gela eta luzapena ditu. Prezioa: 160 euro. 667 70 18 01.

Karabana salgai. Oso prezio onean. 687 52 27 42.

Piragua. Prijon markakoa. 635 75 70 18.

Ume-kotxearen kapota salgai. Hiru hilabetetan bakarrik erabili da. Bebe confort etxekoa. Prezioa: 125 euro. 943 76 71 21 edo 695 70 58 33.

802. EROSI

Aulki bat erosiko nuke bizikletan umea erateko. Iker. 626 71 98 16.

Txanpon eta bankuko billete zaharrak erosten eta saltzen ditut. 688 61 85 02.

806. GALDU

Bergara. Motxila eta kontsola-kortzi joko galdu ditut Espoioan. 659 05 63 82.

Oñati. Urrezko belarritako bat, perla txuria eta zirkonita batekin, galdu nuen hil honetako 14an Oñatiko Udaletxe inguruan. 628 77 98 78.

807. AURKITU

Patinetea aurkitu nuen Bergarako espolioan. 666 21 57 72.

808. BESTELAKOAK

Bateria joko nuke dantzaldi-tan aritzen den talde batean. Beste proiektu zintzoren baten ere joko nuke. 687 58 65 69.



T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Baltzuaren estatutuen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2007ko ekainaren 20an egingo da, 18:00etan lehen deialdian eta, hala balegokio, 18:30ean bigarren deialdian, Bergarako San Martin Plazako UNEDeko Areto Nagusian (Plazako atetik sartuz).

GAI ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen txostena irakurtzea
3. 2006/07 ikasturteko memoria
4. 2007/08 ikasturteko egitasmoa
5. 2006. urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea
6. Soberakinen banaketa
7. 2007. urteko aldizkako kuoten onarpena
8. Artezkaritza Kontseiluko eta Zaintza batzordeko kide berriak hautatzea
8. Galde-erantzunak

Bergaran, 2007ko maiatzaren 3an

Angel Mari Eguren Ugalde
Lehendakaria



Sergio eta **Raquel** zapatuan, hilaren 26an, ezkonduko dira Eskoriatzako Mazmela auzoan. Ezkondutakoen *bandora* pasatzeko erabakia hartuko duzuen honetan, zorionak, familiako-en eta lagunen partetik.



Eskoriatzako **Rafael Oiartzabal** eta **Asun Zubia** ezkondu zirela 25 urte bete ziren maiatzaren 22an. Zilarrezko ezteietan, zorionak, bikote, eta urte askotarako, familiakoen eta lagunen partetik. Laztan handi bana.



Nahia Odriozola eta **Iban Bengoa** joan zen zapatuan, maiatzaren 19an, ezkondu ziren, Monterronen, Arrasaten. Eztei bidaian ondo pasatzea opa diegu lagun guztiok. Zorionak, bikote.



Agapito Gardoki eta **Ines Beitia** aramaioarrak 1957ko maiatzaren 25ean ezkondu ziren, Aramaion. Urrezko ezteiak bete dituzten honetan, zorionak, bikote, familia guztiaren partetik!



Sonia Mateos eta **Sergio Quiros** zapatuan, maiatzaren 19an, ezkonduko dira Oñatiko udaletxean. Gero bazkaria egingo dute Zelai Zabal jatetxean. Bidaian Puerto Ricora joango dira. Zorionak, iloba Naia eta Maialenen partetik.



Iratxe Merchante aretxabaletarra eta **Zigor Txurruka** mendararra joan zen zapatuan, hilak 19, ezkondu ziren Arantzazuko basilizan. Orain, Vietnam eta Bali aldean dabilta bidaian. Ondo-ondo pasa, bikote, eta zoriontsuak izan, lagunen partetik.

hildakoak

- **Jose Manuel Santillana del Barrio.** Arrasaten, maiatzaren 10ean. 68 urte.
- **Marcelina Oianguren Kortabarria.** Bergaran, maiatzaren 17an. 89 urte.
- **Segunda Rodrigo Saez.** Arrasaten, maiatzaren 18an. 97 urte.
- **Inocencia Olaizola Soraluze.** Bergaran, maiatzaren 19an. 91 urte.
- **Rafael Ortiz de Landaluze Egia.** Arrasaten, maiatzaren 20an. 91 urte.
- **Daniel Buendia Martinez.** Arrasaten, maiatzaren 20an. 82 urte.
- **Emilio Almeida Matellanes.** Arrasaten, maiatzaren 20an. 69 urte.
- **Tomas Muxika Jauregi.** Bergaran, maiatzaren 22an. 86 urte.
- **Domingo Lizarralde Lizarralde.** Antzuolan, maiatzaren 22an. 74 urte.

ESKER ONA

Miren Galarza Zulueta

Oñatin hil zen 2007ko maiatzaren 16an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2007ko maiatzaren 25ean.

ESKER ONA

Maria Teresa Alberdi Urquia

Bergaran hil zen 2007ko maiatzaren 8an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2007ko maiatzaren 25ean.

III. URTEURRENA

Sally Elder

Hirugarren urteurrena
—
Nahiz eta utzi duzun hutsunea izugarria izan, gure barruan zurekin bizitako guztia daramagu

Zure familia

ESKER ONA

Antonio Osinaga Agirre

Bergaran hil zen 2007ko maiatzaren 15an, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2007ko maiatzaren 25ean.

URTEURRENA

Dominga Leanizbarrutia Cortabarria

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 27an, 11:30etan, Galartzako Santa Luzia elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

OROILLORE

Hileta eta beilatoki zerbitzuak

Momentu txar horietan sortzen diren galdera, kezka eta arazo guztiei aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxe: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

II. URTEURRENA

Jose Luis Atxaga Romaratezabala

Bigarren urteurreneko meza martitzenean, maiatzaren 29an, 19:00etan, Aretxabaletako Agustindarren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Inaxio Madinabeitia Guridi


Lehen urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 26an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.


bila-bila 7



hitz gezidunak

	Galtzak	▼	Nafarroako herria	▼	Putrea	▼	Zuhaitz mota
	Asiako penintsula						
	▶		▼		▼		
	Basapiztia mota	▶					
	Amerizioa						
Arrain mota	▼	* Irudiko aberea	▶	▼			
Europako estatua			▼				
▶							
Idi, hitz elkartzeetan	▶		Abesti	▶			▼
Bururatu			Sodioa				
▶			▼	Röntgen	▶	Iridioa	▶
				Eztainua		Osmioa	
Egokierak, paradak	▶			▼		▼	
Juntagailua							
▶			Jakina!	▶			

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

Bonboi partiketa

Matematika ordua da eta Karmele andereñoak honako ariketa hau jarri dio Patxikuri:
- Ea, Patxiku, adi entzun.
Zuk hamasei bonboi dituzu eta zure anaiarekin partitu behar dituzu. Zenbat emango dizkiozu?
- Lau!
- Patxiku, mesedez, ez al dakizu zatiketak egiten edo?
- Nik bai, baina nire anaiak ez.

Hegan

- Zuek ba al dakizue nola orientatzen diren Tolosako hegazkin pilotoak?
- (!!!)
- Errepideetako seinaleak irakurriz!

sudokua

	9			1			5
		4	8		2	9	
3				5			7
	2						6
6			4	9	3		1
	3						4
2				4			8
		5	2		1	6	
	4			7			9

hieroglifoa

Egonezina




hizki salda

5 narrastiren izenak

S	Z	B	H	U	G	B	J	A
U	U	B	A	S	A	K	A	L
G	E	A	A	R	A	I	R	I
A	N	U	E	R	R	O	I	D
N	A	A	R	G	K	E	N	N
D	S	E	A	B	U	T	D	A
O	N	G	B	E	I	S	O	G
A	L	O	K	A	R	A	K	U
A	I	B	A	I	R	A	E	S

soluzioak



I	K	S	O	N		A	T	E
K	A	O	I	S	A	K	O	
R	I		R	N	I	G	E	
U	T	N	A	K		T	I	
	A	I	N	A	M	E	L	A
A	R	R	E	A	K	A		A
I	R	I	Z	A				
A	I	B	A	R	A			
S		A		P				

2	6	5	8	7	6	3	4	1
4	7	9	1	3	2	5	8	6
8	3	1	6	4	5	7	9	2
5	4	8	9	2	1	6	3	7
1	2	7	3	6	4	8	5	9
6	9	3	5	8	7	1	2	4
7	8	2	4	5	6	9	1	3
3	1	6	2	9	8	4	7	5
6	5	4	7	1	3	2	6	8

Jeroglifikoak: Ipurterre.

S	E	A	R	A	I	B	A	A	I	A
U	K	A	R	A	K	A	L	O	K	A
G	O	I	E	B	E	G	N	O		
V	D	T	B	A	V	S	D			
A	N	E	G	N	R	A	N			
I	D	O	R	O	E	U	A			
I	R	A	I	R	A	E	G			
L	A	K	A	S	V	B	U			
A	J	G	U	H	B	Z	S			

bono fotoa



Elgetak bost herrirekin egiten du muga; hiru Gipuzkokoak eta bi Bizkaikoak. Zeintzuk dira?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoroberezibar



Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Scottex komuneko papera

12 erroilu + 4 doan

2,99 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako ROSARIO GOENETXEArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Oro auzoa.



Zure nahiak eta ahalmenak gertutik landu eta garatu nahi dituzu ?

Etorkizunerako prestakuntza eguneratua jaso nahi duzu ?


Bi urte barru zure inguruko enpresa batean lan egin nahi duzu ?

Bidal ezazu SMSa imaltuna hitzarekin 5533ra eta hori egia bihurtzeko informazio guztia zure mugikorrean izango duzu.

Horretaz gain hori egitean, lau **SMStako bonoa nahi diozunari bidaltzeko **oparituko** dizkizugu.**

AURREMATRIKULA DATA: Ekainaren 1etik 7ra.

GLHBI Miguel Altuna
Ibargarai, 1. 20570 Bergara
Tfnoa.: 943 76 38 40/943 76 24 91
www.imaltuna.com
e-mail: imaltuna@sarenet.es



* Zure mugikorrak GPRS aktibatuturik izan behar du, zenbaki bakoitzak behin bakarrik parte hartuko du eta sustapenaren muga 5.000 SMS izango dira.

Chevrolet Captiva berria.

Begirada guztien gunea.



CAPTIVA Captiva Chevrolet berria, bost edo zazpi jarlekurekin. ESa barne daukan ekipamendua, autoa ez iraultzeko kontrola, balaztatze asistentzia, jaitsiera kontrola, 6 aire-poltsa, aire-girogailu automatikoa, cruise kontrola, argi sentsorea, aparkatze sentsorea, MP3a duen CDa. 18"-ko hagunak eta Urre Zerbitzu eskusiboa. (bertsioen arabeko ekipamendua).

CHEVROLET CAPTIVA BERRIA
150 ZP-ko diesel motorra
136 ZP eta 230 ZP-ko gasolinazko motorrak
23.800 €-tik aurrera

ES MÁS.



Giauto

www.giauto.es
clientes@giauto.es

EIBAR
Otaola, 27
943 202 500

OLABERRIA
Karobi Ind.
943 885 150

salmentak: 902 345 225
tailerra: 902 345 235

Saioa Tejeiro > Moda Diseinua ikasten ari da

"Nik sortzen dudan arropa kurbadun emakumeek janztea gustatzen zait"

Saioa Tejeiro aretxabaletarra Bartzelonan bizi da azken lau urteetan. Oinarrizko ikasketak

amaitu zituenean, Moda Diseinu ikasketak egiteko aukera izan zuen. Horretarako, Bar-

tzelonara joan zen aretxabale-
tarra. Orain, lagun baten enpre-
san ari da praktikak egiten. Gai-

nera, BECen egin berri duten
lehiaketa baten finalista gera-
tu da, 'Angustia' sortarekin.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA
Bartzelonatik joan-etorria egin du Tejeiok asteon. Azken lau urteetan Bartzelonan bizi den arren, sarritan etortzen da Aretxabaleta-
ra, lagunekin eta familiarekin ego-
tera. Moda diseinuan dituen ame-
tsen gainean egin dugu berba.

**BECen MercaBilbaok antola-
tutako moda lehiaketan fina-
lista izan zara. Zer aurkeztu
duzu?**

Hiru estilismo aurkeztu behar izan genituen; hau da, hiru modelo jantzi ezberdinekin. Bati soinekoa eta xal bat jarri nion, beste bati soinekoa eta berokia eta hirugarrenari jakatxo bat, alkandorarekin eta prakekin. Nire sortari *Angustia* izena jarri diot, baina BECen nire izenarekin aurkeztu zuten desfilea. Guztira, 70 sorta izan ziren lehiaketan: neska, mutila eta umeen sortak. Emakumeenak 54 ziren; horietatik 18 finalera iritsi ginen. Lehenengoari 5.000 euroko saria eman zioten. Estatu mailara zuzendutako lehiaketa izan zen.

Orain egin dugun desfilea eskolako proiektua izan da; gure eskolatik 23 lagun aurkeztu gara. Guk diseinatu, patroia egin eta tela moztu dugu, eta gero, jostun bati eraman diogu, hark josteko. Bestela, ez dugu amaitzeko denborarik izaten...


**Nori zuzendutako jantziak
egin dituzu?**

Modernoak; emakume gazte-
ari zuzendua, 20-35 urte bitarteko emakumei. Inspirazioa non aurkitzen dudana? Hau, adibidez, angustia, beldurra..., sentimendu horietan inspiratuta dago. Garai txar baten harrapatu ninduen, eta, nire sentimenduak azaleratu nituen. Beldurra azaleratu nuen. Bestalde, gure traje tradizionalen ere oinarritu dut nire sorta; soinekoetan erabiltzen diren telak erabili ditut, eta baita abarkak eta xalak ere.

Diseinatzeko orduan, momentuan bizi duzun egoera pertsonalak eragin handia izaten du.

**Zergatik erabaki zenuen Moda
Diseinua ikastea?**

Betidanik gustatu izan zait. Txikitan, etxean, izarak hartzen nituen eta soineko ezberdinak egiten aritzen nintzen. Nire ahizpa gaztea janzen nuen; eta panpinekin ere aritzen nintzen. Gustuko nuen, eta, beraz, hori ikastea erabaki nuen. Gaur egun aukera handia dago diseinua ikasteko, Bartzelonan batez ere.



GOIENKARIA

PERTSONALA

Herria: Aretxabaleta. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak:** Moda Diseinua. **Zaletasunak:** Lagunekin egotea, mutilarekin egotea eta musika. **Badaukazu maniarik?** Ez dakit, orain ez zait bat bera ere burura etortzen. **Gomendatzeko moduko film bat?** Azkena ikusi

dudana, *María Antonieta*, asko gustatu zait. **Inoiz ahaztuko ez duzun bidaia:** Italiara Aste Santuan egin nuen bidaia. **Kolore bat:** Beltza; nire jantzi-
tan asko errepikatzen den kolorea da. **Gustuko duzun jakia?** Entsaladak asko gustatzen zaizkit.

Eskolan denetarik ikasten dugu: marrazkiak, ilustrazioak, josi, patroiak egin... Ehungintzan, ehun ezberdinak lantzen ditugu, zerekin lanean ari garen jakiteko. Baita janzkeraren historia eta artearen historia.

**Erosle gisa, merkatuan bila-
tzen duzunak asetzen zaitu?**

Gauzak eta gauzak daude, baina uste dut merkatua globala dela. Diseinugile batek ondo funtzionatzeko duen zerbaite-
ratzen badu, beste guztiek erre-
pikatu egiten dute. Azkenean, gauza berdinak aurkitzen ditu-
gu denda guztietan.

**Nola ikusten duzu modak
gizartean duen eragina?**

Modak badauka bere eragina. Gu eskolan, adibidez, 36 neurri-
ko arropak egitera behartzen gai-
tuzte; izan ere, eskolan dagoen manikiak neurri hori du. Gero, zure marka daukazunean, zuk nahi duzun neurria egin dezake-
zu, baina, oraingoz, neurri txikie-
kin egiten dugu lan.

**Zer iruditzen zaizu modelo
argalei ibiltokian ateratzen ez
uztea?**

Ondo iruditzen zait. Gainera, arropa ez da ondo ikusten oso argal dagoen jendeak badarama. Nik neuk egiten dudana arropa-
rekin kurbadun jendeak desfila-
tzea gustatzen zait. Oso argalak diren modeloak makil bat beza-
la dira.

**Diseinu bat buruan duzunetik
errealitate izan arte, zenbat
denbora pasatzen da?**

Paperean marrazten duzunetik jantzia eskuan hartu arte, aldaketa asko izaten ditu jantziak. Lehenengo diseinatu egi-
ten duzu, gero patroia egiten da. Patroia eginda dagoenean, ehuna gainean jarri eta moztu egi-
ten da; eta, azkenik josi egiten da.

Denbora jantziaren arabera izaten da: txaketa batek hiru aste behar ditu; soineko luze batek, berriz, hilabete batzuk.

**Zein da zure diseinugile gus-
tukoena?**

Dior, adibidez, oso gustuko dut. Batzuetan, baina, urte bateko sorta gustatu arren, hurrengo urtekoa ez zait batere gusta-
tzen. Diseinugileari baino disei-
nuari ematen diot garrantzia.

Zer eramango da udan?

Hippya; lore asko, estanpa-
tuak, gona altuak...

Goiena.net

Debagoleneko albisteak

Sarrera

Antzuola

Aramaio

Aretxabaleta

Arrasate

Bergara

Elgeta

E

Hauteskundeak

Gaiak

Hauteskundeak 2007

Herri bakoitzeko alkategaiak, hautagaien zerrendak, aurreko urteetako emaitzak eta zenbait bideo bildu ditugu atal honetan.

Antzuola



INTERNET Sarea ezinbesteko erreminta bilakatu da hauteskundeak jarraitzeko.

GOIENKARIA

INTERNET > HAUTESKUNDEAK, 'ON-LINE'

Hauteskunde eguna 'Goiena.net'-en bitartez jarraitzeko aukera dago

'Goiena.net' atariak emaitzak jakin ahala sartuko ditu, eta Debagoieneko hauteskunde eguneko irudiak, bideoak-eta ere egongo dira egun osoan barrena

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Etzi, domekako hauteskunde eguneko datuei begira egongo dira hautagaiak, alderdi politikoak, komunikabideak eta herritar asko. Lehenengo eta behin, emaitzak izango dira albiste nagusia, eta horiek lehenbailehen jakiteko komunikabide egokiena Internet bihurtu da. Horrenbestez, hauteskundeak Internetez jarrai-

tzeko hainbat modu izango da etzi, hilaren 27an.

IBARREKO INFORMAZIOA

Goiena.net webguneak sail berezia izan du asteotan (www.goiena.net/gaiak/hauteskundeak). Oraingo udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeen gainean, hemendik eta domekara bitartean, informatzeko aukera dago oraindik bertan, besteak beste GOITBn egin diren saio berezien bideoekin eta protagonisten argazki guztiekin.

Bada, etzi, domeka, Debagoieneko emaitzak jakin ahala ipiniko dituzte Goiena.net-en; taulak ere egingo dituzte, oraingo eta aurreko udal hauteskundeen emaitzak konparatzeko; horrez gain, GOITBko albistegiekin egiten den moduan, egunean zehar gertatzen diren albisteen eta gora-beheren bideoak ipiniko dituzte;

zinegotzi hautatuen argazkiak ere izango dira eta abar.

Oro har, Debagoieneko hauteskunde egunaren nondik norako guztiak Goiena.net atarian izango dira, beste inon baino lehen.

FORU ALDUNDIAK

Bestelako aukerak ere egongo dira hauteskunde eguna Internetez jarraitu nahi dutenendako.

Hala, Gipuzkoako eta Arabako foru aldundien webguneetan informazioa ipintzen joango dira lortu ahala. Honako helbideetan lor daiteke: www.gipuzkoa.net/hauteskundeak eta <http://elecciones.alava.net>. Bietan, harpide egiteko eta emaitzak posta elektronikoz jasotzeko aukera dago. Udaletako eta Batzar Nagusietako emaitzez gain, Gipuzkoako webgunean, araudia, aurreko emaitzak, loturak-eta daude.

teknologia berriak

> EDUKIERA TXARTELAK

Samsung Electronics etxeak zortzi gigabyteko microSD txartela kaleratuko du datorren urtean

Orain arteko edukiera handiena duen microSD txartela garatu dute. Zortzi gigabyteko edukiera du. Hamasei megabyte segundoko irakurtzeko gaitasuna, eta sei megabyte idazteko orduan. Datorren urte erdialdean kaleratzeko asmoa dute. Oraindik ez dute salneurria zehaztu, baina duen memori edukiera ikusita ez da merkea izango.

Sakelako telefonoetan argazkiak, bideoak eta kantuak gordetzeko aukera paregabea, duen edukieragatik.



Txartel mota hori gehienetan poltsikoko telefonoetan erabiltzen da.

> TELEBISTA DIGITALA

TDT deskodetzailea barruan daraman hemeretzi hazbeteko Samsung Bordeaux LN19R71B telebista

Pasa den urtean pantaila lau telebista gehien saldu zituen ekoizlea da Samsung. Bordeaux gama izan zen salduena.

Bordeaux LN19R71B modeloarekin gama eguneratu dute. Bereizmen handiko hemeretzi hazbeteko pantaila. 1440x900, gehieneko bereizmena. DNIe prozesagailua eta TDT deskodetzailea ditu barruan. HDMI, VGA eta S-Video atakak ditu.

Salneurria: 297 euro



Deskodetzailea eta bestelako gailuekin konektatzeko atakak ditu.

> ERREPRODUZIGAILUAK

Haririk gabeko musika X-Fi teknologiarekin, Creatriveren Xmod wireless aparailuarekin

Transmisorea ordenagailura konektatzen da eta etxeko edozein gelatan musika entzun daiteke. Haririk gabe konektatzen da, eta, lau errezeptoreekin, oinarritzko paketeak erreproduzigailua eta errezeptore bat dakar (30 metrora entzun daiteke).

Creativeren esanetan, "Xmod wireless aparailuarekin, MP3 kantuek CDak baino soinu hobe dute.

Oinarritzko paketeak, errezeptore eta transmisorea, 148 euro balio du. Errezeptore gehigarri bakoitzak 75 euro balio du.



Ordenagailuarekin konektatuta etxeko edozein gelatan musika entzun ahal izateko pentsatuta dago.

Erantzun webgunean eta iPod bat irabazi!



Non dago kokatuta Arizmendi Ikastolako LANBIDE HEZIKETA?

www.arizmendi.ikastola.net/lanbide

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketa

Arizmendi
ikastola

berriak

> GOITB
‘Berbaire’ saioan
hauteskunde osteko
balorazioak

Hauteskundeen osteko balorazioak egingo dituzte *Berbaire* saioan datorren martitzenean, hilak 29, eta egunean, hilak 31. Gorka Etxabek zuzenduta, mahai-inguruak eskaintzen dituen saioan honako hauek izango dira gonbidatuak: Andoni Gartzia, Pello Urizar, Aitor Arantzabal, Oxel Erostarbe eta Ander Rodriguez. Haiek egingo dituzte, beraz, hauteskundeen osteko balorazioak.

> GOITB
Bi erreportaje ikusgai
'2x2' saioan datorren
astelehenean (21:45)

Tolosaldeko 28 Kanalak ekoiztutako 2x2 erreportaje saioa duela gutxi estreinatu zuten Goiena Telebistan. Datorren astelehenean, hilak 28, eskaniko dute saioa, 21:45ean. Batetik, marmelada ekologikoaren ekoizpena erakutsiko dizuete Abaltzisketako baserri bateko kideek, eta bestetik, Ibarretik Misoietara taldeak pobrezia-
ren inguruan egiten duen lana ikusi ahal izango duzue.

> ARRASATE IRRATIA
Hauteskunde saioak
domekan eta
astelehenean

Hautes-mahaiak itxi bezain pronto, Debagoieneko herri guztietako emaitzen berri jasotzeko bidea izango duzue. Zuzenean entzungo duzue, bada, GOITBk une horretan eskainiko duen saioa.

Horrez gain, asteleheneko *Igo autobusera!* saioan Arrasateko udal hauteskunde-
den biharamuna jasoko dugu. Zure iritzia ere gustura jasoko genuke; beraz, erabili 943 71 17 31 telefonoa.

> ARRASATE IRRATIA
Mundumira jaialdiko
kamisetak
eskuragarri

Ekainaren 1ean, 2an eta 3an izango da Aretxabaletan Mundumira jaialdia. Datorren astean, bada, *Igo autobusera!* saioan jasoko dugu Debagoienean hirugarren aldiz egingo den jaialdiaren berri.

Horrez gain, Mundumira jaialdiko elastikoak zozkatuko ditugu. Debagoieneko gobernu-
z kanpoko erakunde-
den aldeko kamisetak izango dira aurten ere. Irratiko zozketan parte hartu gura baduzu, *Igo autobusera!*

JAIK >EGUAZTENEAN (21:15)

Bergarako jaien gaine-
ko saio berezia eguaztenean

Ibarreko jaiak
hastearekin batera
hasiko dira GOITBn
jaien gaine-
ko saioak
eskaintzen

GOIENKARIA > ARRASATE
Debagoieneko jaiak hastearekin batera, GOITBn jaien inguruko saioak eskaintzen hasiko dira. Lehenengo txanda Bergarako Mendekoste jaiena izango da, eta, beraz, eguaztenean, hilak 30, 21:15ean eskainiko dute lehen saioa. Aurkezle lanetan Amaia Txintxurreta oñatiarra arituko da, eta harekin batera hainbat kolaboratzaile ere ikusiko dituzue. Bestalde, jaien gaine-
ko saioetarako kolaboratzaileak behar ditu GOITBk. Beraz, interesa baduzu deitu 943 71 23 96 telefonora edota idatzi *goitb@goiena.com* helbidera.



PAZKOAK Bergaran jaiak ospatuko dituzte gaurtik hasita.

GOIENKARIA

HAUTESKUNDEAK > DOMEKAN (19:45)

Hauteskundeetan gertatzen
denaren zuzeneko jarraipena
domekan GOITBn

GOIENKARIA >
Domekako hauteskunde-
den jarraipena egingo du Goiena Telebistak egunean bertan. Hauteskunde-
den inguruko saio berezia eskainiko dute, 19:45ean hasi eta 23:00ak bitartean. Aurkezle lanetan Goiatz Arana eta

Julen Iriondo arituko dira eta iritzi emaile lanetan, berriz, Mikel Lezamiz soziologoa eta beste hainbat aditu egongo dira GOITBko platoan. Goiena Telebistak, gainera, lehen aldiz, zuzeneko konexioak egingo ditu webcam bidez, eta hauteskun-

deen emaitzak zuzenean ikusi ahal izango dituzue. Zuzeneko konexio horiek honako herri hauetan egingo dira: Elgetan, Oñatin, Aretxabaletan eta Bergaran. Hauteskunde-
den inguruko saio berezi horretan, gainera, herrietako hautagaiak ikusiko ditugu botoa ematera joaten diren momentuan, herri inestak ere ikusi ahal izango dituzue, eta, hala, herritarren iritziak ere izango du tokia saio berezian. Eta, emaitzak jakin ostean, egune-
ko protagonistekin hitz egingo dute Goiena Telebistan.

telebegi

Leire Kortabarria

Propaganda eta publizitatea

Herria jakintsua da. Aspaldian ere, eguneroko hizketan, askok sinonimo bezala erabiltzen zituzten propaganda eta publizitate hitzak. Eta orain, sinonimo bihurtu dira.

Begiratu, bestela, hauteskunde kanpainak telebistan edo beste edozein mediotan. Programak gutxiene-
ko dira; alderdi politikoak eta hautagaiak produktu bihurtu dira, eslogan edo inpaktu bizkor eta sintetizatu bidez saltzen diren produktuak; diruarekin ez, baina botoekin erosten diren produktuak. Hautagaiak hitz bakarrarekin adieraz daitezkeen kontzeptuekin identifikatzen dituzte. Eta, telebistari dagokionean, garrantzitsuena hor egotea da, esaten dena baino gehiago. Itxura zaindu behar da, keinuak, segurtasuna eta norbere buruarekin konfiantza transmititu. Hori da, azken baten, ikusleak –hautesleak– gogoratuko duena.

Jakina, politikaren komertzializazio horrek ez du berdin funtzionatzen maila guztietan. Baina, herriotan ere, programa gutxiene-
ko da: gure bizilagunak dira bozkatu behar ditugunak.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.
Inazio Lakuntza Arrasateko alkatearekin, agintaldiaren balorazioa; GKEek antolatutako Elkartasun Eguna berbagai, Elisa Maiztegiarekin; Dunixen Royo, bitxigilea;...

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua
20:00 Hauteskundeak 2007

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Elkarteen geltokia
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

GOITBko
programazioa

Egubakoitza, 25
13:15Emisio hasiera. 13:20Marrakzi bizidunak: Calimero. 13:45Gaurkoak. 13:47 Hauteskundeak 07. 14:45Albiste aurrerapena. 15:15Musikantoi. 15:45Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15Eltze beroa 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45Gaurkoak. 17:47Erreortajea. 18:45Albisteak. 19:15 Erreortajea. 19:45Berriak. 20:15 Marrakzi bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15Teknopolis. 21:45Gaurkoak. 21:47 Hauteskundeak 07-Arrasate. 22:45Berriak. 23:15Ilunpean. 23:45Gaurkoak. 23:30Kirolari. 00:15Emisio amaiera.

Zapatua, 26
08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrakzi bizidunak: Boboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30Kirolari. 12:00 Astekoak. 12:15Klika. 12:45 Eltze beroa. 13:30 Didjeridu. 14:00 Ikusten. 14:30 Bergarako jaiak 06. 15:00 Musikantoi. 15:30Ur eta lur. 16:00 Didjeridu. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrakzi bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30Klip@. 20:00Ikusten. 20:30Erreortajea. 21:00Klika. 21:305+5. 22:00Astekoak. 22:15Klip@. 22:30Ilunpean. 23:00Didjeridu. 23:30Musikantoi. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 27
08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrakzi bizidunak: Calimero, Boboak eta Trikitraka trikitron. 11:00Ikusten. 11:30Musikantoi. 12:00Ur eta lur. 12:30Klip@. 13:00Kirolari.13:30Erreortajea. 14:00Didjeridu. 14:30Ilunpean. 15:00 Ikusmira.15:30 Marrakzi bizidunak. 18:00Kirolari. 18:30Ikusten. 19:00 Bergarako jaiak 06. 19:45 Hauteskundeak 07. 23:30Ilunpean. 00:00 Musikantoi.00:30Emisio amaiera

Astelehena, 28
13:15Emisio hasiera. 13:20Marrakzi bizidunak: Calimero.13:45Gaurkoak.13:47 Teknopolis.14:15 Ikusten.14:45Albiste aurrerapena.15:15Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Klika. 16:15Kirolari. 16:45 Albisteak.17:15 Calimero.17:45Gaurkoak.17:47Ur eta lur. 18:45Albisteak. 19:15 Erreortajea . 19:45Berriak. 20:15 Marrakzi bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15Harmaillatik. 21:45Gaurkoak. 21:47 2x2. 22:15Hasiberriak. 22:45Berriak. 23:15Didjeridu. 23:45Gaurkoak. 23:30Ikusmira. 00:15Emisio amaiera.

Martitzena,29
13:15Emisio hasiera. 13:20Marrakzi bizidunak: Boboak. 13:45Gaurkoak. 13:47 Harmaillatik. 14:152 x 2. 14:45Albiste aurrerapena. 15:15Eltze beroa.15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaia. 16:15Ikusmira 16:45 Albisteak. 17:15 Boboak.17:45Gaurkoak. 17:47Ilunpean. 18:15 Klika. 18:45Albisteak. 19:15 Harmaillatik. 19:45Berriak. 20:15 Marrakzi bizidunak: Boboak. 20:45Berriak. 21:15Berbaire. 21:45Gaurkoak. 21:47Erreortajea. 22:15Harmaillatik. 22:45Berriak. 23:15Klika. 23:45Gaurkoak. 23:30Musikantoi. 00:15Emisio amaiera.

Eguaztena,30
13:15Emisio hasiera. 13:20Marrakzi bizidunak: Calimero.13:45Gaurkoak.13:47 Berbaire.14:15Erreortajea. 14:45Albiste aurrerapena. 15:15Ur eta lur 15:45 Gaurkoak. 15:47Didjeridu. 16:15 Eltze beroa.16:45 Albisteak.17:15 Calimero.17:45Gaurkoak. 17:47Harmaillatik. 18:15Eltze beroa. 18:45Albisteak. 19:15 Teknopolis. 19:45Berriak. 20:15 Marrakzi bizidunak: Calimero.20:45 Berriak. 21:15Erreortajea. 21:45Gaurkoak. 21:47Bergarako jaiak 07.22:15Telesaia. 22:45Berriak. 23:15Berbaire. 23:45Gaurkoak. 23:30Ur eta lur. 00:15Emisio amaiera

Eguena,31
13:15Emisio hasiera. 13:20Marrakzi bizidunak: Boboak. 13:45Gaurkoak. 13:47 Begarako jaiak 07. 14:15Erreortajea. 14:45Albiste aurrerapena. 15:15Eltze beroa.15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaia. 16:15Ikusmira 16:45 Albisteak. 17:15 Boboak. 17:45Gaurkoak. 17:47Eltze beroa.18:15 Teknopolis. 18:45Albisteak.19:15 Klika. 19:45Berriak. 20:15 Marrakzi bizidunak: Boboak. 20:45Berriak. 21:15Berbaire. 21:45Gaurkoak. 21:47Musikantoi 22:15Didjeridu. 22:45Berriak. 23:152x2. 23:45Gaurkoak. 23:30Ilunpean. 00:15Emisio amaiera.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta SONY etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERME 2 URTE
1.850
X
598
X
600 mm
A

HOZKAILUA COMBI 5FAC-495

420 € 70.140 pta

aspes



BERME 2 URTE
1.700
X
600
X
600 mm
A

HOZKAILUA 4FE-01E41

320 € 53.440 pta

LYNX



BERME 2 URTE

ONTZI-GARBIGAILUA LJA-0140

275 € 45.925 pta

edesa



BERME 2 URTE

1.000 b/min
5 kgr.

GARBIGAILUA LA-110

305 € 50.935 pta

aspes



BERME 2 URTE

LABEA BITROZERAMIKA STA1410

LABEA eta BITROZERAMIKA INSTALATUTA

aspes

355 € 59.067 pta



BERME 2 URTE

AIRE EGOKITU PORTATILA FAP-2 CR HOTZA 2000 KCL/orduko

325 € 54.275 pta

FAGOR



BERME 2 URTE

AIRE EGOKITU PORTATILA ADR 66 HOTZA 2000 KCL/orduko

290 € 48.430 pta



"EVA" MAHAIA 110x70 zm

365 € 60.731 pta



TELEBISTA PHILIPS LCD 32" PF-5521

690 € 115.230 pta



BERME 2 URTE

TELEBISTA SANYO

ETIKETA ENERGETIKOA



Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxe: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

Ondo egindako lana

Zurekin

BOZKATU EA!!



**eusko
alkartasuna**

Ernesto Murgiondo

Maiatzak 25 ekainak 1

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguzteteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Bertso-bazkaria



OÑATI
> **Bertso-bazkaria Sustrai Colina eta Jon Maiarekin Portu tabernan**

Sustrai Colina eta Jon Maia bertsolariekin bertso-bazkaria antolatu du Oñatiko Gazte Asanbladak. Bihar, zapatua, izango da bazkaria, Portu tabernan. Bazkarirako txartelak 10 euro balio du.

Erakusketa



ARRASATE
> **Emakume etorkinak eta lana gai dituen argazki erakusketa ireki dute**

Emakumezkoen ekarpena ekonomian: agerikotik ikusezinezkora izeneko argazki erakusketa Emakume Txokoan dago ikusgai. Bertoko emakumeek zein etorkinek egiten dituzten lan motak eta baldintzak ikus daitezke. Hilaren 31ra arte.

Elkartasun jaia



ANTZUOLA
> **Anelkarrek elkartasun jaia egingo du domekan Zurrategi plazan**

Bidezko merkataritza postuak jarriko ditu Anelkar gobernuz kanpoko erakundeak domekan. Horrez gain, Oihulari Klown taldeak *Otiacicoch* delako emanaldia egingo du. Domekan izango da hori, 19:00etan hasita.

emango dituzte azalpenak, ikus-entzunezkoaren ondoren. Tartean, Mikel Sasiain aretxabaletarrak.

Hilaren 31n, eguena, 19:00etan, udaletxe zaharreko aretoan.

OÑATI
> **'Umeak komunikazioaren bidez estimulatuz' hitzaldia**
Joxe Amaiaga psikologo eta pedagogoa egingo du hitzaldia.

Hilaren 28an, eguaztena, 18:30ean, Lehen Hezkuntzako liburutegian.

Lehiaketak

BERGARA
> **Kirol argazkien lehiaketa deitu dute Udalak eta Pol-Polek**

Euskadin bizi den edozein zalek har dezake parte. Gaia kirola da eta zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu ahalko dira lanak. Lanak Bergarako udaletxera eroan daitezke edo postaz bidali: Udal Kirol Zerbitzua (argazki lehiaketa). San Martin plaza.
Irailaren 12a da mugaeguna.

ESKORIATZA
> **San Pedro jaietarako esaldi eta karte lehiaketa deitu ditu Udalak**

Esaldi lehiaketan 13 urtetik gorako edozein eskoriatzarrek har dezake parte, 3-5 lagun bitarteko taldeak sortuz. Esaldiok aurkeztu beharko dira hilaren 25etik ekainaren 3ra bitartean. Jaietako egitarauko azalaren kasuan, edonork har dezake parte. Kartelak derrigorrez eroan behar du: *2007ko San Pedro Jaiak, Eskoriatza*. Mugaeguna da ekainaren 1a.
Informazio gehiago kultura zerbitzuan.

ARRASATE
> **Indarkeria sexistaren kontra-ko diseinu lehiaketa**

Emakumeekiko Indarkeriaren Kontrako Plataformak deitu du eta kanpaina baten barruan dago. *Tratu egokien edo harreman duinen aldeko kanpaina* izendatu dute. Besteak beste, kamisetak aterako dituzte; hala, kamiseten diseinuaren lehiaketa deitu dute. Edonork har dezake parte. Freehand formatuan egin beharko da, eta CDan aurkeztu. Bestalde, leloa ere izan beharko du diseinuak. Hilaren 31 da mugaeguna.
Informazio gehiago: 943 79 41 39.

Ikastaroak

BERGARA
> **Beart taldeak margo eta marrazketa ikastaroa egingo du**
Uztailean izango da, 5 eta 13 urte artekoendako. 10:00etatik 12:00etara izango dira eskolak.
Izenematea: 626 73 38 79 (Ainhoa), 635 71 32 69 (Maite) eta 665 70 31 75 (Oihana).

Musika

ELGETA
> **'Mathilde maitatzeko moduak' emanaldia Espaloian**

Ikuskizunak musika eta literatura uztartzen ditu. Txuma Murugarren abeslariaren hamar abesti harilkatuta, Julen Gabiria idazleak istorio bat kontatuko du, eta elkar osatzera etorriko dira musika eta hitzak: Gabiriaren istorioak kontatzen ez diguna Murugarrenen kantuek kontatuko dute, eta alderantziz.
Bihar, zapatua, 22:30ean.

ARRASATE
> **Sin Red taldeak kontzertua egingo du**
Gure Leku tabernan egingo du emanaldia.
Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

ARRASATE
> **Los Coronas taldeak kontzertua egingo du**
The Longboards taldeak ere egingo du kontzertua.
Gaur, egubakoitza, 23:00etan, 3.60 aretoan.

ARRASATE
> **Dessert Festival delakoa 3.60 aretoan**
Waxy, Jinxremover eta Demon Cleaners taldeek jardungo dute.
Bihar, zapatua, 23:00etan.

ARRASATE
> **Jonathan Richmanek emanaldia egingo du**
Bostongo kantariak Amaia antzokian egingo du kontzertua.
Bihar, zapatua, 20:00etan.

OÑATI
> **Ma Non Troppo ganbera orkestraren kontzertua**
Musikegunak egitarauaren

barruko emanaldia da. Batik bat Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kide gazteek osatzen dute orkestra hori.
Etzi, domeka, 19:30ean, Santa Ana aretoan.

OÑATI
> **Aloña abesbatzak emanaldia egingo du**
Pake Leku erretiratuen egoitzak antolatu du emanaldia, Erretiratuen Astearen barruan.
Hilaren 28an, astelehena, 17:00etan, Pake Lekun.

Antzerkia

OÑATI
> **'El sargento calamidades' antzezlan**
Zumarragako erretiratuen antzerki taldeak egingo du emanaldi hori. Pake Lekuko

Erretiratuen Astearen barruan.
Ekainaren 1ean, 17:00etan, Santa Anan.

OÑATI
> **Panta Rhei taldeak 'Alaia' antzezlan egingo du**
Txotxongilo emanaldia da eta 3 eta 7 urte artekoei zuzenduta dago. Elkar Heziko Guraso elkarteak antolatu du.
Bihar, zapatua, 17:30ean, Santa Anan.

Hitzaldiak

OÑATI
> **'Envejecer con salud' delako hitzaldia**
Arriola mediku gerontologoak egingo du hitzaldi hori. Nagusilaneak antolatu du saioa Pake Lekuko Erretiratuen Astean.
Hilaren 29an, martitzena, 17:00etan, Pake Lekun.

PROPOSAMENA

BERGARA
> **Mendekoste jaiak ospatuko dituzte gaurtik martitzenera**

Gaur, barikua, hasiko dira jaiak, 20:00etan, Bitorianatxoren jaitsierarekin. Orduan irekiko dituzte barrakak eta baita txosnagunea ere. Hala, martitzenera artean askotariko musika, antzerki eta bestelako ikuskizunetz gozatzeko aukera izango da. Gaur, esaterako, Belceblues, Red House eta 12 Tribu taldeek kontzertua egingo dute Bideberrin, 22:30ean, eta 0,7 Cabriolas Y Diablitos taldeak su ikusizuna plazan, 23:30ean.
Gaur hasi eta martitzenera arte.



nire aukera



Iñaki Kortazar
Eskoriatzako Inkernu
tabernako tabernaria

"Aste bukaera bat
libre nahiko nuke"

Iñaki Kortazarrek bene-
tan nahi lukeena da aste
bukaera libre izan:
"Tabernan lan egin behar
izaten dut. Horrexegatik,
nire gustuko aste bukaera
da libre dudana", esan digu,
barren artean, Eskoriatzako
tabernariak.

Aste bukaera libre izanez
gero, zapatuan berandu arte
lo egitea gustatuko litzaioke-
ela azaldu digu. Hala, ondo
deskantsatu eta gero, "lagu-
nekin trago batzuk hartu eta
zuzeneko kontzertu on bat
entzutera joango nintzateke",
aitortu digu Kortazarrek. "Ez
dut, bada horrenbeste eska-
tzen, ez?", azpimarratu du.

**Tabernari lana oso lotua dela
entzuten da. Halaxe da?**
Bai, oso lotua da, barrako
orduetatik kanpo ere zeregin
asko daudelako. Baina lanerako
gogoa izanez gero, ez da astuna
egiten. Jendea zirrikatu, musika
jarri eta giro onean lan eginda,
ez da horren gogorra egiten!

Edateko edaririk gustukoena?
Eta zerbitzatzeko?
Neuretako San Miguel garagar-
doa; eta zerbitzatzeko, berriz,
sagardoa.

**Zer deritzozu Eskoriatzako
aisialdi eskaintzari?**
Bada non hobetu, batez ere
gazteendako aisialdi eskain-
tzan. Geu poliki-poliki bagoaz
erritmoa hartzen, eta hilero
prestatzen dugu kultura
egitaraua.

**Aitzorrotz baino mendi
ederragorik badago?**
Egon egongo da, baina ni
Aitzorrotzekin geratzen naiz,
aspaldi zapaldu ez dudan arren.

**Aste bukaera pasa Debagoie-
nera datorren bisitariari zer
erakutsiko zenioke?**
Ingurua, paisaiak... eta, nola ez,
geure arteko giro jatorra.

**Domekan, hauteskundeak.
Egin duzu kinielarik?**
Bai, EAE-ANV garaile. Xanpaina
freskatzen jarri dugu dagoene-
ko, eta alkatetza lortuz gero
gonbidapena eginda! Bueno,
eta bestela ere bai!

Zinema

ARAMAIO
KULTURA ETXEA

Balto, ordezko hegoak
Domeka: 17:00.

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA

El buen pastor
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Cariño estoy hecho un
perro
Domeka: 17:00.

La ciencia del sueño
Eguena: 20:30.

ELGETA
ESPALOA ANTZOKIA

Buenas noches, buena
suerte
Eguaztena: 21:30.

OÑATI
KULTURA ETXEA

Spiderman 3
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR
UNZAGA

Piratas del Caribe
Egubakoitza: 18:30, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00,
22:00.
Astelehena, martitzena eta
eguaztzena: 18:30, 22:00.

GASTEIZ
GURIDI

Piratas del Caribe en el
fin del mundo
16:15, 19:30, 22:30.

Dos rivales casi iguales
17:30, 20:00, 22:30.

Half Nelson
17:30, 20:00, 22:30.

Alta sociedad
18:15, 22:30.

Spiderman 3
17:00, 19:45, 22:30.

¿Quien dice que es facil?
17:30, 19:45, 22:30.

El novio de mi madre
16:00, 20:30.

Ellas&Ellos
18:15, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

El niño del barro
20:00.

Las alas de la vida
17:00. 20:45, 22:30.

El buen hombre
17:00, 19:45, 22:30.

La segunda noche de
bodas
17:00, 19:45, 22:30.

Una mujer invisible
17:00, 19:45, 22:30..

Zodiac
17:30, 20:30.

La maldicion de la flor
dorada
17:30, 22:30.

Borrachera de porder
17:30, 20:00, 22:30.

Candy
18:45.

ÁBACO-LAKUA
ZINEMAK

Piratas del Caribe en el
fin del mundo
16:00, 18:00, 19:30, 23:00

Ellas y ellos
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

El novio de mi madre
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Spiderman 3
16:00, 19:00, 23:00.

Los abandonados
23:00.

El numero 23
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Sunshine
16:00, 18:00.

Seduciendo a un extraño
18:15, 20:30, 23:00.

Shooter, el tirador
16:00, 19:00.

Descubriendo a los
Robinsons
16:00.

300
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz
eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.

YELMO
CINEPLEX-GORBEIA

Piratas del Caribe en el
fin del mundo
Egubakoitza eta zapatua:
16:30, 18:00, 20:00, 21:30,
23:30.
Domeka: 12:15.

Zodiac
Egubakoitza eta zapatua:
17:30, 20:45, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 19:10,
22:20.

Candy
20:05, 22:05, 00:00.

El retorno de los
malditos
18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Spiderman 3
12:15, 16:30, 17:30, 18:30.
19:30, 20:45, 22:30, 00:00.

Premonition
20:20, 22:20, 00:20.

El numero 23
20:15, 22:15, 00:15.

Cerdos salvajes
Egubakoitz eta zapatua: 15:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 21:45.

La telaraña de Carlota
12:15, 15:35, 17:35.

Un puente hacia
Terabithia
12:15, 16:10.

Tu la letra, yo la musica
12:15, 16:15, 18:15.

Azur&Asmar
12:15, 16:20, 18:20.

Shooter
19:35, 22:05, 00:35.

Seduciendo a un extraño
19:55, 22:15, 00:25.

Las vacaciones de Mr.
Bean
12:15, 16:05, 18:05.

Descubriendo a los
Robinsons
12:15, 15:50, 17:50.

Happy Feet
12:15.

La cosecha
12:45, 16:45, 18:45, 20:25,
00:05.

Gauerdiko saioak, egubakoitz
eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna
(jaiegunak izan ezik).

ÁBACO
BOULEVARD

Piratas del Caribe en el
fin del mundo
12:00, 15:50, 16:15, 19:05,
19:30, 22:25, 22:45.

Zodiac
Egubakoitza eta zapatua:
12:00, 16:00, 19:45, 23:00.
Domeka: 16:00, 19:05, 22:10.

El retorno de los
malditos
12:15, 16:20, 18:20, 20:20,
22:20.

Spiderman 3
Egubakoitza eta zapatua:
16:30, 19:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 16:20, 19:10,
22:00.

Retrato de una obsesion
Egubakoitza eta zapatua:
16:20, 19:10, 22:00.
Domeka: 12:00, 16:20, 19:10,
22:00.

Premonition
Egubakoitza eta zapatua:
16:25, 18:25, 20:25, 22:25.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:25,
20:25, 22:25.

Tu la letra, yo la musica
20:25, 22:35.

Cerdos salvajes
Egubakoitza eta zapatua:
16:00, 18:10, 20:15, 22:20.
Domeka: 12:10, 16:00, 18:10,
20:15, 22:20.

Seduciendo a un extraño
Egubakoitza eta zapatua:
17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

El buen pastor
Egubakoitza eta zapatua:
19:15.
Domeka: 18:30, 22:00.

Descubriendo a los
Robinsons
Egubakoitz eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:15, 16:15.

Las vacaciones de Mr.
Bean
12:15, 16:30, 18:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz
eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.



El velo pintado **

Zuzendaria: John Curran.
Aktoreak: Naomi Watts, Edward

Norton.
AEB. 2006.
125 min..

W. Somerset Maugha-
men eleberriak
behin baino gehia-
gotan zinemara egokituak
izan dira. Esate baterako,
Edmund Goouldingek *El filo
de la navajaren* bertsio eder
bat egin zuen. Orain *El velo
pintadoren* bertsio berri bat
egin da, baino lortutako
emaitzak nahiko mugatuak
suertatu dira. Maughamen
istorioetan amodio sutsuak,
izpiritualtasuna, bizitzaren
benetako esentziaren bila-
keta eta lurralde exotikoen
agerpena bere tokia dute.
Osagai erakargarri horiekin
oso melodrama indartsuak
egin daitezke, baina John
Curranek ez dio istorio honi
tonu egokia topatzen; tonu
gris baten geratzen baita.

Filmaren hasieran ikus-
ten dugu nola nahasten diren
bi denbora desberdinetako
irudiak: alde batetik, ikusten
dugu bikote bat Txinarantz
bidaiatzen (euren aurpegiek
bien artean gauzak gaizki
doazela aditzera ematen
dute), eta bestetik, bidaia
luze horren irudiekin tarte-
katzen da haserre horren
zergatia. Txinara heltzen
direnean dena linealagoa
bihurtzen da: istorioa
jarraian jaurtirik gabe kon-
tatzen delako, eta lineala,
tamalez, filmak denbora oso-
an tonu berdina duelako.
Badaude gertakizun drama-
tikoak, baina ez gara hunki-
tzen. Ez dut esango *El velo
pintado* aspergarria denik,
aktoreak onak dira, txukun-
tasunez egina dago, baina
hotz usten gaitu, eta hauxe
melodrama baten nahiko
akats larria da: ez dugu
negar egiten, ez dugu sufri-
tzen pertsonaien destinoa-
rekin.

El velo pintado filmak ez
du melodrama sutsuen inda-
rra eta ikusgarritasuna, ezta
melodrama neurritsuen bar-
netik ateratzen duten sakon-
tasunik.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

Cerdos salvajes *

AEB, 2007. Zuzendaria: Walt Becker.
Aktoreak: Tim Allen, John Travolta,
martin Lawrence.
99 min.

Lau lagunek beren eguneroko errutina
albo batera laga eta motoan bidaia bat
egitea erabakiko dute. Bidean motorza-
le gaizto batzuekin egingo dute topo.

Despues de la boda ***

Danimarka-Suedia, 2007. Zuzendaria:
Susanne Bier. Aktoreak: Mads
Mikkelsen, Rolf Lassgard.
120 min.
Jacobek urteak daramatza Indiako kale-
ko umei laguntzen. Egun batean,
negozio gizon aberats baten eskaintza
jasoko du. lau milioi dolar eskainiko
dizkio.

El infierno ***

Frantzia, 2006. Zuzendaria: Danis
Tanovic. Aktoreak: Emmanuelle
Beart, Karin Viard, marie Gillian,
Guillaume Cenet, Jacques Gamblin.
101 min.
Hiru ahizpak oso modu ezberdinean
bizi dituzte haurtzaroan izandako ger-
taera batzuk. Ama elbarriari egindako
bisitak tragedia ilun bat azaleratuko du.

El numero 23

AEB, 2007. Zuzendaria: Joel
Schumacher. Aktoreak: jim Carrey,
Virginia Madsen, Danny Huston.
95 min.
Walter Sparrowk makinaz idatzitako
liburu bat aurkituko du. Han bere bizi-
tzarekin eta inguruan duen jendearekin
antz handia duen istorio bat aurkituko
du, eta amesgaizto baten sartuko da.

300 ***

AEB, 2004. Zuzendaria: Zack Snyder.
Aktoreak: Gerard Butler, Rodrigo
Santoro, Lena Headey.
115 min.

V. mendea Kristo aurretik. Pertsiako
inperioak errenditzeko eskatu dio
Greziako konfederazioari. Atenas eta
beste hiri estatuek ez daude ados
horrekin. Espartako erregeak persiarrei
aurre egitea erabakiko du, 300 soldadu
indartsuenekin. Filma Frank Millerren
komikian dago oinarritua.

Tu la letra, yo la musica **

AEB, 2007. Zuzendaria: Marc
Lawrence. Aktoreak: Hugh Grat,
Drew Barrymore.
109 min.
Alex Fletcher abeslari ospetsua izan
zen 1980ko hamarkadan, baina, egun,
besterentzat egiten ditu kantuak.
Abesti bat entregatu behar du, baina
ezinean dabil. Neska batek landareak
zaintzen dizkio, eta hari eskatuko dio
laguntza.

Sunshine **

AEB, 2007. Zuzendaria: Danny Boyle.
Aktoreak: Chris Evans, Cillian
Murphy, Rose Byrne.
100 min.
Bost urte barru, eguzkia itzali eta gizakia
desagertu egingo da. Azkeneko itxarope-
na espaziuntzi bat bidaltzea da, bertan
zortzi gizon eta emakume bat daudela.

Descubriendo a los Robinsons ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Stephen J.
Anderson. Marrazki bizidunak.
102 min.
Lewisek etorkizunetik datorren mutil

misteriotso bat ezagutuko du: Wilbur
Robinson. Biek denboran bidaia egingo
dute.

Spiderman 3 *

AEB, 2007. Zuzendaria: Sam Raimi.
Aktoreak: Tobey Maguire, Kirstan
Dunst, James Franco, Thomas Haden
Church.
139 min.
Parkerrek oreka aurkitu du Mary
Janeren maitasunaren eta superheroi
eginbeharren artean. Baina, ekaitz
baten ostean, haren trajea aldatu
egingo da. Botereak handituko ditu,
eta haren alde ilunena azaleratuko
da.

El buen pastor ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Robert de
Niro. Aktoreak: Matt Damon,
Angelina Jolie, William Hurt, Joe
Pesci, Alec Baldwin.
160 min.
Robert Wilson gazte idealista bat da,
Margaretekin ezkondu berria.
AEBetako Zerbitzu Estrategikoen
Agentzian sartuko da, CIAren aurreko-
an. Wilson denborarekin gero eta
hotzagoa bilakatuko da, eta horrek
bere bikote bizitzan eragin kaltegarria
izango du.

¿Quien dice que es facil?

Argentina-Espainia, 2007.
Zuzendaria: Juan Taratuto.
Aktoreak: Diego Peretti, Daniel
Bebinovich, Andres Pazos.
91 min.
Gizon obsesibo eta bakarti batek apar-
tamentua alokatuko dio haurdun
dagoen argazkilarri bati. Bien artean
harreman berezia sortuko da. *No sos*

vos, soy yo

El ultimo show

AEB, 2006. Zuzendaria: Robert
Altman. Aktoreak: Meryl Streep,
Woody Harrelson, Lily Tomlin.
105 min.

Fitzgerald Theater antzoki zaharra
botatzekotan dira, eta han country
musikako irratsaio baten azken ema-
naldia egitekotan dira.

vos, soy yo

El velo pintado

AEB-Txina, 2007. Zuzendaria: John
Curran. Aktoreak: Ed Norton, Naomi
Watts, Liev Schreiber, Toby Jones.
125 min.
Kitty gazte britainiar bat da. Familia
ingurutik ateratzeko, Walter medikuare-
kin ezkonduko da. Shanghaira joango
dira, eta han Kitty AEBetako gizon bate-
kin maiteminduko da. Baina senarra
haien arteko harremanaz ohartuko da.

Seduciendo a un extraño **

AEB, 2007. Zuzendaria: James Foley.
Aktoreak: Bruce Willis, Hale Berry.
109 min.
Nowena Priceren txikitako laguna hil
dute eta ez dute hiltzailea aurkitu.
Nowena bere kabuz ikertzen hasiko da.

La faille

AEB, 2007. Zuzendaria: Gregory Hoblit.
Aktoreak: Anthony Hopkins, Ryan Gosling.
110 min.
Distributuko fiskalaren laguntzailea nora
ezean dabil, eta txakurraren eta katua-
ren jokoan sartuko da. Izan ere, haren
emaztea hiltzen ahalegindu zen gizona
aske geratuko da.

Erromako zubi euskalduna

ASSOCIAZIONE CULTURALE EUSKARA

Euskal Herriarekiko interesa duten italiarrei zuzendutako elkarte da

ERROMAN Euskaraz gain, historia, mitologia eta euskal literaturaren gaineko ikastaroak antolatzen dituzte

EUSKARA-ITALIERA "Hiztegia gertu daukagu, baina ezin izan dugu kaleratu diru faltagatik", dio Maider Elkorok

EDU MENDIBIL > BERGARA

Erromatarren eta euskaldunon arteko zubi lanak egiten diharduen Associazione Culturale Euskara (www.euskara.it) taldeko kideak bisitari ditugu egunotan Bergaran. Elkartea 2001ean sortu zuten, Erroman, Euskal Herriarekiko interesa zuten italiarrei zuzenduta. Besteak beste, euskara eskolak ematen dituzte; Maider Elkorok bergararra dugu irakasleetako bat. Harekin batera, Euskal Herriaren gainean doktoretza-tesiak egin dituzten irakasle italiarrak dira elkartearen. Euskaraz gain, historia, mitologia eta euskal literaturaren gaineko ikastaroak antolatzen dituzte. Michele Palangio dugu irakasleetako bat: oporretan Euskal Herrira etorri eta gure kulturarekiko interesa piztu zitzaien. Azken sei urteotan euskara ikasten dabil, eta ondo baino hobeto moldatzen da.

Maider Elkororen hitzetan, "elkartea sortzean ez genuen nahi euskaldunon ghetto bat izan, bai zik eta italiarrei euskal kultura

erakustea eta, aldi berean, noizean behin, Italian egiten diren gauzak hemen erakustea". Abenduan Euskararen Astea ospatzen dute, eta iaz, esaterako, *Aupa Etxebeste!* filma aurkezten izan ziren han Asier Altuna *Kixi* eta Ramon Agirre. Era berean, Lorentzo Altube arrasatearrak txalaparta ikastaroa eman zuen. Euskara-italiera hiztegia gertu daukatela diosku Maiderrek: "Edozelan ere, ezin izan dugu kaleratu diru faltagatik. Ea nor-bait animatzen den...".

PONENTINO TRIO

Oraingoan, esan bezala, italiarren bisita egokitu da: Daniela abeslariak, Cesare gitarra jole eta kantariak eta Constantino kontu kontalariak Ponentino Trio osatzen dute. Erromako poeta zaharren lanak eskaintzen dituzte. Domekan, gauerdian, emanaldia egingo dute Bergarako Pol-Pol tabernan. Bezeperan, Lezon eta Irunen arituko dira. Euskal Herria-Italia elkartrukeak luze irautea da asmoa.



PONENTINO TRIO Erdian, Cesare, Daniela eta Constantino taldekideak. Alboetan, Michele Palangio eta Maider Elkorok.

E.M.

ahobero

"Ratzinger Aita Santuaren ostean, Lurreko pertsonarik inportanteena naiz momentuan"

Del Nido

> Sevilla futbol taldeko presidentea

UEFA txapelketa irabazi izana ondo ospatu ostean egingo zituen adierazpen horiek, beharbada. Ez dakigu zehatz-mehatz zein egoeratan zegoen Del Nido, baina hobe du Lurrera bueltatu.

iturri onetik

Gorlako auto igoera iraillean jokatzeko aukera aztertzen ari dira antolatzaileak

Hasiera baten ekainean jokatzekoa zen Gorlako auto igoera irailaren 8an jokatu da, ziurrenik. Proba antolatzen duen Bergara Racing talde antolatzaileak iraileko bigarren zapatuan egin nahi du aurtengo ekitaldia. Aurreko urteotan bezala, Bergarako lasterketa Euskal Herriko Mendi Txapelketarako baliagarria litzateke. Domeka honeetan, berriz, Arrateko igogera jokatu da Eibarren.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Bi boto, bi aukera

Oso gogoko ditut udal hauteskundeak, besteak beste, bi boto ditudalako eskuan. Hau da, bi aukera ditut bultzada emateko merezi duten hautagai edo zerrendei.

Dagoeneko erabakia dut noren zerrenda sartuko dudun gutunazal zurian. Erabakigarria izan da zerrenda-burua, bera bailitzateke herriko alkate, irabazi ezker. Eta alkateei dagokie udal taldearen eta herriaren lider izatea. Horren arabera aukeratu dut. Bestea, gutunazal koloreduna, azken orduan erabakiko dut. Hau politikoa da, aldagai gehiago hartu behar dira kontuan: epe motz ala luze, sari ala zigor, bihotza ala burua...

Bi botoak bereiztuta aukera daukat zuri-beltzari ihes egiteko. Osoago ager dezaket nire iritzia eta libreago sentitzen naiz. Probatu duzu inoiz?

ai, ene!



Al Gore eta politikoen buruhaustea

Kanpainan gaudenez, politikariak hain lanpetuta dabilta ala horren itxura eman nahi izaten dute argazkietan?

<http://tinyurl.com/3yxxk4>



Denentzat...

Maalako Errabala 13
ARRASATE
943 79 92 76

UNITED COLORS
OF BENETTON.